



ivac
kei

Instituto Vasco de Cualificaciones
y Formación Profesional
Kualifikazioen eta Lanbide
Heziketaren Euskal Institutua



GIZARTE ETA KULTURA
ZERBITZUAK

Oinarrizko Curriculum Diseinua
**GIZARTERATZEKO
GOI-MAILAKO
TEKNIKARIA**



AURKIBIDEA

1. TITULUAREN IDENTIFIKAZIOA	5. or.
2. LANBIDE PROFILA ETA LANBIDE INGURUNEA	5. or.
2.1 Konpetentzia orokorra	
2.2 Kualifikazioen eta konpetentzia-atalen zerrenda	
2.3 Lanbide-ingurunea	
3. HEZIKETA ZIKLOAREN IRAKASGAIK	8. or.
3.1 Heziketa-zikloaren helburu orokorrak	
3.2 Lanbide-moduluaren zerrenda, ordu-esleipena eta kurtsoa	
3.3 Lanbide-moduluak	
1. Gizarte esku-hartzearen testuingurua	
2. Gizarteratzea eta laneratzea	
3. Bizikidetzaren unitateentzako arreta	
4. Bitartekaritza komunitarioa	
5. Hezkuntzako esku-hartzearen babesa	
6. Autonomia pertsonalaren sustapena	
7. Komunikazio-sistema handigarriak eta alternatiboak	
8. Gizartean esku hartzeko metodologia	
9. Lehen laguntzak	
10. Gizarte-trebetasunak	
11. Gizarteratzeko proiektua	
12. Ingeles teknika	
13. Laneko prestakuntza eta orientabidea	
14. Enpresa eta ekimen sortzailea	
15. Lantokiko prestakuntza	
4. GUTXIENEN ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK	115. or.
4.1 Espazioak	
4.2 Ekipamenduak	
5. IRAKASLEAK	116. or.
5.1 Irakasleen espezialitateak eta irakasteko eskumena heziketa-zikloko lanbide-moduluetan	
6. LANBIDE MODULUEN ARTEKO BALIOZKOTZEAK	117. or.
7. TITULUKO LANBIDE MODULUEN ETA KONPETENTZIA ATALEN ARTEKO TRAZABILITATE ETA EGOKITASUN LOTURAK	117. or.
7.1 Konpetentzia-atalen egokitasuna lanbide-moduluekin, horiek baliozkotu edo salbuesteko	
7.2 Lanbide-moduluaren egokitasuna konpetentzia-atalekin, horiek egiaztatzeko	



1. TITULUAREN IDENTIFIKAZIOA

Gizarteratzeko goi-mailako teknikariaren titulua elementu hauek identifikatzen dute:

- Izena: Gizarteratzea.
- Maila: Goi-mailako Lanbide Heziketa.
- Iraupena: 2.000 ordu.
- Lanbide-arloa: Gizarte- eta kultura-zerbitzuak.
- INSN (Irakaskuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatua): CINE-5b.
- Goi-mailako hezkuntzako kualifikazioen Espainiako esparruan duen maila: 1. maila, goi-mailako teknikaria.

2. LANBIDE PROFILA ETA LANBIDE INGURUNEA

2.1 Konpetentzia orokorra

Titulu honen konpetentzia orokorra gizarteratzeko parte-hartzeak programatzea, antolatzea, ezartzea eta ebaluatzea da, horretarako estrategia eta teknika espezifikoak aplikatuta, aukera-berdintasuna sustatuta, eta, uneoro, hartzaileekiko errespetuz jokatuta eta haientzat zein profesionalarentzat ingurune seguruak sortzen direla bermatuta.

2.2 Titulu honetan biltzen diren Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko kualifikazioen eta konpetentzia-atalen zerrenda:

Osatutako lanbide-kualifikazioak:

- a. Autonomia pertsonalerako eta gizarte-autonomiarako trebetasunen irakaskuntza SSC090_3 (otsailaren 20ko 295/2004 Errege Dekretua). Konpetentzia-atal hauek barne hartzen ditu:
 - UC0252_3: Gizarteratzeko esku-hartzeak programatzea, antolatzea eta ebaluatzea.
 - UC0253_3: Autonomia pertsonalerako eta gizarte-autonomiako trebetasunak lantzerako eta eskuratzeko zuzenduriko esku-hartzeak garatzea.
 - UC0254_3: Komunikazio-sistema alternatiboak finkatzea, egokitzea eta aplikatzea.
- b. Gizarte-bitartekaritza SSC324_3 (urriaren 19ko 1368/2007 Errege Dekretua). Gaitasun-atal hauek hartzen ditu barnean:
 - UC1038_3: Esku-hartzearen gizarte-testuinguruaren ezaugarriak eta premiak identifikatzea eta zehaztea.
 - UC1039_3: Pertsona, eragile eta gizatalde ezberdinen arteko gatazkak prebenitzea.
 - UC1040_3: Gatazkak kudeatzeko prozesua antolatzea eta ezartzea.
 - UC1041_3: Gatazkak kudeatzeko bide gisa bitartekaritza balioestea eta haren jarraipena eta hedapena gauzatzea.
 - UC1026_3: Generoaren ikuspegia txertatzea gizartean parte hartzeko proiektuetan.
- c. Ezintasuna duten pertsonen laneratzea SSC323_3 (otsailaren 19ko 1368/2007 Errege Dekretua). Konpetentzia-atal hauek barne hartzen ditu:

UC1034_3: Baliabide soziolaboralei eta prestakuntzakoei buruzko informazioa kudeatzea eta ezintasuna duten pertsonak laneratzeko eta gizarteratzeko lanpostuen azterketan laguntzea.

UC1035_3: Ezintasuna duten pertsonen trebetasun soziolaboralak eskuratzeko eta garatzeko trebakuntzako esku-hartzeak gauzatzea.

UC1036_3: Ezintasuna duten pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko prozesua babestea.

UC1037_3: Gizarteratzearen eta laneratzearen jarraipena egitea enpresarekin, erabiltzailearekin eta haren ingurune pertsonalarekin.

- d. Sustapen eta esku-hartze sozioedukatiboa ezintasuna duten pertsonekin SSC450_3 (1096/2011 Errege Dekretua, uztailaren 22koa). Konpetentzia-atal hauek barne hartzen ditu:

UC1448_3: Gizarte-baliabideak eta komunitatekoak antzematea, sortzea eta erabiltzea esku-hartze sozioedukatiboak egiteko ezintasuna duten pertsonekin.

UC1449_3: Ezintasuna duten pertsonen programaturiko jarduerak antolatzen eta gauzatzen laguntzea.

UC1450_3: Ezintasuna duten pertsonak aisiako eta denbora libreko espazioetan sartzeko prozesuak antolatzea, garatzea eta ebaluatzea.

UC1451_3: Ezintasuna duten pertsonen zuzendutako oinarritzko estrategia kognitiboen eta alfabetatze teknologikoaren estrategien antolakuntzan eta garapenean entrenatzea goi-mailako profesionalekin lankidetzan.

UC1452_3: Ezintasuna duten pertsonen familiekin lan egitea, haiek orientatzea eta laguntzea, goi-mailako profesionalekin batera.

Osatu gabeko lanbide-kualifikazioak:

- a. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei laguntzea ikastetxeetan SSC444_3 (uztailaren 22ko 1096/2011 Errege Dekretua):
- UC1427_3: Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen hezkuntza-programak gauzatzea, tutorearekin eta ikastetxeko diziplina arteko taldearekin lankidetzan, haien erreferentziako gelan.
- UC1428_3: Autonomia pertsonaleko eta higieneko programak ezartzea hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen garbitasunean, ikastetxeko diziplina arteko taldearekin lankidetzan.
- b. Gizarte-dinamizazioa SSC321_3 (2007ko urriaren 19ko 1368/07 Errege Dekretua):
- UC1022_3: Gizarte edo lurralde-esparru jakin bat osatzen duten eragileen artean garatzen diren gizarte-jardunen eta -proiektuen eta herritarrek parte hartzeko plangintza, garapena eta ebaluazioa dinamizatzea.
- UC1024_3: Gizarte-proiektuen eta -jardunen komunikaziorako eta hedapenerako estrategiak ezartzea.

2.3 Lanbide-ingurunea

Pertsonen zuzendutako zerbitzu-sektorean egiten dute lan titulu hau duten pertsonak: laguntzakoan, hezkuntzakoan, etxeko gestiorako laguntzan eta laguntza psikosozialean, eta gizartearentzako zerbitzuen sektorean: gizarte-desabantailan diren hainbat gizatalderentzako eta pertsonarentzako arreta psikosoziala, gizarte-bitartekaritza, laneratzeko, aukera-berdintasunaren sustapena eta genero-indarkeriaren biktimen eta haien seme-alaben eskubideen babesa.

Zeregin eta lanpostu aipagarrienak hauek dira:



- Prebentzioko eta gizarteratzeko programen teknikaria.
- Hainbat motatako egoitza-ekipamenduetako hezitzailea.
- Ezintasuna duten pertsonen hezitzailea.
- Familia-langilea.
- Familia-hezkuntzako hezitzailea.
- Tutoretzako laguntzailea.
- Zentro irekietako begiralea.
- Gizarteratzeko teknikaria.
- Hezkuntza-babeseko espezialista.
- Hezkuntza bereziko hezitzailea.
- Hezitzaile teknikaria.
- Teknikari espezialista (gizarteratzailea).
- Teknikari espezialista II (heziketakoa).
- Ezintasuna duten pertsonen hezitzailea.
- Oinarrizko mugikortasuneko teknikaria.
- Laneratzeko teknikaria.
- Bitartekari okupazionala eta/edo lanekoa.
- Bitartekari okupazionala eta/edo lanekoa.
- Oinarriko hezitzailea.
- Gizarte-bitartekaria.
- Kultura arteko bitartekaria.
- Auzo- eta gizarte-bitartekaria.
- Laneko prestatzailea.
- Enplegu lagunduko teknikaria.
- Laneko laguntzako teknikaria.
- Errehabilitazio psikosozialeko begiralea.

3. HEZIKETA ZIKLOAREN IRAKASGAIK

3.1 Heziketa-zikloaren helburu orokorrak:

1. Informazioa interpretatzea, estrategia eta baliabide egokiak aukeratuta, hartzaileei, testuinguruari eta indarreko lege-esparruari egokituriko gizarteratzeko proiektuak egiteko; proiektuok genero-ikuspegia hartu beharko dute aintzat, eta genero-indarkeriaren biktimen eta haien seme-alaben eskubideak defendatu beharko dituzte.
2. Gizarteratzeko goi-mailako teknikariari eta diziplina arteko taldeko kideei eskatu beharreko konpetentziak identifikatzea, plangintzan ezarritako esku hartzeko testuingurua eta kalitate-irizpideak aztertuta, proiektuen eta programen abiaraztea gidatzeko eta gainbegiratzeko.
3. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak aplikatzea, dokumentazioa kudeatzeko protokolo eta baliabide egokiak identifikatuta, eta esku-hartzearekin loturiko jardun administratiboak gauzatzea.
4. Baliabide eta estrategia metodologikoak aukeratzea, eskakizun teknikoek eta instalazioei buruzko araudiak interpretatuta, gizarteratzeko jarduerak programatzeko.
5. Esku-hartze mailak identifikatzea, eragina duten faktoreak aztertuta, etxeko indarkeria prebenitzera bideraturiko esku-hartzeak diseinatzeko, ezartzeko eta ebaluatzeko.
6. Erabiltzaileen arreta fisikorako premiak identifikatzea, kasuan-kasuan eskuragarri dauden laguntza teknikoekin lotuta, haiei erantzungo dieten jarduerak diseinatzeko, gainbegiratzeko eta ebaluatzeko.
7. Bizikidetzaren unitateen ezaugarriak aztertzea, aldagai garrantzitsuenak identifikatuta, etxeko gestioari laguntzeko jarduerak antolatzeko, gainbegiratzeko eta ebaluatzeko.
8. Estrategia metodologikoak eta jarduteko arauak hautatzea, laguntza psikosozialeko jarduerak antolatzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko beharrezko baliabideak identifikatuta.
9. Estrategia metodologikoak eta jarduteko arauak hautatzea, beharrezko laguntza teknikoak zehaztuta, autonomia pertsonalerako eta gizarte-autonomiarako trebetasunak lantzeko jarduerak antolatzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko.
10. Estrategia metodologikoak eta ebaluazio-estrategiak hautatzea, diziplina arteko taldeak ezarritako irizpideak aplikatuta, esku-hartze sozioedukatiboko jarduerak diseinatzeko eta gauzatzeko.
11. Entrenatze, bitartekaritza eta babes teknikoak premiak aztertzea, eskuragarri daude baliabide soziolaboralen arabera, laneratzeko jarduerak gauzatzeko eta ebaluatzeko.
12. Komunikazioari laguntzeko premiak identifikatzea eta, hala badagokio, laguntza teknikoak, hartzailearen ezaugarrien arabera, komunikazio-trebetasunak lantzeko.
13. Sorturiko arazoak aztertzea, parte hartzeko teknikak eta gatazkak kudeatzekoak hautatuta, pertsonen eta taldeen artean bitartekari lanak gauzatzeko.
14. Istripuetan edo larrialdietan jarduteko protokoloak deskribatzea, lehen laguntzak aplikatzeko teknika egokiak hautatuta.
15. Ebaluazio-teknikak eta -tresnak hautatzea eta, horretarako, plangintzan ezarritako kalitate-adierazleak eta irizpideak aztertzea, esku-hartzearen kontrola, jarraipena eta atzeraelikadura gauzatzeko.
16. Laneko ingurunean eskaturiko gizarte-trebetasunak aztertzea, esku-hartzean parte hartzen duten pertsonekin harreman arinak izateko eta sor daitezkeen gatazkak gainditzeko.



17. Sektoreko bilakaera zientifikoarekin, teknologikoarekin eta antolamendukoarekin lotzen diren ikaskuntza-baliabideak eta -aukerak aztertzea eta erabiltzea, baita informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ere, eguneratze-izpirituari eusteko eta laneko egoera berrietara eta egoera pertsonal berrietara egokitzeko.
18. Sormena eta berrikuntzako izpiritua garatzea, lanaren eta norberaren bizitzaren prozesuetan eta antolamenduan agertzen diren erronkei erantzuteko.
19. Erabakiak arrazoituta hartzea, eta, horretarako, tartean diren aldagaiak aztertzea, hainbat esparrutako jakintzak integratzea eta arriskuak eta erabaki okerrak hartzeko aukera onartzea, askotariko egoerei, arazoei edo gorabehereri aurre egiteko eta horiek ebazteko.
20. Gidaritza-, motibazio-, gainbegiratze- eta komunikazio-teknikak garatzea talde-laneko testuinguruetan, betiere lantaldeen antolamendua eta koordinazioa errazteko.
21. Komunikazio-estrategiak eta -teknikak aplikatzea eta transmitituko diren edukietara, xedera eta hartzailen ezaugarrietara egokitzea, komunikazio-prozesuen eraginkortasuna ziurtatzeko.
22. Laneko arriskuen prebentzioko eta ingurumen-babeseko egoerak ebaluatzea, norberaren eta taldearen prebentziorako neurriak proposatuz eta aplikatuz, lan-prozesuetan aplikatzekoa den araudiaren arabera, betiere ingurune seguruak bermatzeko.
23. Irisgarritasun unibertsalari eta guztiontzako diseinuari erantzuteko beharrezko lanbide-ekintzak identifikatzea eta proposatzea.
24. Kalitate-parametroak identifikatzea eta aplikatzea ikaskuntza-prozesuan egindako lanetan eta jardueretan, ebaluazioaren eta kalitatearen kultura baloratzeko eta kalitate-kudeaketako prozedurak gainbegiratzeko eta hobetzeko gai izateko.
25. Ekintzailtzako, enpresako eta ekimen profesionaleko kulturarekin lotzen diren prozedurak erabiltzea, enpresa txiki baten oinarrizko kudeaketa egiteko edo lan bat egiteko.
26. Baldintza sozialak eta lanekoak arautzen dituen lege-esparrua kontuan hartuta, ikasleak gizarte-eragile aktibo gisa dituen eskubideak eta betebeharrak zein diren jakitea, herritar demokratiko gisa parte hartzeko.

3.2 Lanbide-moduluaren zerrenda, ordu-esleipena eta kurtsoa:

LANBIDE MODULUA	Ordu-esleipena	Kurtsoa
0337. Gizarte esku-hartzearen testuingurua	99	1º
0338. Gizarteratzea eta laneratzea	200	2º
0339. Bizikidetzaren unitateentzako arreta	165	1º
0340. Bitartekaritza komunitarioa	120	2º
0341. Hezkuntzako esku-hartzearen babesa	120	2º
0342. Autonomia pertsonalaren sustapena	198	1º
0343. Komunikazio-sistema handigarriak eta alternatiboak	165	1º
0344. Gizartean esku hartzeko metodologia	132	1º
0020. Lehen laguntzak	60	2º
0017. Gizarte-trebetasunak	132	1º
0345. Gizarteratzeko proiektua	50	2º
E-200. Ingeles teknika	40	2º
0346. Laneko prestakuntza eta orientabidea	99	1º
0347. Enpresa eta ekimen sortzailea	60	2º
0348. Lantokiko prestakuntza	360	2º
Zikloa, guztira	2.000	

3.3 Lanbide-moduluak: aurkezpena, ikaskuntzaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak, edukiak eta orientabide metodologikoak

**1. lanbide-modulua****GIZARTE ESKU-HARTZEAREN TESTUINGURUA****a) Aurkezpena**

Lanbide-modulua:	Gizarte esku-hartzearen testuingurua
Kodea:	0337
Heziketa-zikloa:	Gizarteratzea
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	99 ordu
Kurtsoa:	1
Kreditu kop.:	7
Irakasleen espezialitatea:	Gizarte parte-hartzea (Bigarren Hezkuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal hauei lotuta dago: UC0252_3: Gizarteratzeko esku-hartzeak programatzea, antolatzea eta ebaluatzea. UC1448_3: Gizarte-baliabideak eta komunitatekoak antzematea, sortzea eta erabiltzea esku-hartze sozioedukatiboak egiteko ezintasuna duten pertsonekin.
Helburu orokorrak:	1 / 2 / 3

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Gizarte-dinamika ezaugarritzen du, eta haren oinarri diren kontzeptu eta prozesu psikologikoekin eta soziologikoekin lotzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Gizakiaren bilakaeraren oinarritzko prozesuak azaldu ditu.
- Portaeraren eta jarreraren gizarte-eraketan eragina duten prozesuak deskribatu ditu.
- Gizarte-egitura eta haien arteko harremana osatzen duten elementuak deskribatu ditu.
- Gizarte-dinamikan eta -aldaketan parte hartzen duten oinarritzko prozesuak deskribatu ditu.
- Gizarte-aldaketa errazten edo eragozten duten faktoreak identifikatu ditu.
- Gizarte-partaidetza errazten edo eragozten duten faktoreak identifikatu ditu.
- Esku-hartzeak diseinatzerakoan gizarte-dinamikaren oinarritzko alderdiak ezagutzeko premia argudiatu du.
- Genero-ikuspegiak gizarte-dinamikan eta -aldaketan betetzen duen rola azaldu du.

2. Gizarteratzeko eta gizartetik baztertzeko prozesuak ezaugarritzen ditu eta gertaera horietan eragina duten faktore soziologikoak eta psikologikoak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gizarteratzeko eta gizartetik baztertzeko prozesuekin loturiko oinarrizko kontzeptu psikologikoak eta soziologikoak definitu ditu.
- b) Gizarteratzeari eta gizartetik baztertzeari loturiko pertsonen eta gizataldeen oinarrizko prozesuak azaldu ditu.
- c) Marjinazioaren eta gizarte-bazterkeriaren kausa nagusiak identifikatu ditu.
- d) Marjinazioko eta gizarte-bazterkeriako adierazle orokorrak identifikatu ditu.
- e) Gizarte-premia nagusiak deskribatu ditu.
- f) Gizarte-premia eta -eskaera bereizi ditu.
- g) Gizarte-premiei marjinazioan eta gizarte-bazterkerian duten eragina argudiatu du.
- h) Birgizarteratzeko mekanismo eta prozesu orokorrak zehaztu ditu.

3. Gizartean parte hartzeari dagokion esparrua interpretatzen du eta haren egitura juridikoa eta administratiboa hura garatzen den errealitatearekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gizartean parte hartzeko politiken aurrekariak eta bilakaera azaldu ditu.
- b) Gizartean parte hartzeko egungo esparru juridikoa eta administratiboa deskribatu ditu.
- c) Gizarte-babeseko sistemen esparrua haiek garatzen diren errealitatearekin lotu du.
- d) Gizartean parte hartzeko sektoreak zehaztu ditu.
- e) Gizarte-babesa pertsonen eskubidetzat jotzeko premia justifikatu du.
- f) Gizarte-babeseko sistemek gizarteratzeko eta gizarte-egonkortasunerako elementu gisa duten garrantzia azaldu du.
- g) Diskriminazio positiboak berdintasun-prozesuetan duen garrantzia baloratu du.
- h) Gizartean parte hartzeko goi-mailako teknikariak gizartean parte hartzeko prozesuan duen rola deskribatu du.

4. Gizartean parte hartzeko eremuak zehazten ditu eta haiek osatzen dituzten gizataldeen ezaugarriak eta premiak deskribatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gizarte-bazterketako egoerei eta arriskuari loturiko ezaugarri biologikoak, psikologikoak eta gizartekoak deskribatu ditu.
- b) Gizartean parte hartzeko eremu desberdinak osatzen dituzten gizataldeak identifikatu ditu.
- c) Gizarte-bazterketa jasateko arriskua duten pertsonen eta gizataldeen ezaugarriak eta premiak azaldu ditu.
- d) Gizatalde bakoitzaren gizarte-egoeran edo bazterkeria jasateko arriskuan eragina duten faktoreak identifikatu ditu.
- e) Esku-hartzearen sektore hartzaileen premia-egoeran eragina duten aldagaiak deskribatu ditu.
- f) Norbanako eta gizatalde espezifikoen ezaugarriak parte-hartze eskaerekin eta premiekin lotu ditu.
- g) Esku-hartze kolektiboari buruzko informazio-iturri nagusiak identifikatu ditu.
- h) Esku-hartzea hartzaileen premietan oinarritzeko garrantzia baloratu du.



5. Parte hartzeko zerbitzuak eta programak ezaugarritzen ditu eta artatzen dituzten premia pertsonalekin eta sozialekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gizartean parte hartzeko ikuspegi, modalitate eta estrategia desberdinak identifikatu ditu.
- b) Gizartean parte hartzeari zuzendutako erakunde eta zerbitzu nagusiak hainbat gizatalderekin lotu ditu.
- c) Esku hartzeko hainbat antolamendu-testuinguru eta -sistema deskribatu ditu.
- d) Gizarte esku-hartzeko eta berdintasuna bultzatzeko programa garrantzitsuenen ildo nagusiak azaldu ditu.
- e) Hainbat gizatalderekin eginiko esku-hartzearen oinarritzko alderdiak identifikatu ditu.
- f) Gizatalde bakoitzak eskura ditzakeen prestazio eta laguntza nagusiak zerrendatu ditu.
- g) Gizarte-babesak pertsonen gizarteratzean duen garrantzia baloratu du.
- h) Borondatezko lanak gizarte esku-hartzean duen gizarte-garrantzia, jardun-eremua eta haren mugak zehaztu ditu.

c) Oinarritzko edukiak:

1. GIZARTE DINAMIKA EZAUGARRITZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizakiaren bilakaera-prozesuen analisia. - Gizarte-dinamikaren egituraren eta prozesuen analisia. - Pertsonen sozializazioan eragina duten prozesuak eta faktoreak.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte psikologiako eta soziologiako oinarritzko kontzeptuak eta prozesuak. - Komunitate-sareak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Prozesu psikologikoen eta soziologikoen gizarte esku-hartzean garapenean duten eragina balioestea. - Esku-hartzeak diseinatzerakoan gizarte-dinamikaren oinarritzko alderdiak ezagutzeko premia balioestea.

2. GIZARTERATZEKO ETA GIZARTE BAZTERKERIAKO PROZESUAK EZAUGARRITZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Premiaren, marjinazioaren eta bazterketaren arteko harremanak aztertzea. - Marjinazioko eta gizarte-bazterkeriako adierazle orokorrak identifikatzea. - "Premia" kontzeptua aztertzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-bazterketaren psikosozioiologia. - Gizarte-premiak eta eskakizunak. - Birgizarteratzeko prozesuak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-premien eta -eskakizunen aurrean jarrera enpatikoa izatearen garrantzia balioestea.

	- Entzute aktiboaren garrantzia balioestea.
--	---

3. GIZARTE PARTE HARTZEAREN ESPARRUA INTERPRETATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Espainian eta gure inguruko herrialdeetan dauden gizarte esku-hartzeko ereduak aztertzea. - Autonomia erkidegoak gizarte esku-hartzearen arloan dituen kompetentziak identifikatzea. - Gizarte esku-hartzeko hainbat eredu aztertzea eta konparatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte esku-hartzea. - Gizarte esku-hartzearen esparru administratiboa, lege-esparrua eta kompetentziazkoa. - Gizarteratzeko goi-mailako teknikariaren profil profesionala.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte babeseko sistemek egungo gizartearen premiei eta beharrei ematen dizkieten erantzunen garrantzia balioestea. - Gizarte esku-hartzearen esparruari buruz ditugun ezagutzak etengabe eguneratzearen garrantzia balioestea. - Gizarte-babesa pertsonen eskubidetzat jotzeko premia balioestea.

4. GIZARTEAN PARTE HARTZEKO EREMUAK ZEHAZTEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizatalde espezifikoek ezaugarriak eta premiak aztertzea. - Esku-hartze kolektiboari buruzko informazio-iturri nagusiak identifikatzea. - Esku-hartzearen xede diren sektoreen premia-egoeretan eragiten dute aldagai fisiko, psikologiko, sanitario eta sozial nagusiak aztertzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-bazterketako egoerei eta arriskuari loturiko ezaugarri biologikoak, psikologikoak eta gizartekoak deskribatzea. - Gizarte esku-hartzeko esparruak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Premien azterketa balioestea esku-hartzearen abiapuntu gisa. - Objektibotasunez aztertzea lortutako informazioa. - Esku-hartze kasuei buruzko informazioa tratatzerakoan konfidentzialtasun-arauak betetzeak duen garrantzia balioestea.

5. GIZARTEAN PARTE HARTZEKO ZERBITZUAK ETA PROGRAMAK EZAUGARRITZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Eremu bakoitzaren berezko parte-hartze testuingurua aztertzea. - Sarea erabiltzea gizartean parte hartzeko zerbitzuei, programei eta baliabideei buruzko informazioa lortzeko. - Hainbat gizatalderekin eginiko esku-hartzearen oinarriko alderdiak identifikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte parte-hartzeko estrategiak. - Gizarte parte-hartzeko erakundeak, zerbitzuak eta programak. - Gizartearen parte-hartzea eta boluntariora. - Gizarte babes eta autolaguntza.



jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none">- Gizarte babesak pertsonen gizarteratzean duen garrantzia balioestea.- Eraginkortasunez eta eragimenez jardutea beharrezko informazioa bilatzean, aurkitzean eta antolatzean.
--------------	---

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulu hau egituratzeko, bi fase hauek ezartzea proposatzen dugu:

1. Gizarte esku-hartzearen ezaugarriak, testuinguruak eta sektoreak identifikatzea.
2. Gizarteratzearen eremuko premiei eta eremu horretako kasuen, zerbitzuen eta programen ezaugarriei buruzko informazioa aztertzea.

Lehenengo faseak, “gizarte parte-hartzearen ezaugarriak, testuinguruak eta sektoreak modu ulergarrian ezagutzea”, esku hartuko den testuinguruaren eta, egun, gure ingurunean gauzatzen ari diren programen ezagutzarekin loturiko gaitasun sinpleak hartzen ditu barnean. Era berean, informazioa antzemateko, lortzeko, biltzeko eta antolatzeko teknikekin loturiko gaitasunak hartzen dira aintzat, prozesu osoan zehar informazio horren konfidentziasunari eutsita.

Bigarren faseak, “gizarteratzearen arloko kasuen, zerbitzuen eta programen beharrei eta ezaugarriei buruzko informazioa aztertzea”, egoera bakoitzean informazioa antzemateko, biltzeko, eguneratzeko eta antolatzeko teknika ezberdinekin loturiko gaitasun sinpleak hartzen ditu barnean.

2) Alderdi metodologikoak

Komeni da ondoko orientabide metodologikoak aintzat hartzea:

Komeni da modulua aurkezpen-unitate didaktiko batekin hastea, ikasleak unitate horretan landuko diren edukietara hurbiltzeko. Komenigarritzat jotzen da ikasleen motibazioa sustatuko duten eta irakasleari ikasleek irakasgaiaren inguruan duten aurretiazko ezagutza eta interesa antzematen lagunduko dioten jarduerak gauzatzea.

Irakasleak, modulua osatzen duten edukiak jorratzean, horietan proposatutako sekuentziazioa kontuan hartu beharko du. Horrek oinarri teoriko egokia izaten lagunduko dio ikasleari. Garrantzi handikoa da moduluari esanahia eta orokortasuna emango dion ardatz nagusi bat finkatzea, loturirik gabeko atalak ezartzeko joera saihestearren.

Halaber, ez genuke modulu honen prozedurazko edukien garrantziaz ahaztu behar, irakatsi eta ikasteko jardueren eta ebaluazio-jardueren zehaztapena ezarriko baitute. Ez da aurreko gomendioarekiko kontraesankor gisa interpretatu behar kontzeptuzko egitura duen unitate didaktikoren bat ezartzea. Gehiegi ez erabiltzea eta ikasleen metodologia aktiboen aldeko apustua egitea gomendatzen da, metodologia horien garapenean nolabaiteko autonomia izanda.

Dena den, oroimenean gehiegi oinarrituriko irakaskuntza-ikuspegi bat izatea saihestu behar da, eta asimilazio-bidezko ikaskuntza bilatu behar da, hainbat kasu praktiko

gauzatuta. Unitate didaktiko guztietan jarrerazko edukien garrantzia azpimarratu behar da.

Gomendagarritzat jotzen da banako lana eta talde-lana bultzatuko duten jarduerak diseinatzea. Izan ere, banako lanaren bidez, ikasleek euren ikaskuntza pixkanaka eraiki ahal izango dute; eta, talde-lanaren bidez, gizarteratzean profesionalen arteko koordinazioak eta talde-lanak duten garrantziaz ere jabetuko dira.

Jarduerak praktikoak izango dira eta ikaslea gizarte-errealitatera eta rol profesional ezberdinetara hurbilduko dituzte. Ondoren, ikasleek haien lanbide-jardunean aurkituko dituzten egoerak simulatuko dituzten jarduerak diseinatzea gomendatzen da, betiere ingurunera egokituta, eta hainbat suposizio praktiko eta simulazio aurkeztuta.

Inguruko hainbat erakunderengana jotzea gomendatzen da, adibidez, Gurutze Gorriara, elkarteetara, udaletara, Foru Aldundira, eta abar; jarduera hori beste ikaskuntza bat gehiago izango da eta suposizio errealekin lan egitea ahalbidetuko du.

Komeni da moduluaren amaieran prozedurazko eta laburpeneko unitate didaktiko bat sartzea. Hala, bereganatutako ezagupenen bidez, ikasleek gai izan beharko dute sortutako edozer egoerari aurre egiteko, moduluan inplizitu dagoen profesionaltasuna erakutsiz.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Gizarteratzearen eremuko esku-hartzearen ezaugarriak, testuinguruak eta sektoreak identifikatzea eta haien aniztasuna balioestea:
 - Informazioa bilatzea parte-hartze testuinguruei eta antolamendu-sistemei buruz.
 - Egungo eta etorkizuneko gizarteko esku-hartze sektoreak eta eremuak deskribatzea.
 - Gizarte-esparruan informazioa antzemateko eta lortzeko teknikak identifikatzea, haien erabiltzeko aukerak identifikatuta.
 - Tokiko, eskualdeko, estatuko eta Europako gizarteratzeko programa nagusien ildo orokorrak bilatzea, identifikatzea eta deskribatzea.
 - Gizarte esku-hartzeko programak eta proiektuak bilatzea, berezko dituzten konfigurazio-elementuak aterata.

- ✓ Gizarteratzearen eremuko kasuen eta programen premiei eta ezaugarriei buruzko informazioa aztertzea:
 - Informazioa hainbat iturritan bilatzea.
 - Informazioa biltzeko, eguneratzeko eta antolatzeko hainbat teknika erabiltzea, informazio horren konfidentzialtasunari eutsita.
 - Suposizio praktikoak egitea:
 - Medikuen, laguntza zerbitzuen, gizarte zerbitzuen, psikologoaren eta abarren txostenetatik ateratako informazioa aztertzea eta interpretatzea.
 - Lortu nahi diren autonomia pertsonaleko eta sozialeko mailak zehaztea.
 - Informazio osagarria lortzeko tresna bat aukeratzea.
 - Hautatutako tresna aplikatzea.



2. lanbide-modulua

GIZARTERATZEA ETA LANERATZEA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Gizarteratzea eta laneratzea
Kodea:	0338
Heziketa-zikloa:	Gizarteratzea
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	200
Kurtsoa:	2
Kreditu kop.:	13
Irakasleen espezialitatea:	Gizartearentzako zerbitzuak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoa)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal hauei lotuta dago: UC1034_3: Baliabide soziolaboralei eta prestakuntzakoei buruzko informazioa kudeatzea eta ezintasuna duten pertsonak laneratzeko eta gizarteratzeko lanpostuen azterketan laguntzea. UC1035_3: Ezintasuna duten pertsonak trebetasun soziolaboralak eskuratzeko eta garatzeko trebakuntzako esku-hartzeak gauzatzea. UC1036_3: Ezintasuna duten pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko prozesua babestea. UC1037_3: Gizarteratzearen eta laneratzearen jarraipena egitea enpresarekin, erabiltzailearekin eta haren ingurune pertsonalarekin.
Helburu orokorrak:	2

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Gizarteratzearen eta laneratzearen testuingurua ezaugarritzen du eta lege-esparrua eta eskuragarri dauden baliabideak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Laneratzeko zailtasunak dituzten gizataldeei zuzenduriko enplegu-politikak eta legezko esparrua deskribatu ditu.
- Gizarteratzeko eta laneratzeko modalitate nagusiak deskribatu ditu.
- Erabiltzaileen laneratzeko ahalbidetzeko laneko baliabideak eta prestakuntzakoak identifikatu ditu.

- d) Eskuragarri dauden prestakuntzako baliabideei eta gizarteratzeko eta laneratzeko baliabideei buruzko informazio-iturri nagusiak identifikatu ditu.
- e) Eskuragarri dauden gizarteratzeko, laneratzeko eta prestakuntzako baliabideei buruzko fitxategiak egiteko teknikak zerrendatu ditu.
- f) Gizarteratzeko, laneratzeko eta prestakuntzako baliabideek eskaintzen dituzten aukerak aztertzeo teknikak identifikatu ditu.
- g) Enpresekin eta erakundeekin lankidetzan sistematikoko harremanak ezartzea eta harreman horiei eustea ahalbidetzen duten kanalak identifikatu ditu.
- h) Gizarteratzeko goi-mailako teknikariak gizarteratzeko eta laneratzeko proiektuan betetzen duen zereginaren garrantzia arrazoitu du.

2. Laneratzeko esku-hartzea planifikatzen du, ekintza hori zuzentzen zaien pertsonen premiak identifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Esku-hartzearen xede diren gizataldeek dituzten laneratzeko premia bereziak ezaugarritu ditu.
- b) Hainbat gizatalderen eta erabiltzailearen lan-gaitasunak zehazten laguntzen duten aldagaiak identifikatu ditu.
- c) Erabiltzaileen autodeterminazio-eskubidea errespetatzeak duen garrantzia baloratu du.
- d) Gizarteratzeko eta laneratzeko proiektuen plangintza-prozesuaren fase eta elementu nagusiak definitu ditu.
- e) Gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbideak zehaztu ditu.
- f) Laneratzeko berezko dituen plangintza-dokumentuak eta -tresnak identifikatu ditu.
- g) Erabiltzaileak eta haien ingurunea lan-bilaketa aktiboan gehiago inplikatzeko bermatzen duten esku-hartzearen berezko estrategiak deskribatu ditu.
- h) Erabiltzaileen eta lanpostuen arteko egokitasuna aztertzeo diziplina anitzeko taldearekin batera lan egiteak duen garrantzia baloratu du.
- i) Genero-indarkeriaren biktimentzako laneratzeko programa indibidualizatuak diseinatu eta landu ditu.

3. Gizarteratzeko eta laneratzeko trebetasunak entrenatzeko teknikak aplikatzen ditu, erabiltzaileen premiak lan-ingurunearekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Lan-ingurunean autonomia pertsonala sustatzeko teknikak aukeratu ditu.
- b) Lan-bilaketa aktibora zuzendutako trebetasunak garatzeko jarduerak gauzatu ditu.
- c) Lan-ingurunean erabiltzaileen gizarte-trebetasunak hobetzeko teknikak aplikatu ditu.
- d) Lan-giro egokia ezartzea ahalbidetzen duten eta krisi-egoerak baztertzen laguntzen duten estrategiak aukeratu ditu.
- e) Erabiltzailearen lanpostuaren berezko zereginak eta funtzioak egituratu ditu.
- f) Laneko jarduna modu independentean gauzatzen laguntzen duten ekintzak sekuentziatu ditu.
- g) Lan-jardunaldian zehar segurtasun- eta higiene-arauak betetzea bermatzen duten neurriak ezarri ditu.
- h) Erabiltzailea eta haren familia gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuan inplikatzeko garrantzia baloratu du.

4. Laneratzeko eta gizarteratzeko jarduerak planifikatzen ditu, Enplegu Lagunduko metodologia aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:



- a) Enplegu Lagunduko proiektuak arautzen dituzten printzipioak deskribatu ditu.
- b) Enpresetan aurkezteko eta pertsona haietara laguntzeko prozesuak erabili ditu.
- c) Kanpoko laguntzak eta laneratzeko eta gizarteratzeko prozesuetan dituzten zereginak zehaztu ditu.
- d) Babes naturalak erabiltzailea bere lanpostuari egokitzeko prozesuan inplikatzeko estrategiak aukeratu ditu.
- e) Lan-ingurunea erabiltzailearen premietara egokitzea ahalbidetzen duten teknikak eta baliabideak identifikatu ditu.
- f) Lanpostuaren laguntza teknikoak eta egokitzapenak zehaztu ditu.
- g) Babesaren fasean zehar enpresaren eta taldearen koordinazioari lagunduko dioten komunikazio-bideak ezarri ditu.
- h) Ezarritako adierazleen analisiaren bitartez babes-fasetik jarraipen- edo mantentze-fasera aldatzeko premia baloratu du.

5. Gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko prozedurak zehazten ditu eta ebaluazio-estrategien, -tekniken eta -tresnen aukeraketa justifikatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Laneratzeko eta gizarteratzeko proiektuaren arrakasta edo porrota zehazten duten adierazleak identifikatu ditu.
- b) Erabiltzailea lanpostura egokitzeko prozesua baloratzeko informazioa biltzeko teknikak deskribatu ditu.
- c) Eskuratutako ikaskuntzei eusten zaien baloratzeko eta behatzeko tresnak sortu ditu.
- d) Parte-hartzaileek laneratze-prozesuarekiko duten poztasuna eta egokitzapen-maila neurtzeko prozesuak deskribatu ditu.
- e) Gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuan parte hartu duten elementu guztien arteko komunikazio-bideei eusteak duen garrantzia baloratu du.
- f) Jarraipen faserako koordinazio-protokoloa deskribatu du diziplina arteko taldearekin batera.
- g) Laneratzeko proiektuari buruzko txostenak eta amaierako memoriak egin ditu.
- h) Gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuaren ebaluazioaren emaitzak erregistratu eta antolatu ditu.

c) Oinarrizko edukiak:

1. GIZARTERATZEAREN ETA LANERATZEAREN TESTUINGURUA EZAUGARRITZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarteratzearen eta laneratzearen lege-esparrua aztertzea. - Enpresekin eta erakundeekin lankidetzak sistematikoko harremanak ezartzea eta harreman horiei eustea ahalbidetzen duten kanalak identifikatzea. - Ohiko esku-hartze testuinguruak eta haien antolamendu-egiturak deskribatzea. - Lan-merkatua aztertzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarteratzeko zailtasunak dituzten gizataldeei zuzendutako enplegu-politikak - Eskuragarri dauden prestakuntzako baliabideak eta baliabide soziolaboralak. - Laneratzea. - Gizarteratzeko teknikariaren rola laneratze-prozesuan.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Enplegu-politikek laneratzeari begira duten garrantzi sozioekonomikoa

	balioestea. - Gizarteratzeko goi-mailako teknikariak gizarteratzeko eta laneratzeko proiektuan betetzen duen zereginaren garrantzia balioestea. - Sormena izatea eskuragarri dauden baliabideak erabiltzeko unean.
--	--

2. LANERATZECO ESKU HARTZEAK PLANIFIKATZEA

prozedurazkoak	- Esku-hartzean parte hartu duten gizataldeek dituzten laneratzeko premia bereziak identifikatzea. - Erabiltzailea eta haien ingurunea lan-bilaketa aktiboan gehiago inplikatzea bermatzen duten esku-hartzearen berezko estrategiak deskribatzea. - Esku-hartze proposamenak aztertzea gizataldearen premien eta ezaugarrien arabera. - Laneratzeko eta gizarteratzeko proiektuen garapenean baliabideak kudeatzea.
kontzeptuzkoak	- Gizarteratze- eta laneratze-prozesuak, baita marjinaziozkoak ere. - Laneratze-proiektuak. - Laneratze-ibilbideak. - Gizarteratzeko eta laneratzeko metodologia.
jarrerazkoak	- Erabiltzaileen eta lanpostuen arteko egokitasuna aztertzeko diziplina anitzeko taldearekin batera lan egiteak duen garrantzia balioestea. - Gizataldeek laneratzeko dituzten premien kontzientzia hartzea.

3. TREBETASUN SOZIOLABORALETAN ENTRENATZECO TEKNIKAK APLIKATZEA

prozedurazkoak	- Lan-bilaketa aktibora zuzendutako trebetasunak garatzeko jarduerak gauzatzea. - Erabiltzailearen lanpostuaren berezko zereginak eta funtzioak egituratzea. - Laneko jarduna modu independentean gauzatzen laguntzen duten ekintzak sekuentziatzea. - Eskuragarri dauden komunitateko eta laguntzako programak eta baliabideak identifikatzea, indarreko legedia errespetatuta eta dagokion kasuari ondoen egokitzen zaizkionak aukeratuta. - Lan-jardunaldian zehar segurtasun- eta higiene-arauak betetzea bermatzen duten neurriak identifikatzea.
kontzeptuzkoak	- Autonomia pertsonalerako trebetasunak gizarteratzeko eta laneratzeko. - Gizarteratzeko eta laneratzeko trebetasun sozialak. - Laneko trebetasunak. - Lana modu aktiboan bilatzeko trebetasunak. - Lan esparruan giro positiboa sortzea.
jarrerazkoak	- Erabiltzailea eta haren familia gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuan inplikatzearen garrantzia balioestea. - Norberaren irudi positiboa eraikitzeko autonomia pertsonala eskuratzeak duen garrantzia balioestea. - Segurtasun- eta higiene-arauak errespetatzea.



4. LANERATZEKO JARDUERAK PLANIFIKATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresetan aurkezteko eta pertsona haietara laguntzeko prozesuak erabiltzea. - Erabiltzailearen premiei eta gaitasunei buruzko informazioa hautatzea babes naturalei zuzentzeko. - Babes naturalak erabiltzailea bere lanpostuari egokitzeko prozesuan inplikatzeko estrategiak aukeratzea. - Lan-ingurunea erabiltzailearen premietara egokitzea ahalbidetzen duten teknikak eta baliabideak identifikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Enplegu lagundua. - Enplegu lagunduaren metodologia. - Laneko prestatzailearen eginkizuna. - Lanpostua egokitzea. - Laneratze-prozesuan zehar bertan parte hartu dutenen arteko komunikazioa.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Sormena izatea eskuragarri dauden baliabideak erabiltzeko unean. - Askatasun- eta autonomia-maila handiagoa lortzea - Familiak norberaren sustapenean, eta lan- eta gizarte-sustapenean duen garrantzia balioestea.

5. GIZARTERATZE ETA LANERATZE PROZESUAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA EGITEKO PROZEDURAK DEFINITZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Laneratze eta gizarteratze proiektuaren arrakasta edo porrota zehazten duten adierazleak identifikatzea. - Esku-hartze txostenak eta memoriak egitea. - Laneratzea ebaluatzeko tresnak aplikatzea. - Ebaluazio-prozesua aztertzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Erabiltzailearen eta haren ingurune pertsonalaren jarraipena egitea gizarteratze eta laneratze prozesuan. - Diziplina arteko taldea gizarteratze eta laneratze esku-hartzeen jarraipenean. - Ebaluazioa antolatzea eta erregistratzea.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ordena, eraginkortasuna eta efizientzia esku-hartzearen ebaluazioan. - Jarrera proaktiboa gizarteratze eta laneratze prozesuan. - Gizarteratze- eta laneratze-prozesuetan parte hartzen duten profesionalekin lankidetzan aritzeak eta haiekin informazioa trukatzeko duen garrantzia balioestea. - Ebaluazioan objektibotasuna balioestea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulu hau egituratzeko, hiru fase hauek ezartzea proposatzen dugu:

1. Laneratzeko proiektuak programatzea.
2. Laneratzeko proiektuak ezartzea.
3. Laneratzeko proiektuak ebaluatzea.

Lehenengo faseak, “Laneratzeko proiektuak programatzea”, barnean hartzen ditu komunitatearen enplegu-politikei, laneko baliabideei eta prestakuntza-baliabideei buruzko edukiak, ikasleek laneratzeko dauden baliabide nagusiak ezagut ditzaten, eta esku hartzeko ereduen, programen eta tresnen oinarriak ezartzeko unean, ikasleek oinarri egokia izan dezaten kasu bakoitzerako egokiena den eredia hautatzeko.

Bigarren fasean, “Laneratzeko proiektuak ezartzea”, bi etapa landuko ditugu:

- **Lehenengo etapa:** hainbat gizatalderen premien eta ezaugarrien azterketari buruzko edukiak landuko ditugu, haietan oinarrituta ikasleek diagnosi egokia egin ahal izan dezaten aztertu behar duten eta esku-hartze proiektu bat gauzatu behar duten egoerarako. Horretarako, ikasleak kasuari buruzko informazio egokia lortu beharko du, eta informazio hori aztertu eta interpretatu beharko du.
- **Bigarren etapa:** autonomia pertsonaleko eta gizarte autonomiako trebetasunak lantzerako eta eskuratzeko zuzenduriko esku-hartzeak garatuko ditugu, trebetasun horiek ezinbestekoak baitira laneratzeko eta gizarteratzeko prozesurako.

Hirugarren fasea, “Laneratzeko proiektuak ebaluatzea”, azken fasea izango da eta esku-hartze programa diseinatu ostean landuko dugu, egin dugunaren baliozkotasuna egiaztatzeko. Horretarako, jarraibideak ezarriko ditugu eta egindako esku-hartzeak ebaluatzeko eta kontrolatzeko prozesu osoa gauzatu dugu, egokien jotako tresnak erabilia.

2) Alderdi metodologikoak

Komeni da ondoko orientabide metodologikoak aintzat hartzea:

Komenigarritzat jotzen dugu modulua hasteko ikasleak bertan bilduriko edukietara hurbiltzeko unitate didaktiko bat aukeratzea, laneko orientatzaileak bete beharreko zeregina ezagut dezaten eta hari buruzko ikuspegi globala izan dezaten. Komenigarritzat jotzen da ikasleen motibazioa sustatuko duten eta irakasleari ikasleek irakasgaiaren inguruan duten aurretiazko ezagutza antzematen lagunduko dioten jarduerak gauzatzea.

Modulua osatzen duten edukiak jorratzerakoan irakasleak kontuan hartu beharko du horietan proposatutako sekuentziazioa. Horri esker, ikasleek oinarri teoriko egokia lortu ahal izango dute irakasleak diseinatutako jarduerak arian-arian egiteko.

Ez guke modulu honen prozedurazko edukien garrantziaz ahaztu behar, irakatsi eta ikasteko jardueren eta ebaluazio-jardueren zehaztapena ezarriko baitute. Landutako kontzeptuzko edukiak konplexutasun txikienetik handienara egituratuko dira, azalpen-metodoen bidez. Komeni da dokumentu-euskarriren bat erabiltzea (liburua, PowerPoint aurkezpenak, fotokopiak eta abar) eta diktaketarik ez egitea, denborarik ez galtzeko. Ikasleen parte-hartzea sustatu beharko da (galderen bidez, ideia-jasen bidez, *role-playing* delakoaren bidez, ikusitakoaren balorazio pertsonalen bidez, kontzeptuzko mapen bidez, laburpenen bidez, eskemen bidez eta abar); horrela, ikasleek kontzeptuzko edukien lorpenean parte hartzea sustatuko da eta ikasleen pasibotasuna saihestuko da.



Garrantzitsua da ikasleek taldean lan egiteko eta jarrera malgu eta koherentea izateko premia balioestea eta horretaz jabetzea. Gomendagarritzat jotzen da banako lana eta talde-lana bultzatuko duten jarduerak diseinatzea. Izan ere, banako lanaren bidez, ikasleek euren ikaskuntza pixkanaka eraiki ahal izango dute; eta, talde-lanaren bidez, gizarteratzean profesionalen arteko koordinazioak eta talde-lanak duten garrantziaz ere jabetuko dira.

Jarduerak praktikoak izango dira eta ikaslea gizarte-errealitatera eta rol profesional ezberdinetara hurbilduko ditu. Ondoren ikasleek haien lanbide-jardunean aurkituko dituzten egoerak simulatuko dituzten jarduerak diseinatzea gomendatzen da, betiere ingurunera egokitutako suposizio praktikoak eta abar aurkeztuta.

Bisita programatuak planifikatzea gomendatzen da (laneratze-zentroetara, lantegi-eskoletara) ikasleek beren ikaskuntzaren ikuspegi zabalagoa eta praktikoagoa eskuratu ahal izan dezaten.

Komenigarria da, halaber, amaierako proiektu bat diseinatzea eta bertan islatzea planteaturiko unitate didaktikoetako bakoitzean eskuraturiko ezagutza teknikoen eta trebezien ezarpena.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Laneratze proiektuak programatzea:
 - Hainbat esku-hartze proposamen aztertzea.
 - Prestakuntza-baliabideak lantzea:
 - Prestakuntza-baliabideak hautatzea erabiltzailearen profilararen arabera.
 - Lan-merkatuari buruzko estatistikak aztertzea.
 - Prestakuntza- eta enplegu-politikak eta -baliabideak identifikatzea.
 - Informazioa biltzeko tresnak sortzea eta diseinatzea ibilbideak diseinatzeko:
 - Behaketa-fitxak.
 - Hasierako elkarrizketa.
 - Premiak eta itxaropenak aztertzea: enplegarritasun-faktoreak.
 - Ekintza-plan pertsonalizatua sortzea:
 - Helburuak ezartzea.
 - Ekintzak eta baliabideak identifikatzea.
 - Proiektua justifikatzea.
 - Esku-hartze estrategiak zehaztea.
 - Haietatik eratorriko diren jarduerak eta zereginak espezifikatzea.
 - Jarduerak sekuentziatzea horretarako egutegiak, kronogramak eta abar eginda.
 - Laneratze proiektu bat planifikatzea.
- ✓ Laneratze proiektuak ezartzea:
 - Laneratze zailtasunak dituzten hainbat gizatalderen ezaugarriak eta premiak aztertzea:
 - Esku-hartze proposamenak diseinatzea.
 - Enplegarritasun-faktoreak identifikatzea.
 - Beren premietara egokituriko baliabideak aukeratzea.
 - Helburuak ezartzea.
 - Prestakuntzako ekintzak eta laneko praktikak.
 - Lana modu aktiboan bilatzeko ekintzak.
 - Enplegua bilatzeko teknikei buruzko moduluak diseinatzea hainbat gizatalderentzat.

- Erabiltzailearen autonomia personalerako eta gizarte-autonomiarako trebetasunak entrenatzea eta lantzea, ezinbestekoak baitira gizarteratze- eta laneratze-prozesuetarako.
 - Komunikazioa.
 - Gaitasun pertsonalak, profesionalak eta enplegua bilatzeko teknikekin loturiko gaitasunak identifikatzea.
 - Enplegua bilatzeko tresnak eta teknikak diseinatzea.
 - Autoestimua pertsonala eta profesionala.
 - Motibazioa.
 - Laneko heldutasuna.
 - Entzute aktiboa.
 - Asertibitatea.
 - Antzietatea murriztea.
 - Segurtasunari eta higienari buruzko arauak identifikatzea.
- ✓ Laneratze-proiektuak ebaluatzea:
 - Ebaluazio-tresnak egitea.
 - Ebaluazio-txostenak egitea.
 - Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabili dituzten ebaluazio-txostenak eta memoriak lantzeko eta aurkezteko.



3. lanbide-modulua

BIZIKIDETZA UNITATEENTZAKO ARRETA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Bizikidetza-unitateentzako arreta
Kodea:	0339
Heziketa-zikloa:	Gizarteratzea
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	165 ordu
Kurtsoa:	1
Kreditu kop.:	10
Irakasleen espezialitatea:	Gizartearentzako zerbitzuak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoa)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal hauei lotuta dago: UC1450_3: Ezintasuna duten pertsonak aisiako eta denbora libreko espazioetan sartzeko prozesuak antolatzea, garatzea eta ebaluatzea. UC1452_3: Ezintasuna duten pertsonen familiekin lan egitea, haiek orientatzea eta laguntzea, goi-mailako profesionalekin batera.
Helburu orokorrak:	8

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Bizikidetza-unitatean esku hartzeko ekintza planifikatzen du, esku-hartze ereduak gizartean esku hartzeko metodologiaren alderdi orokorrekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- Bizikidetza-unitateetan esku hartzeko dauden ereduak identifikatu ditu.
- Bizikidetza-unitateetan esku hartzeko Estatuko eta erkidegoko baliabideak aztertu ditu.
- Etxeko laguntzako zerbitzuaren, familiako programaren, telelaguntzaren eta gizatalde berezientzako egoitza-baliabideen esku-hartze ezaugarriak identifikatu ditu.
- Bizikidetza-unitate batean eginiko esku-hartzean lortu beharreko helburuak zehaztu ditu.
- Bizikidetza-unitateetan esku hartzeko estrategia eta teknika nagusiak deskribatu ditu.
- Bizikidetza-unitatean esku hartzeko proiektuaren barneko jarduerak zehaztu ditu.
- Bizikidetza-unitateetan zuzenean esku hartzeko jarraibideak zehaztu ditu.
- Esku-hartzea planifikatzeko talde-lanak duen garrantzia baloratu du.

2. Bizikidetza-unitateetako esku-hartzea antolatzen du, haiek etxearekin, arlo pertsonalarekin eta harremanekin lotuta dituzten premiak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Bizikidetza-unitateen autonomiarako beharrezko gaitasunak eskuratzeko garaian parte hartzen duten faktoreak deskribatu ditu.
- b) Bizikidetza-unitate bakoitzaren autonomia-mailak identifikatu ditu.
- c) Bizikidetza-unitateek etxean, arlo pertsonalean eta harremanetan dituzten premiak identifikatu ditu.
- d) Bizikidetza-unitatearen prestakuntza, informazio, gainbegiratze eta laguntza premiak zehaztu ditu.
- e) Gizarte esku-hartzearen helburuak eta estrategiak bizikidetza-unitateak dituen premiekin lotu ditu.
- f) Bizikidetza-unitateetan esku-hartzea abian jartzeko beharrezko espazioa, baliabideak eta denborak antolatu ditu, betiere ingurune seguruak sortzea aintzat hartuta.
- g) Bizikidetza-unitateek eguneroko bizitzan dituzten gabeziak eta nahasteak gizarteratzeko goi-mailako teknikariaren esku-hartzearekin lotu ditu.
- h) Bizikidetza-unitateko kide bakoitzaren erabakiak errespetatzeak duen garrantzia arrazoitu du.

3. Bizikidetza-unitateetan esku hartzeko proiektuaren jarduerak diseinatzen ditu, esku-hartze estrategiak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jarduteko protokoloak identifikatu ditu, bizikidetza-unitatearen ezaugarriak aintzat hartuta.
- b) Etxearen mantentze-lanak antolatzeko jarduerak planifikatu ditu, esku-hartze proiektua aintzat hartuta.
- c) Bizikidetza-unitatearentzat gizarte-babeseko eta babes emozionaleko estrategiak eta teknikak zehaztu ditu.
- d) Bizikidetza-unitatearen etxeko kudeaketa babestea aurreikusi du.
- e) Bizikidetza-unitatean beharrezko diren komunikazio-laguntzak eta laguntza teknikoak deskribatu ditu.
- f) Erabiltzaileek aisiako eta denbora libreko espazioetan eta jardueretan parte hartzeko ibilbideak diseinatu ditu.
- g) Hezkuntza afektibo-sexualeko prozesuak eta jarduerak ezarri ditu.
- h) Bizikidetza-unitateari bere gain hartu beharreko erantzukizunei eta ekintzei buruz eskaini beharreko aholkua definitu du.
- i) Bizikidetza-unitateen esku hartzean kontingentzien konponbidea simulatu du.
- j) Bizikidetza-unitateko pertsonen emandako tratua ezarritako arreta-irizpideei eta -arauei egokitzearen garrantzia baloratu du.

4. Etxeko indarkeria prebenitzeko arloan esku hartzeko estrategiak antolatzen ditu, faktore pertsonalak eta sozialak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Arrisku-faktoreak identifikatu ditu hainbat gizataldetan.
- b) Gizartean parte hartzeko prebentzioaren mailak identifikatu ditu.
- c) Etxeko indarkeriako egoerak gertatzea edo larriagotzea saihesteko prebentzioko hainbat ekintza deskribatu ditu.
- d) Indarkeriako ekintzen prebentzioa sustatuko duten estrategiak diseinatu ditu.
- e) Informazioa eta prestakuntza eskainiko duten tresnak eta materialak hautatu ditu.



- f) Etxeko indarkeriako eta haren inguruko egoeretarako sentsibilizazio-ekintzak zehaztu ditu.
- g) Etxeko indarkeriaren arazoari buruzko sentsibilizazio-jarduerak egin ditu biztanleria-sektore guztientzat.
- h) Prebentzioko jarduerak egiterakoan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea baloratu du.

5. Etxeko indarkeriako egoeretan esku hartzeko estrategiak gauzaten ditu, egoeraren ezaugarriak ezarritako protokoloarekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Balizko etxeko indarkeria egoeren ezaugarriak zehaztu ditu.
- b) Etxeko indarkeria egoeretan arrisku-faktoreak deskribatu ditu.
- c) Indarkeria-egoeren antzematearekin eta arretarekin loturik dauden zerbitzuak ematea aztertu du.
- d) Ebaluazio-adierazleak hautatu ditu.
- e) Etxeko indarkeria egoeretan jarduteko dauden protokoloak identifikatu ditu.
- f) Etxeko indarkeria egoeretan laguntza pertsonala, gizarte laguntza eta laguntza emozionala simulatu ditu.
- g) Arreta psikosozialeko teknikak aplikatu ditu etxeko indarkeria-egoera bat jasan duten pertsonen kasurako.
- h) Etxeko indarkeria jasan duten pertsonen emandako tratuaren kasuan jarduteko protokoloan ezarritako irizpideen eta arauen betetzea baloratu du.

6. Bizikidetzaren unitate batean eginiko esku-hartzea kontrolatzeko eta haren jarraipena egiteko jarduerak gauzaten ditu, hautatutako estrategiak, teknikak eta ebaluazio-tresnak justifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Bizikidetzaren unitateetan eginiko esku-hartzeak kontrolatzeko eta jarraitzeko prozesuaren adierazleak identifikatu ditu.
- b) Bizikidetzaren unitateetan eginiko esku-hartzearen jarraipena gauzatzeko teknikak, tresnak eta protokoloak hautatu ditu.
- c) Bizikidetzaren unitateetan eginiko esku-hartzea kanpotik zein barrutik baloratuko duten ebaluazio-tresnak sortu ditu.
- d) Bizikidetzaren unitateetan premiak zenbateraino ase diren baloratzeko ebaluazio-teknikak eta -prozedurak erabili ditu.
- e) Datuak diziplina arteko taldeak ezarritako euskarrietan erregistratu ditu.
- f) Informazioa helarazi die zuzenean naiz zeharka esku-hartzearen parte hartu duten pertsonen.
- g) Gizarteratzeko goi-mailako teknikariak bere esku-hartzei buruz gogoeta egiteko premia baloratu du.
- h) Bizikidetzaren unitateetan eginiko esku-hartzea aldatzeko edo egokitzeko erabakiak hartzea justifikatu du.

c) Oinarrizko edukiak:

1. BIZIKIDETZA UNITATEAN EGIN BEHARREKO ESKU HARTZEA PLANIFIKATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Bizikidetza-unitateen azterketa. - Zerbitzuak, programak eta baliabideak aztertzea bizikidetza-unitateen eta familien arretan. - Bizikidetza-unitateetan egin beharreko esku-hartzeak diseinatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Bizikidetza-unitateak: definizioa eta motak. - Familia. - Esku-hartze ereduak bizikidetza-unitateetan. - Zerbitzuak eta baliabideak. - Bizikidetza-unitateetan esku hartzeko estrategia eta teknika espezifikoak. - Bizikidetza-unitateetan zuzenean esku hartzeko gizarteratzeko teknikariaren jarraibideak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Baliabide eta zerbitzu guztiak ezagutzeko beharra balioestea. - Bizikidetza-unitateetako esku-hartzea planifikatzeak duen garrantzia balioestea. - Sormena izatea proposamenak gauzatzekoan. - Diziplina arteko talde batean lan egiteak bizikidetza-unitateetan egi beharreko esku-hartzearen oinarri gisa duen garrantziaz jabetzea.

2. BIZIKIDETZA UNITATEAN EGIN BEHARREKO ESKU HARTZEA ANTOLATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Etxeko arloan, arlo pertsonalean eta harremanen arloan ditugun premiak aztertzea. - Prestakuntza, informazio, gainbegiratze eta laguntza premiak zehaztea. - Jarduteko helburuak eta estrategiak ezartzea. - Bizikidetza-unitatean espazioa antolatzea. - Baliabideak eta denbora antolatzea. - Bizikidetza-unitateetan egin beharreko esku-hartzearen plangintza aplikatzea. - Etxeko ekonomia administratzea eta kudeatzea. - Bizikidetza-unitateek eguneroko bizitzan dituzten gabeziak eta nahasteak gizarteratzeko teknikariaren esku-hartzearekin lotzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Autonomia-mailak bizikidetza-unitateetan. - Elikadura eta nutrizioa. - Etxeko higiena. - Laguntza pertsonala eta oinarrizko zaintzak. - Autonomia-mailak bizikidetza-unitateetan. - Bizikidetza-harremanak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Bizikidetza-unitateen autonomiarako beharrezko gaitasunak eskuratzeko garaian parte hartzen duten faktoreak balioestea. - Bizikidetza-unitateko kideetako bakoitzaren erabakiak errespetatzea. - Mugak eta arauak ezartzeak duen garrantzia balioestea. - Antolatzeak eta talde-lanak duten garrantziaz jabetzea. - Bizikidetza-unitatea osatzen duten pertsonen informazioa jasotzeko duten eskubidea errespetatzea.

3. BIZIKIDETZA UNITATEETAN ESKU HARTZEKO PROIEKTUAREN JARDUERAK DISEINATZEA



prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Protokoloak eta esku-hartzea aztertzea. - Babes-zerbitzuak gainbegiratzea. - Bizikidetzaharremanak aztertzea. - Bizikidetzak-unitatearentzako aholkularitza gauzatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-babesa eta babes emozionala. Oinarrizko zaintzak. Denbora libre betetzea. Laguntza. - Aisiako eta denbora libreko espazioetan eta jardueretan parte hartzeko ibilbideak. - Hezkuntza afektibo-sexuala.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Etxeko indarkeria jasan duten pertsonen tratua egokia eman zaien balioestea. - Etxeko indarkeria jasan duten pertsonen emandako tratua kasuan jarduteko protokoloan ezarritako irizpideen eta arauen betetzea balioestea.

4. ESKU HARTZEKO ESTRATEGIAK ANTOLATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte esku-hartzearen prebentzio-mailak aztertzea. - Prebentzio-ekintzak aztertzea. - Informazioa eta prestakuntza eskainiko duten tresnak eta materialak hautatzea. - Etxeko indarkeriaren arazoari buruzko sentsibilizazio-jarduerak egitea biztanleria-sektore guztientzat. - Prebentzioa sustatzeko estrategiak sortzea. - Etxeko indarkeria prebenitzeko sentsibilizazio-jardura espezifikoak sustatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Indarkeria. - Arrisku-faktoreak etxeko indarkeriako egoeretan.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Prebentzioko jarduerak egiterakoan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea balioestea. - Etxeko indarkeria egoerarako eta haien ingururako sentsibilizazioa. - Etxeko indarkeriaren arazoari buruz kontzientzia hartzea. - Autonomia personalerako gizarte-trebetasunak sustatzea indarkeriako eta tratua txarreko ekintzak eta egoerak saihesteko.

5. ETXeko INDARKERIAN ESKU HARTZEKO ESTRATEGIAK GARATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Indarkeria-egoeren antzematearekin eta arretarekin loturik dauden zerbitzuen ematea identifikatzea. - Etxeko indarkeriari buruzko adierazleak hautatzea. - Etxeko indarkeria egoeretan jarduteko protokoloa aztertzea. - Etxeko indarkeria egoeretan dauden arrisku-adierazleak deskribatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Etxeko indarkeriako egoerak. - Etxeko indarkeriako egoerak artatzeko baliabideak. - Arau esparrua eta prozedurazkoa etxeko indarkeria kasuetan. - Gizarte laguntza, laguntza pertsonala eta emozionala.

jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Etxeko indarkeria jasan duten pertsoneri tratu egokia eman zaien balioestea. - Etxeko indarkeria jasan duten pertsoneri emandako tratua kasuan jarduteko protokoloan ezarritako irizpideen eta arauen betetzea balioestea.
---------------------	---

6. BIZIKIDETZA UNITATEAN GAUZATUTAKO ESKU HARTZEA JARRAITZEKO ETA KONTROLATZEKO JARDUERAK EGITEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lortutako datuak interpretatzea. - Txostenak eta memoriak egitea. - Datuak euskarri egokietan erregistratzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ebaluazio-adierazleak eta -protokoloak ezartzea. - Ebaluazio-teknikak eta -tresnak. - Ebaluatze irizpideak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Esku-hartze estrategiak aldatzeko edo egokitzeko erabakiak hartzeak duen garrantzia balioestea. - Ebaluazioak esku-hartzea hobetzeko baliabide gisa duen garrantzia balioestea. - Gizarteratzeko teknikariak bere esku-hartzei buruz gogoeta egiteko premia balioestea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulu honetan bizikidetza-unitateen munduan murgilduko gara. Lehenik, bizikidetza-unitate nagusia aztertuko dugu, pertsonen borondateak sorturiko hura: familia, alegia. Jarraian, gauza bera egingo dugu gizartearen mende dauden unitateekin: egoitzak, babespeko etxebizitzak, eta abar.

Aurrez aipaturiko bizikidetza-unitateetako bakoitzean honako zeregin hauek beteko ditugu:

- Bizikidetza-unitate bakoitzarekin loturiko oinarrizko terminoak aztertzea.
- Gizarteratzeko teknikariak bizikidetza-unitateetako bakoitzean betetzen duen zeregina identifikatzea.
- Esku-hartzea planifikatzea, espazioen, denboren, baliabideen eta babesen antolakuntza azpimarratuta.
- Arlo bakoitzean jarduerak gauzatzea.
- Ebaluazioa eta jarraipena egitea.

2) Alderdi metodologikoak



Modulu honetan, praktika eta teoria elkarrekin egongo dira etengabe. Gai guztien tratamenduan, ikasleen interesa eta ekimena sustatuko duten jarduerak barne hartuko dira.

Hasiera batean, egokia dirudi irakasleak moduluaren edukiak aurkeztu eta garatzea aurkezpen erakargarri baten bidez (PowerPoint, kasuak...), hurbileneko ingurunea erreferente gisa hartuta betiere, ikasleak motibaturik has daitezten.

Bigarren fasean, garrantzi handiagoa emango zaio ikaslearen partaidetza eraginkorrari. Horretarako, lehen esan bezala, kontzeptuak zehazteko eta lanbidearekin lotutako abileziak eta trebeziak garatzeko bidea emango duten jarduerak egingo dira, banaka nahiz taldean: azalpenak, prentsa-albisteak erabiltzea, teknologia berrien bidez informazioa bilatzea... Era berean, arreta berezia eskainiko zaie ingurune bakoitzarentzat jarduerak egiteari eta haien ezarpenean aintzat hartu beharreko alderdi garrantzitsuenei.

Oroimenean gehiegi oinarritutako ikuspegia saihestuko da betiere, eta ikaskuntza esanguratsua bilatuko da. Prozedurazko eta jarrerazko edukien garrantzia azpimarratu behar da.

Azkenik, ikasleek ikasitakoa ondo berenganatu dezaten, eskolak osatzeko baliabideekin eta zerbitzuekin loturiko irteerak eta hitzaldiak antolatuko dira: eguneko zentroak, egoitzak, abegi-etxeak, etxeko laguntzako zerbitzuak, eta abar.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Bizikidetza-unitateetan egin beharreko jarduna planifikatzea:
 - Esku-hartzeak definitzea eta haien sekuentziaztea egitea.
 - Esku-hartzea eta ebaluazioa planifikatzea.
 - Baliabideen antolamendua planifikatzea.
 - Memoria, txostenak, protokoloak, eta abar zehaztea eta/edo gauzatzea.
- ✓ Bizikidetza-unitateak antolatzea:
 - Beharrak hautematea.
 - Esku-hartzea programatzea.
 - Esku-hartzea kudeatzea.
 - Esku-hartzea gainbegiratzea.
- ✓ Plangintza ezartzea:
 - Beharrak hautematea.
 - Estrategiak betetzea.
 - Larrialdi-jarduna koordinatzea.
 - Txostenak egitea.
- ✓ Ebaluazioa eta jarraipena:
 - Beharrak hautematea.
 - Estrategiak betetzea.
 - Larrialdi-jarduna koordinatzea.
 - Txostenak egitea.

4. lanbide-modulua

BITARTEKARITZA KOMUNITARIOA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Bitartekaritza komunitarioa
Kodea:	0340
Heziketa-zikloa:	Gizarteratzea
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	120 ordu
Kurtoa:	2
Kreditu kop.:	9
Irakasleen espezialitatea:	Gizartearentzako zerbitzuak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoak)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal hauei lotuta dago: UC1038_3: Esku-hartzearen gizarte-testuinguruaren ezaugarriak eta premiak identifikatzea eta zehaztea. UC1039_3: Pertsona, eragile eta gizatalde ezberdinen arteko gatazkak prebenitzea. UC1040_3: Gatazkak kudeatzeko prozesua antolatzea eta ezartzea. UC1041_3: Gatazkak kudeatzeko bide gisa bitartekaritza balioestea eta haren jarraipena eta hedapena gauzatzea.
Helburu orokorrak:	11 / 13

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Bitartekaritzako esku-hartzeak planifikatzen ditu eta haiek garatzen diren testuinguruarekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Esku-hartzearen helburuak hautatu ditu, hura gauzatzen den testuinguruaren ezaugarrietatik abiatuta.
- Plangintzak esku-hartze prozesuan duen garrantzia baloratu du.
- Komunikazioa bultzatzen duten jarduerak eta tailerrak diseinatu ditu.
- Topaketa-jarduerak diseinatu ditu, balizko erabiltzaileetan antzemandako premiei jarraiki.
- Bitartekari naturalak komunikazio-trukea ahalbidetzeko eragile gisa identifikatu ditu.
- Harreman gatazkatsuak izan ditzaketen norbanakoen, taldeen eta entitateen topaketarako guneak sortu edo suspertu ditu.



- g) Jardueren plangintzak esku-hartzean aurreikusitako helburuekiko duen koherentzia baloratu du.
- h) Genero-indarkeriako egoerak antzeman ditu, interesdunak arlo horretako baliabide espezifikoetara bideratuta.

2. Gatazkak prebenitzeko ekintzak antolatzen ditu eta esku hartzeko estrategiak aukeratzen.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Esku-hartze eredu ezberdinek oinarrian dituzten printzipioak interpretatu ditu.
- b) Gatazkak kudeatzeko dauden esku-hartze estrategia nagusiak identifikatu ditu.
- c) Bitartekaritza-prozesuan erabiliko diren ereduak eta teknikak aukeratu ditu, egoerari buruzko aurretiazko ezagutzan oinarrituta.
- d) Gatazkari buruzko informazioa tratatzerakoan konfidentziasunezko eta errespetuzko irizpideak jarraitu ditu.
- e) Alderdiekin eginiko hasierako topaketa planifikatu du, elkarrizketa eta konfiantza bultzatuta.
- f) Espazioak aukeratu ditu, parte-hartzaileen ezaugarrien arabera.
- g) Borondatezko bitartekaritza-zerbitzua eskaini du, gatazkak kudeatzeko aukera gisa.
- h) Esku-hartzearen antolamenduan parte hartu duten guztien iritzien kontrastea eta esperientzien trukea baloratu ditu.

3. Bitartekaritza-prozesuak bultzatzen dituzten jarduerak gauzatzen ditu eta haien garapena deskribatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Espazioak moldatu edo aldatu ditu, esku-hartzearen beharretara egokitzeko.
- b) Topaketa-lekuaren kokapena jakinarazi zaie balizko erabiltzaile guztiei.
- c) Komunikazio-teknikak erabili ditu eta elkarrizketa erraztu du, baita tartean diren alderdien arteko harremana ere.
- d) Bitartekaritza-prozesuan lasaitasun giroa izateko teknikak erabili ditu.
- e) Bitartekaritza-prozesuaren faseak jakinarazi dizkie bertan parte hartuko duten alderdiei, jakinaren gainean izan daitezten eta onar ditzaten.
- f) Gatazkaren alderdiak komunitateko beste zerbitzu batzuetara bideratu ditu, hala behar izan den kasuetan.
- g) Akordioak idatziz jaso ditu eta alderdiei helarazi dizkie, onetsi ditzaten.
- h) Esku-hartzean zehar sortutako egoeren aurrean ekimena agertu du.

4. Ebaluazio-jarduerak gauzatzen ditu, esku-hartzearen emaitzak aurreikusitako helburuekin erkatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ebaluazioa gauzatzeko irizpideak eta adierazleak ezarri ditu.
- b) Egindako esku-hartzearen emaitzak egiaztatzeko estrategiak zehaztu ditu.
- c) Egindako esku-hartzea ebaluatzeko teknikak eta tresnak hautatu ditu.
- d) Sistematikoki egiaztatu du esku-hartzea behar bezala gauzatzen ari direla.
- e) Erabilitako espazioen eta baliabideen funtzionaltasuna eta egokitapena egiaztatu du.
- f) Esku-hartzea parte hartu duten pertsonak haren emaitzen egiaztapenean inplikatu ditu.
- g) Aurreikusitako helburuen betetze-maila egiaztatu du.
- h) Zerbitzuaren eraginkortasuna eta kalitatea etengabe hobetzeko jarrera izatearen garrantzia baloratu du.

c) Oinarrizko edukiak:

1. BITARTEKARITZAKO ESKU HARTZEAK PLANIFIKATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Bitartekaritzaren arloko helburu, eredu, printzipio eta esperientzia desberdinak interpretatzea. - Bitartekaritza planifikatzea hura martxan jarri aurretik, ezarritako helburuak aintzat hartuta betiere. - EAE barruan gizarte-bitartekaritza testuinguruan kokatzea. - Bitartekari naturalak identifikatzea. - Gatazka sor dezaketen espazioak identifikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Bitartekaritzaren jatorria eta bilakaera: <ul style="list-style-type: none"> • Historia. • Gaur egungo egoera. • Bitartekaritzaren errealitatea EAEn. - Bitartekaritzaren printzipioak: <ul style="list-style-type: none"> • Irabazi-irabazi vs galdu-galdu. • Konfidentzialtasuna. • Neutraltasuna. • Sormena. - Gizarte-bitartekaritzako eredu desberdinak aztertzea: <ul style="list-style-type: none"> • Harvarden eredu. • Bushen eta Folger-en transformazio eredu. • Narrazio eredu zirkularra. - Bitartekaritzarekin loturiko legedia. - Bitartekaritza-esperientziak EAEn. - Gizarte-bitartekaritza: <ul style="list-style-type: none"> • Printzipio etikoak: tolerantzia, kulturantzatasuna. • Bitartekari naturalak. • Gatazka eta komunitatea.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ordena, eraginkortasuna eta efizientzia bitartekaritzen plangintzan. - Sormena kasu praktikoak konpontzeko garaian. - Neutraltasuna eta konfidentzialtasuna kasu praktikoak konpontzeko garaian.

2. GATAZKAK PREBENITZEKO JARDUNAK ANTOLATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Komunitateko hainbat baliabide bilatzea, identifikatzea eta erabiltzea erabiltzailearen premien eta prozesuaren helburuen arabera. - Immigrazioari buruzko EAeko legedia identifikatzea eta erabiltzea. - Herrien migrazio fenomenoarekin loturiko giza alderdiak, alderdi politikoak eta sozialak aztertzea. - Gatazkak prebenitzeko tailer bat diseinatzea eta motibatzea. - Tartean diren pertsonen premiak antzematea eta jarduerak haien arabera diseinatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizatalde nagusien kultura-balioak: <ul style="list-style-type: none"> • Migrazioaren dimentsio aniztasuna: giza alderdiak, politikoak eta kulturalak. - Migrazio-fenomenoa: <ul style="list-style-type: none"> • Iparra-hegoa, hegoa-iparra migrazioen fenomeno globala. • Migrazio-fluxuak azaltzen dituzten teoriak. Historian zeharreko egiturazko prozesua.



	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-bitartekaritzako baliabideak: <ul style="list-style-type: none"> • Asoziazionismoa. - Alderdi juridikoak eta/edo gizartekoak: <ul style="list-style-type: none"> • Atzerritarrek EAEn dituzten eskubideak eta askatasunak. • Atzerritarren gizarte-babesa EAEn. - Topaketarako guneak ezartzea: <ul style="list-style-type: none"> • Gatazkak prebenitzeko tailerrak. • Taldeko bilerak. • Bitartekaritza gune irekietan. • Borondatezko bitartekaritza. - Bitartekariak. <ul style="list-style-type: none"> • Bitartekariaren profila. • Baterako bitartekaritza.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Errespetua eta jarrera solidarioa baterako bitartekaritzak egiterakoan. - Sormena izatea eskuragarri dauden baliabideak erabiltzeko unean. - Konfidentzialtasuna gatazkaren tratamenduan. - Jarrera proaktiboa gatazkak prebenitzeko orduan eta komunikazio-prozesuan. - Bitartekaritza prozesuko parte-hartzaileen iritzia errespetatzea.

3. GIZARTE BITARTEKARITZAKO PROZESUETAKO JARDUERAK GAUZATzea

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gatazkaren teoria interpretatzea eta haren printzipioak aplikatzea bitartekaritza prozesuan. - Gatazkaren eztaoren hasiera identifikatzea. - Bitartekaritza-gunea eta -teknika aukeratzea erabiltzaileen premien arabera. - Akordioak idazterakoan parte-hartzaileak tartean sartzea. - Gizarte-bitartekaritzan erabilitako teknikak aplikatzea. - Bitartekaritza martxan jarri aurretik hura planifikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gatazka: <ul style="list-style-type: none"> • Gatazkaren teoria. • Kultura arteko gatazka. - Gatazkak kudeatzeko teknikak: <ul style="list-style-type: none"> • Mezu asertiboa. • Entzute aktiboa. • Emozioa maneiatzea. • Birformulatzea. • Historia alternatiboa. - Bitartekaritza-prozesuaren etapak: <ul style="list-style-type: none"> • Bitartekaritza prestatzea. • Hasierako bilera. • Baterako bileren dinamika. • Bilera pribatuen dinamika. • Itxiera: adostasuna ala desadostasuna. • Jarraipena.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Alderdien emozioak eta norberarenak errespetatzea. - Errespetua eta jarrera solidarioa baterako bitartekaritzak egiterakoan. - Ordena, eraginkortasuna eta efizientzia akordioak idazterakoan. - Lasaitasuna eta konfidentzialtasuna gatazka maneiatzeko orduan.

4. BITARTEKARITZA EBALUATZEKO JARDUERAK EGITEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Bitartekaritza ebaluatzeko estrategia, teknika eta tresna egokienak aukeratzea. - Bitartekaritza bakoitza ondoen ebaluatuko duen adierazleak eta informazioa biltzeko sistema aukeratzea. - Betetako helburuen maila egiaztatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ebaluazio-teknikak eta -tresnak: <ul style="list-style-type: none"> • Elkarrizketak. • Inkestak. • Banakako bilerak. • Taldeko saioak. • Memoriak. - Ebaluazio motak: <ul style="list-style-type: none"> • Etengabeko ebaluazioa. • Bitartekariaren ebaluazioa. • Parte-hartzaileek eginiko ebaluazioa. • Akordioaren ebaluazioa. • Prozesua ebaluatzea. - Prozesua ebaluatzeko irizpideak eta adierazleak: <ul style="list-style-type: none"> • Akordioa lortu den ala ez. • Akordioak betetzea. • Bitartekaritza-prozesuan parte hartu duten pertsonen poztasuna. • Jarrera aldageta abiapuntuko egoerarekiko. • Bitartekariaren poztasuna. • Bitartekaritza-taldeak eginiko jardunak. • Tartean diren pertsona guztien inplikazio-maila. • Eginiko jardunen kalitatea. • Espazioak bitartekarien premietara egokitzea. - Bitartekaritza-prozesuaren datu-bilketarako prozesuak: <ul style="list-style-type: none"> • Galdetegiak. • Txantiloiak. • Bideoak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ordena, eraginkortasuna eta efizientzia bitartekaritzen ebaluazioan. - Jarrera proaktiboa ebaluazio-prozesuan. - Bitartekaritza-zerbitzuaren eta haren ebaluazioaren eraginkortasuna eta kalitatea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulu honi heltzeko garaian, edukiak lau blokeen sekuentziazioari jarraitzea erabaki dugu, aurkezten diren ordenan.

Plangintzari buruzko lehen blokearekin hasiko gara, bitartekaritzari buruzko ikuspegi orokorra ematen: jatorria, bilakaera, printzipioak, ereduak eta legedia. Horrekin oinarri bat sortuko dugu ikasleek prozesu osoaren ikuspegi orokorra izan dezaten. Horretaz gain, bitartekaritza-prozesua behar bezala eta ahal den ondoen egiteko ezinbestekoak diren jarrerazko edukiak landuko ditugu hasieratik; ordena, eraginkortasuna, efizientzia, sormena, neutraltasuna eta konfidentzialtasuna landuko ditugu, eta garrantzi handia



emango diogu prozedurak behar bezala betetzeari, modulu oso praktikoa baita hau; hartara, hasieratik interpretatu, identifikatu eta testuinguruan kokatu ahalko ditugu bitartekaritza-praktikaren kontzeptuzko edukiak.

Lehenengo bloke orokorrago honetatik, bitartekaritza-praktikaren hiru gai nagusi eta zehatzago lantzeraz igaroko gara; alegia, gatazken prebentzioa gizarte-bitartekaritzan (migrazio-fenomenoa, eskuragarri dauden baliabideak eta topaketarako guneak landuta), esku-hartzea gizarte-bitartekaritzan (erabili beharreko teknikak, prozesuaren etapak eta bitartekariak eskuragarri dituen bestelako esku-hartzeak landuta) eta bitartekaritza-prozesuaren ebaluazioa (erabili beharreko teknikak eta tresnak, eskuragarri dauden ebaluazio motak, ebaluazio-irizpideak eta -adierazleak eta bitartekaritza-prozesuaren informazioa biltzeko sistemak aintzat hartuta). Berriz ere, aintzat hartuko ditugu bitartekaritza-prozesuan beharrezko diren jarrerak, erabiltzaileekiko errespetua, baterako bitartekaritzan izan beharreko solidaritatea, lasaitasuna, kalitatea eta prozesu osoan zeharreko jarrera proaktiboa azpimarratuta, baita kontzeptuzko edukiak bitartekaritza-errealitateari aplikatzeko prozedurak zer nola gauzatu behar diren ere aztertuta. Hori gauzatzeko hiru eduki moten lorpena ahalbidetuko duten jarduera praktikoa egingo ditugu prozesu osoan zehar.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu hau praktikoa da batik bat, eta beraz, irakaslearen zeregina *role-playing* egokiak aukeratzea izango da (horien bitartez gizarte-bitartekaritzako hainbat esperientzia simulatuko dituzte), baita taldeko lan egokiak hautatzea ere; horiek guztiak sekuentziaz egongo dira hasieratik, errazenetik zailenerako ordenan antolatuta, ikasleengan konfiantza eta estimulua pizteko. Irakasleak, gainera, adibide izan beharko du eta lehenengo *role-playing*etan parte hartu beharko du, bitartekari gisa, ikasleei bitartekaritza-praktika nola gauzatu irakasteko, eta alderdi gisa, erabiltzaileen benetako errealitatea erakusteko.

Azkenik, ikasle bakoitzaren ikasketa-prozesuaren hurbileko jarraipen individualizatua egiteaz arduratuko da, sistematikoki jasoko ditu kontrol-zerrenda batean bai aurrerapenak bai zailtasunak, eginiko lorpenak ebaluatuko ditu, ez bakarrik kontzeptuzko eta prozedurazko edukien aplikazioan, baizik eta baita jarrera egokiaren eta eskatutako jarreraren erabileran ere.

Bestalde, ikasleak hasieratik parte hartuko du *role-playing*etan, batetik, bitartekari gisa, bitartekaritza-praktikan behar diren trebetasun guztiak garatzen joateko, eta, bestetik, alderdi gisa, gure erkidegoan diren errealitate ezberdinekin enpatizatu ahal izateko.

Horretaz gain, taldeko hainbat lan egin beharko ditu, errespetuzko, konfidentzialtasuneko eta solidaritateko jarrera-edukiak garatu ahal izateko, ezinbestekoak baitira bitartekaritza-praktikan.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Bitartekaritzaren plangintza:
 - Bitartekaritzaren jatorriari eta bilakaerari buruzko taldeko lana.
 - *Role-playing*ak Harvarden metodoa erabilita.
 - *Role-playing*ak Bushen eta Folgerren transformazio-metodoa erabilita.
 - *Role-playing*ak narrazio-eredu zirkularra erabilita.
- ✓ Prebentzioa antolatzea:
 - Taldeko lana EAEko migrazio-fenomenoari buruz.
 - Ikasleen lurralde historikoko gizarte-bitartekaritzako baliabideen mapa.

- Immigrazioari buruzko EAEko legediari buruzko taldeko lana.
 - Gizarte-prebentzioko tailer bat diseinatzea.
 - *Role-playingak* baterako bitartekaritza.
- ✓ Esku-hartzea gizarte-bitartekaritzako prozesuetan:
- Hainbat gizarte-gatazkaren kasu-azterketa.
 - Gatazka horietako bakoitzaren *role-playingak*, gatazkak kudeatzeko teknika guztiak landuta.
 - *Role-playingak* banakako elkarrizketetan.
 - *Role-playingak* taldeko bileretan.
 - Bitartekaritza oso bat planifikatzea.
- ✓ Bitartekaritzaren ebaluazioa:
- Hainbat ebaluazio-teknikari eta -tresnari buruzko taldeko lana.
 - Bitartekaritzako *role-playinga* eta haren ebaluazioa.
 - Bitartekaritza-tailer baten memoria.



5. lanbide-modulua

HEZKUNTZAKO ESKU-HARTZEAREN BABESA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Hezkuntzako esku-hartzearen babesa
Kodea:	0341
Heziketa-zikloa:	Gizarteratzea
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	120 ordu
Kurtsoa:	2
Kreditu kop.:	6
Irakasleen espezialitatea:	Gizarte parte-hartzea (Bigarren Hezkuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal hauei lotuta dago: UC1427_3: Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen hezkuntza-programak gauzatzea, tutorearekin eta/edo ikastetxeko diziplina arteko taldearekin lankidetzan, haien erreferentziako gelan. UC1428_3: Autonomia pertsonaleko eta higieneko programak ezartzea hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen garbitasunean, ikastetxeko diziplina arteko taldearekin lankidetzan.
Helburu orokorrak:	1 / 4 / 6 / 8 / 10 / 15 / 16 / 18 / 19 / 21 / 22 / 23 / 24

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Hezkuntzako parte-hartzearen babesa ezaugarritzen du, hura ikastetxeko teknikariaren gaitasunekin eta jardun-eremuarekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- Hezkuntzaren testuinguruan teknikariaren esku-hartzea jaso dezaketen pertsonak identifikatu ditu.
- Hezkuntza-babeseko premia bereziak dituzten ikasleak artatzen dituzten ikastetxeetako antolamendu-egiturak deskribatu ditu.
- Ikastetxeetan aniztasuna artatzeko moduei buruzko indarreko legedia aztertu du.
- Curriculumaren zehaztapen-maila desberdinak eta oinarritzko elementuak identifikatu ditu.

- e) Hezkuntza-babeseko premia bereziak dituzten ikasleei zuzenduriko hezkuntzako parte-hartzea hezkuntza-proiektuekin eta ikastetxeko programazio-dokumentuekin lotu du.
- f) Aniztasuna artatzeko programen ezaugarriak, helburuak, antolamendua eta funtzionamendua identifikatu ditu.
- g) Hezkuntza-babeseko premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko diziplina anitzeko taldearen antolamendu-egitura eta egitura funtzionala identifikatu ditu.
- h) Ikastetxeen testuinguruan aniztasuna artatzeko teknikariaren jardun-eremua identifikatu du.
- i) Plangintzak eta talde-lanak hezkuntzako parte-hartze prozesuan duen garrantzia baloratu du.

2. Hezkuntzako parte-hartzearen babesa antolatzen du eta diziplina anitzeko taldearen jarraibideak eta inklusio- eta indibidualizazio-printzipioak aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Curriculum-egokitzapen baten egitura eta elementuak deskribatu ditu.
- b) Hezkuntza-babeseko hezkuntza-premiak beharrezko curriculum-egokitzapenekin lotu ditu.
- c) Ikasleekin egin beharreko jarduerak identifikatu ditu, banakako curriculum-egokitzapenak aztertuta.
- d) Hezkuntzako parte-hartzea babesteko jarduerak programatzeko teknikak aplikatu ditu, inklusio- eta indibidualizazio-printzipioei jarraiki.
- e) Metodologia-irizpideak hautatu ditu erakundearen helburuekin, curriculum-esparruarekin eta ikasleen premiekin eta interesekin bat.
- f) Curriculum-egokitzapen batean ezarritako curriculumera sartzeko neurriak identifikatu ditu.
- g) Jarduera osagarriek eskolako integrazioan betetzen duten rola baloratu du.
- h) Hartzaileek jarduera osagarrietan parte hartzea sustatzeko teknikariaren zereginak deskribatu ditu.

3. Hezkuntzako parte-hartzea babesteko jarduerak gauzatzen ditu, curriculumeko materialak diziplina arteko taldearen jarraibideetara eta ikasleen premietara egokituta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Espazioa eta altzariak antolatu ditu, programazioan ezarritako irizpideei eta hartzaileen ezaugarriei jarraiki.
- b) Jarduera sekuentziatu du, programazioan ezarritako denboralizazioaren arabera.
- c) Diziplina arteko taldeak ezarritako jarraibideekin bat datozen curriculum-materialak hautatu ditu.
- d) Curriculum-materialak ikasleen ezaugarrietara egokitu ditu.
- e) Segurtasun- eta higiene-arauen erabilgarritasuna eta betearazpena bermatzen duten espazioa, materialak eta altzariak antolatzeko irizpideak aplikatu ditu.
- f) Ikasgelan autonomia bultzatzeko laguntza teknikoak identifikatu ditu.
- g) Curriculum-materialak ikasleen ezaugarrietara egokitzeko informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea baloratu du.
- h) Hezkuntza-prozesuan parte hartzen duten guztiak sensibilizatu ditu ingurune seguruak sortzeak duen garrantziari buruz.

4. Hezkuntzako parte-hartzea babesteko prozesuen jarraipena egiten du, diziplina anitzeko taldeari edo ikasleen tutoreari informazioa helarazita horretarako ezarritako bideetatik.

Ebaluazio-irizpideak:



- a) Hezkuntzako parte-hartzearen babesa kontrolatzeko eta haren jarraipena egiteko teknikak eta tresnak deskribatu ditu.
- b) Hezkuntza-programaren ebaluazio-jarduerak identifikatu ditu.
- c) Hezkuntzako parte-hartzea babesteko jarduerak ebaluatzeko estrategiak eta teknikak hautatu ditu.
- d) Hezkuntzako parte-hartzearen curriculum egokitzapenetan ebaluazio-adierazleak identifikatu ditu.
- e) Prozesuaren hainbat unetan ebaluazioak duen garrantzia balioetsi du.
- f) Ikasgelako istripuak prebenitzeko tekniken erabilera ebaluatzeko tresnak erabili ditu.
- g) Hainbat tresnaren bitartez jasotako informazioa interpretatu du.
- h) teknikariaren jardueraren eta esku-hartzearen eraginkortasunaren jarraipen-prozesuak duten garrantzia argudiatu du.

c) Oinarrizko edukiak:

1. HEZKUNTZAKO PARTE HARTZEAREN BABESA EZAUGARRITZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Eskola-integrazioaren arloko indarreko legedia aztertzea. - Curriculumaren oinarrizko elementuak identifikatzea. - Aniztasunaren arretari zuzenduriko hezkuntza-programak aztertzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Hezkuntza-babeseko premia bereziak dituzten ikasleak. - Integrazioa hezkuntza-arloan: <ul style="list-style-type: none"> • Ikastetxe motak. • Oinarrizko antolamendu-egitura. • Integrazio motak eta mailak. - Curriculum-zehaztapeneko mailak. - Ikastetxeko programazio-dokumentuak: <ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza-proiektua. • Ikastetxeko curriculum-proiektua. • Programazioak. • Egokitzapenak. - Aniztasuna artatzeko plana: hura lantzeko irizpideak. - Diziplina arteko taldea hezkuntza-babeseko premia berezien arretan: antolamendu-egitura eta egitura funtzionala. - Gizarteratzeko goi-mailako teknikaria: rola, funtzioak eta zereginak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lortutako informazioa objektibotasunez eta zuhurtziaz aztertzea. - Plangintzak hezkuntzako parte-hartzean duen garrantzia balioestea.

2. HEZKUNTZAKO PARTE HARTZEAREN BABESA ANTOLATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Hezkuntza-babeseko premia espezifikoak identifikatzea. - Hezkuntza-babeseko premia bereziak dituzten ikasleekin eginiko hezkuntzako parte-hartzearen oinarrian dauden printzipio psikopedagogikoak identifikatzea. - Hezkuntzako parte-hartzea babesteko eta eskolarik gabeko uneetan babesa eskaintzeko jarduerak programatzea: jolasaldia, jangela, jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Curriculum-egokitzapenak: motak eta egokitzapenik ohikoenak. Elaborazio-prozesua. - Hezkuntza babeseko premiak dituzten ikasleen irakaskuntza-ikasketa prozesua: metodologia printzipioak.

	<ul style="list-style-type: none"> - Jarduera osagarriek eta eskolaz kanpoko jarduerak eskola-integrazioan duten zeregina eta betetzen duten rola. Estrategiak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Objektibotasuna Lortutako informazioa objektibotasunez eta zuhurtziaz aztertzea. - Plangintzak hezkuntzako parte-hartzean duen garrantzia balioestea.

3. HEZKUNTZAKO PARTE HARTZEA BABESTEKO JARDUERAK GARATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Espazioa eta denbora antolatzea jarduerak gauzatzekoan. - Espazioak, denborak eta baliabideak esleitzea hezkuntzako parte-hartzearen plangintzarekin bat. - Hezkuntzako parte-hartzea babesteko laguntza teknikoak erabiltzea. - Hezkuntzako parte-hartze programaren curriculum-materialak ikasleen ezaugarrietara egokitzea. - Ikasgelan istripuak prebenitzeko eta higiena mantentzeko arauak ezartzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Espazioak: irisgarritasun-beharrak. - Curriculum-baliabideak: esku-hartzeari egokituriko materialak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Objektibotasuna eta zuhurtzia lortutako informazioaren azterketan eta emaitzetan eta esku-hartzean. - Hezkuntzako parte-hartzean informazioaren eta komunikazioaren teknologiak nola erabili diren balioestea.

4. HEZKUNTZAKO PARTE HARTZEA BABESTEKO PROZESUAREN JARRAIPENA EGITEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ebaluazio-tresnak hautatzea eta garatzea. - Ebaluazio-tresnak betetzea. - Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea hezkuntzako parte-hartzea babesteko prozesuaren kontrolean eta jarraipenean. - Ebaluazio-prozesuetatik lortutako informazioa interpretatzea eta transmititzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Hezkuntzako parte-hartzea babesteko prozesua ebaluatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Motak eta funtzioak. • Ebaluazio-teknikak eta -tresnak. • Ebaluazio-adierazleak eta -irizpideak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Autokritikarako eta autoebaluaziorako aurrejoera. - Hezkuntzako parte-hartzea babesteko prozesua ebaluatzeak duen garrantziaz sentsibilizatzea. - Objektibotasuna eta zuhurtzia lortutako informazioaren azterketan eta emaitzetan eta parte-hartzean. - Hezkuntzako parte-hartzean informazioaren eta komunikazioaren teknologiak nola erabili diren balioestea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa



Lanbide-modulu honek zereginak betetzeko beharrezko informazioa biltzen du. Berau egituratzerakoan hiru fase proposatu ditugu, ikasleek moduluaren helburuak lortzeko eta esku-hartze profesional eraginkorra gauzatzeko:

1. Hezkuntza-babeseko premia espezifikokoak dituzten ikasleen ezaugarriak identifikatzea.
2. Premia espezifikokoak dituzten ikasleak babesteko egin beharreko balizko esku-hartzeak eta erabili beharreko hezkuntza-baliabideak identifikatzea. Hezkuntzakoak.
3. Esku-hartze planak ezartzea, haien diseinua, plangintza eta emaitzen ebaluazioa barne.

2) Alderdi metodologikoak

Komeni da ondoko orientabide metodologikoak aintzat hartzea:

Komeni da modulua aurkezpen-unitate didaktiko batekin hastea, ikasleak unitate horretan landuko diren edukietara hurbiltzeko. Komenigarritzat jotzen da ikasleen motibazioa sustatuko duten eta irakasleari ikasleek irakasgaiaren inguruan duten aurretiazko ezagutza eta interesa antzematen lagunduko dioten jarduerak gauzatzea.

Irakasleak, modulua osatzen duten edukiak jorratzean, kontuan hartu beharko du horietan proposatutako sekuentziarioa. Horrek oinarri teoriko egokia izaten lagunduko dio ikasleari. Garrantzi handikoa da moduluari esanahia eta orokortasuna emango dioten ardatz nagusi bat finkatzea, loturarik gabeko atalak ezartzeko joera saihestearren.

Ez guke modulu honen prozedurazko edukien garrantziaz ahaztu behar, irakatsi eta ikasteko jardueren eta ebaluazio-jardueren zehaztapena ezarriko baitute. Ez da aurreko gomendioarekiko kontraesankor gisa interpretatu behar kontzeptuzko egitura duen unitate didaktikoren bat ezartzea. Gehiegi ez erabiltzea eta ikasleen metodologia aktiboen aldeko apustua egitea gomendatzen da, metodologia horien garapenean nolabaiteko autonomia izanda.

Dena den, oroimenean gehiegi oinarrituriko irakaskuntza-ikuspegi bat izatea saihestu behar da, eta asimilazio-bidezko ikaskuntza bilatu, hainbat kasu praktiko gauzatu. Unitate didaktiko guztietan, jarrerazko edukien garrantzia azpimarratu behar da.

Gomendagarritzat jotzen dugu banako lana eta talde-lana bultzatuko duten jarduerak diseinatzea. Izan ere, banako lanaren bidez, ikasleek euren ikaskuntza pixkanaka eraiki ahal izango dute; eta, talde-lanaren bidez, premiak dituzten pertsonen hezkuntzako parte-hartzean eta babesean profesionalen arteko koordinazioak eta talde-lanak duten garrantziaz ere jabetuko dira.

Jarduerak praktikoak izango dira eta ikaslea gizarte-errealitatera eta rol profesional ezberdinetara hurbilduko ditu. Ondoren ikasleek haien lanbide-jardunean aurkituko dituzten egoerak simulatuko dituzten jarduerak diseinatzea gomendatzen da, betiere ingurunera egokitutako suposizio praktikoak, simulazioak eta abar aurkeztuta.

Inguruko hainbat erakunderengana jotzea gomendatzen da, adibidez, Gurutze Gorrira, elkarteetara, udaletara, Foru Aldundira, eta abar; jarduera hori beste ikaskuntza bat gehiago izango da eta suposizio errealekin lan egitea ahalbidetuko du.

Komeni da moduluaren amaieran prozedurazko eta laburpeneko unitate didaktiko bat sartzea. Hala, bereganatutako ezagupenen bidez, ikasleek gai izan beharko dute sortutako edozer egoerari aurre egiteko, moduluan inplizitu dagoen profesionaltasuna erakutsiz.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Hezkuntza-babeseko premia espezifikoak dituzten ikasleen ezaugarriak identifikatzea:
 - Hezkuntza-babeseko premia bereziak dituzten ikasleak.
 - Eskola-integrazioaren arloko indarreko legedia aztertzea.
 - Diziplina arteko taldea hezkuntza-babeseko premia berezien arretan: antolamendu-egitura eta egitura funtzionala.
 - Gizarteratzeko goi-mailako teknikaria: rola, funtzioak eta zereginak.

- ✓ Premia espezifikoak dituzten ikasleak babesteko egin beharreko balizko esku-hartzeak eta erabili beharreko hezkuntza-baliabideak identifikatzea. Hezkuntzakoak:
 - Curriculum-zehaztapeneko mailak.
 - Curriculum-baliabideak: esku-hartzeari egokituriko materialak.
 - Ikastetxeko programazio-dokumentuak:
 - Hezkuntza-proiektua.
 - Ikastetxeko curriculum-proiektua.
 - Programazioak.
 - Egokitzapenak.
 - Aniztasuna artatzeko plana: hura lantzeko irizpideak.
 - Curriculum-egokitzapenak: motak eta egokitzapenik ohikoenak. Elaborazio-prozesua.
 - Hezkuntza babeseko premiak dituzten ikasleen irakaskuntza-ikasketa prozesua: metodologia printzipioak.

- ✓ Esku-hartze planak ezartzea, haien diseinua, plangintza eta emaitzen ebaluazioa barne:
 - Espazioa eta denbora antolatzea jarduerak gauzatzekoan.
 - Espazioak, denborak eta baliabideak esleitzea hezkuntzako parte-hartzearen plangintzarekin bat.
 - Hezkuntzako parte-hartzea babesteko laguntza teknikoak erabiltzea.
 - Hezkuntzako parte-hartze programaren curriculum-materialak ikasleen ezaugarrietara egokitzea.
 - Ikasgelan istripuak prebenitzeko eta higiena mantentzeko arauak ezartzea.
 - Hezkuntzako parte-hartzea babesteko prozesua ebaluatzea:
 - Motak eta funtzioak.
 - Ebaluazio-teknikak eta -tresnak.
 - Ebaluazio-adierazleak eta -irizpideak.

6. lanbide-modulua

AUTONOMIA PERTSONALAREN SUSTAPENA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Autonomia pertsonalaren sustapena
Kodea:	0342
Heziketa-zikloa:	Gizarteratzea
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	198 ordu
Kurtsoa:	1
Kreditu kop.:	13
Irakasleen espezialitatea:	Gizarte parte-hartzea (Bigarren Hezkuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Kompetentzia-atal hauei lotuta dago: UC0253_3: Autonomia pertsonalerako eta gizarte-autonomiako trebetasunak lantzerako eta eskuratzeko zuzenduriko esku-hartzeak garatzea. UC1449_3: Ezintasuna duten pertsonen programaturiko jarduerak antolatzen eta gauzatzen laguntzea. UC1451_3: Ezintasuna duten pertsonen zuzendutako oinarrizko estrategia kognitiboen eta alfabetatze teknologikoaren estrategien antolakuntzan eta garapenean entrenatzea goi-mailako profesionalekin lankidetzan.
Helburu orokorrak:	6 / 10

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Autonomia pertsonaleko eta gizarte autonomiako trebetasunak entrenatzeko programak egiten ditu, esku-hartzearen berezko teknikak hautatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- Autonomia pertsonaleko eta gizarte-autonomiako trebetasunak entrenatzeko programa baten faseak identifikatu ditu.
- Autonomia pertsonaleko eta gizarte-autonomiako trebetasunak entrenatzeko programa baten elementuak zehaztu ditu.
- Erabiltzaileen egoera baloratu du programaren helburuak zehazte aldera.
- Autonomia pertsonaleko eta gizarte-autonomiako trebetasunak entrenatzeko programa baten faseak identifikatu ditu.

- e) Esku-hartze egoeraren arabera autonomia pertsonaleko eta sozialeko trebetasunak entrenatzeko teknikak hautatu ditu.
- f) Autonomia pertsonaleko eta sozialeko ohiturak ikastera eta mantentzera zuzenduriko jardunak sekuentziatu ditu.
- g) Autonomia pertsonaleko eta gizarte-autonomiako trebetasunak entrenatzeko programaren baliabideak zehaztu ditu.
- h) Esku-hartze programan beharrezko egokitzapenak diseinatu ditu pertsonen premia indibidualak artatu ahal izateko.
- i) Jarduteko eta diziplina arteko taldearekin eta familiarekin batera lan egiteko jarraibideak ezarri ditu.
- j) Autonomia pertsonaleko eta sozialeko trebetasunak pertsonen eguneroko bizitzan duten garrantzia argudiatu du.

2. Eguneroko bizitzako trebetasunak eskuratzeko jarduerak antolatzen ditu eta autonomia sustatzeko prozesuaren faseak deskribatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak

- a) Jardueren helburuak zehazteko pertsonen egoera baloratu du.
- b) Eguneroko bizitzako jardueretan autonomia sustatzen irakasteko-ikasteko hainbat egoera definitu ditu.
- c) Eguneroko bizitzako jardueretan autonomia bultzatzeko teknikak hautatu ditu.
- d) Bitarteko eta laguntza teknikoak hautatu ditu.
- e) Eguneroko bizitzako jardueretan autonomia sustatzeko jarduerak sekuentziatu ditu.
- f) Laguntza teknikoen egokitzapenak ezarri ditu, pertsonaren ezaugarrien arabera.
- g) Prebentzioko eta segurtasuneko neurriak ezarri ditu, indarreko lege-araudiari jarraiki.
- h) Familiarekin batera lan egiteko estrategiak ezartzeko premia baloratu du.

3. Mugikortasuneko oinarrizko gaitasunak eskuratzeko jarduerak antolatzen ditu eta prozesuaren faseak deskribatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Pertsonen egoera baloratu du jardueren helburuak zehazteko.
- b) Orientazio- eta mugikortasun-teknikak aukeratu ditu.
- c) Bitarteko eta laguntza teknikoak hautatu ditu.
- d) Mugikortasuneko oinarrizko gaitasunak eskuratzeko jarduerak sekuentziatu ditu.
- e) Laguntza teknikoen egokitzapenak ezarri ditu, pertsonaren ezaugarrien arabera.
- f) Prebentzioko eta segurtasuneko neurriak ezarri ditu, indarreko lege-araudiari jarraiki.
- g) Pertsonaren mugikortasun-egoerak jasandako aldaketak kontrolatzeko premia baloratu du.
- h) Familiarekin batera lan egiteko estrategiak ezartzeko premia baloratu du.

4. Gizarte-trebetasunak entrenatzeko eta eskuratzeko jarduerak antolatzen ditu eta haiek aukeratu izana justifikatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Pertsonaren komunikazioa eta gizarte-elkarreragina galarazten duten oztopo nagusiak identifikatu ditu.
- b) Pertsonen egoera baloratu du jardueren helburuak zehazteko.
- c) Gizarte-trebetasunak eskuratzen irakasteko-ikasteko hainbat egoera definitu ditu.
- d) Esku-hartze prozesuan jarraitu beharrek metodo-estrategiak zehaztu ditu.



- e) Gizarte-trebetasunen garapenean aplikatu beharreko teknikak eta prozedurak hautatu ditu.
- f) Gizarte-trebetasunak eskuratzeko egin beharreko zereginak antolatu ditu.
- g) Gizarte-trebetasunak eskuratzeko garaian profesionalaren zereginak, eredu gisa, duen garrantzia baloratu du.
- h) Portaera-nahasmendu baten kasuan jarraitu beharreko jardun-protokoloa zehaztu du.

5. Gaitasun kognitiboak estimulatzeko, haiei eusteko eta birgaitzeko jarduerak antolatzen ditu, haiek premien arabera hautatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Pertsonen egoera baloratu du jardueren helburuak zehazteko.
- b) Gaitasun kognitiboak eustera eta haiek hobetzera bideraturiko esku-hartze estrategiak aukeratu ditu.
- c) Gaitasun kognitiboak estimulazio, mantentze eta birgaitze jardueren garapenean aplikatu beharreko teknikak eta prozedurak zehaztu ditu.
- d) Proposatutako ariketak eta jarduerak gauzatzeko baliabideak hautatu ditu.
- e) Gaitasun kognitiboak estimulatzeko, mantentzeko eta birgaitzeko jarduerak sekuentziatu ditu.
- f) Jardueretan egokitzapenak ezarri ditu, pertsonen ezaugarrien arabera.
- g) Pertsonaren gaitasun kognitiboaren egoerak jasandako aldaketak kontrolatzeko premia baloratu du.
- h) Familiarekin batera lan egiteko estrategiak ezartzeko premia baloratu du.

6. Autonomia pertsonaleko eta sozialeko trebetasunak entrenatzeko jarduerak gauzaten ditu eta haiek erabiltzaileen ezaugarrien arabera aukeratzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Autonomia pertsonala eta soziala mantentzeko eta hobetzeko jarduerak egin ditu.
- b) Jarduerak erabiltzaileen premien arabera egokitu ditu.
- c) Esku-hartze programan ezarritako bitarteko eta laguntza teknikoak erabili ditu.
- d) Materialak ekimenez eta sormenez erabili ditu.
- e) Erabiltzaileari gizarte-zerbitzuei eta -baliabideei eta haiek erabiltzeko moduari buruzko aholkua eskaini dio.
- f) Pertsonen krisi-egoeretan jardun-protokoloak aplikatu ditu.
- g) Prebentzio- eta segurtasun-neurriak hartu ditu.
- h) Sortutako kontingentziak modu eraginkorrean ebatzi ditu.
- i) Erabiltzaileen aukeratzeko eskubidea errespetatzeak duen garrantzia baloratu du.

7. Autonomia pertsonaleko eta sozialeko trebetasunak sustatzeko prozesua jarraitzeko jarduerak egiten ditu, ebaluazio estrategien, tekniken eta tresnen aukeraketa justifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Entrenamendu-programa ebaluatzeko irizpideak eta adierazleak aukeratu ditu.
- b) Entrenamendu-programarako ebaluazio-tresnak landu ditu.
- c) Datuak ezarritako euskarrietan erregistratu ditu.
- d) Programaren garapenari buruzko txostenak egin ditu.
- e) Ebaluazioaren emaitzak inplikaturik dauden pertsonen artean zabaldu ditu.
- f) Esku-hartzean sortutako gorabeherak modu eraginkorrean erantzun die.
- g) Informazioa diziplinarteko taldeari helaraztearen garrantzia baloratu du.
- h) Esku-hartzea hobetzeko haren jarraipena egiteak duen garrantzia arrazoitu du.

c) Oinarrizko edukiak:

1. AUTONOMIA PERTSONALEKO ETA SOZIALEKO TREBETASUNAK ENTRENATZEKO PROGRAMAK GAUZATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Autonomia pertsonaleko eta sozialeko ohiturak ikastera eta mantentzera zuzenduriko jardunak sekuentziaztea. - Autonomia pertsonaleko eta gizarte-autonomiako trebetasunak entrenatzeko programaren baliabideak zehaztea. - Behatzeko, datuak biltzeko eta erregistratzeko prozedurak lantzea. - Jarduteko eta diziplina arteko taldearekin eta familiarekin batera lan egiteko jarraibideak ezartzea. - Diziplina arteko taldearekin eta familiarekin koordinatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Autonomia pertsonaleko eta sozialeko trebetasunak. - Oinarrizko trebetasunak eskuratzeko prozesu orokorra. - Ikasketaren psikologiaren oinarriak. - Autonomia pertsonaleko eta sozialeko trebetasunak entrenatzeko programak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Errespetua eta elkartasuna talde-lanean. - Jarrera proaktiboa eta erantzukizunezkoa autonomia pertsonaleko trebetasun-programak aplikatzerakoan. - Erabiltzailearekin enpatia eta interesa eta aniztasunaren onarpena. - Norberaren estresa kudeatzea. - Ordena, eraginkortasuna eta efizientzia laneko metodoaren plangintzan.
2. EGUNEROKO BIZITZAKO TREBETASUNAK ESKURATZEKO JARDUERAK ANTOLATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Beharrezko bitartekoak, teknikak eta laguntzak hautatzea, erabiltzailearen ezaugarrien arabera. - Eguneroko bizitzako jardueretan autonomia sustatzeko jarduerak sekuentziaztea. - Ingurune seguruak sustatzeak duen garrantzia balioestea. - Behatzeko, datuak biltzeko eta erregistratzeko prozedurak lantzea. - Familiarekin batera lan egiteko estrategiak ezartzeko premia balioestea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Eguneroko bizitzako trebetasunak. - Eguneroko bizitzako trebetasunak entrenatzeko programak. - Eguneroko bizitzako trebetasunak entrenatzeko teknikak. - Eguneroko bizitzako jardueretarako laguntza teknikoak. - Ingurunearen irisgarritasuna. - Prebentzioko eta segurtasuneko neurriak, indarreko lege-araudiari jarraiki.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Errespetua eta elkartasuna talde-lanean. - Jarrera proaktiboa eguneroko bizitzarako trebetasun-programak aplikatzerakoan. - Erabiltzailearekin enpatia eta interesa eta aniztasunaren onarpena. - Norberaren estresa kudeatzea. - Ordena, eraginkortasuna eta efizientzia laneko metodoaren plangintzan.



3. MUGIKORTASUNEO OINARRIZKO GAITASUNAK ESKURATZEKO JARDUERAK ANTOLATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zerbitzuaren erabiltzailearen edo erabiltzaile taldearen mugikortasuneko oinarrizko trebetasunak identifikatzea eta balioestea. - Bitartekoak, teknikak, laguntza teknikoak eta jarduerak hautatzea eta aplikatzea, erabiltzailearen beharretara egokituta. - Mugikortasuneko oinarrizko gaitasunak eskuratzeko jarduerak sekuentziatzea. - Behatzeko, datuak biltzeko eta erregistratzeko prozedurak lantzea. - Prebentzioko eta segurtasuneko neurriak ezartzea, indarreko lege-araudiari jarraiki.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Orientazioa eta mugikortasuna. - Mugikortasuneko oinarrizko gaitasunak entrenatzeko programak. - Mugikortasuneko oinarrizko gaitasunak entrenatzeko teknikak. - Mugikortasunaren galera prebenitzeko eta mugikortasunari eusteko laguntza teknikoak. - Irisgarritasuna. - Prebentzioko eta segurtasuneko neurriak, indarreko lege-araudiari jarraiki.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Familiarekin batera lan egiteko estrategiak ezartzeko premia balioestea. - Errespetua eta elkartasuna talde-lanean. - Jarrera proaktiboa mugikortasun-trebetasunak eskuratzeko programak aplikatzerakoan. - Aniztasunarekiko enpatia, interesa eta hura onartzea. - Norberaren estresa kudeatzea.

4. GIZARTE TREBETASUNAK ENTRENATZEKO ETA ESKURATZEKO JARDUERAK ANTOLATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Pertsonaren komunikazioa eta gizarte-elkarreragina galarazten duten oztopo nagusiak identifikatzea. - Erabiltzaileen egoera balioestea jardueren helburuak zehazteko. - Gizarte-trebetasunak eskuratzen irakasteko-ikasteko egoera ezberdinak definitzea, eta esku-hartze jarraibideak eta esku-hartzean jarraitu beharreko estrategia metodologikoak hautatzea. - Behatzeko, datuak biltzeko eta haiek erregistratzeko prozedurak lantzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-trebetasunak. - Gizarte-trebetasunak entrenatzeko eta eskuratzeko programak. - Gizarte-trebetasunak entrenatzeko eta eskuratzeko teknikak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Erantzukizuna eta jarrera proaktiboa gizarte-trebetasun programak aplikatzerakoan. - Erabiltzailearen enpatia, interesa eta moldagarritasuna. - Ordena, eraginkortasuna eta efizientzia laneko metodoaren plangintzan.

- Gizarte-trebetasunak eskuratzeko garaian profesionalaren zereginak duen garrantzia balioestea, eredugarria den aldetik.

5. TREBETASUN KOGNITIBOAK ESTIMULATZEKO, MANTENTZEKO ETA BIRGAITZEKO JARDUERAK ANTOLATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Esku-hartzearen xede izango den erabiltzailea eta haren narriatze kognitiboa identifikatzea. - Gaitasun kognitiboak estimulatzeko, mantentzeko eta birgaitzeko jardueren garapenean aplikatu beharreko estrategiak, baliabideak, teknikak eta prozedurak definitzea, eta behar diren egokitzapenak ezartzea. - Estimulazio eta mantentze kognitiboa entrenatzeko programak lantzea. - Ikasteko, behatzeko, datuak biltzeko eta haiek erregistratzeko egoerak lantzea. - Familiarekin batera lan egiteko estrategiak ezartzeko premia balioestea. - Estimulatze eta mantentze kognitiboa.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Estimulatze eta mantentze kognitiboa entrenatzeko programak. - Estimulatze eta mantentze kognitiboa entrenatzeko teknikak: motak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Errespetua eta elkartasuna talde-lanean. - Erantzukizuna eta jarrera proaktiboa funtzio kognitiboak mantentzeko eta birgaitzeko programak aplikatzerakoan. - Erabiltzailearen enpatia, interesa eta moldagarritasuna.

6. AUTONOMIA PERTSONALEKO ETA SOZIALEKO OINARRIZKO TREBETASUNAK ESKURATZEKO ETA ENTRENATZEKO JARDUERAK GARATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Autonomia pertsonalari eta sozialari eusteko eta hura hobetzeko jarduerak egitea erabiltzailearen jatorrizko gizataldearen eta haren autonomia-mailaren arabera. - Esku-hartze programan ezarritako bitarteko eta laguntza teknikoak erabiltzea. - Erabiltzaileari gizarte-zerbitzuei eta -baliabideei eta haiek erabiltzeko moduari buruzko aholkua eskaintzea. - Datuen erregistroa. - Erabiltzaileen krisi-egoeretan jardun-protokoloak aplikatzea. - Materialak prestatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Esku-hartzearen xede den biztanleriaren ezaugarri nagusiak. - Autonomia-mailak. - Teknikariaren rola. - Autonomia pertsonaleko trebetasunen arloko baliabideak EAEn.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Prebentzioko eta segurtasuneko neurrien garrantzia balioestea, indarreko lege-araudiari jarraiki. - Errespetua eta elkartasuna talde-lanean. - Erantzukizuna eta jarrera proaktiboa autonomia pertsonaleko trebetasun-programak aplikatzerakoan.



	<ul style="list-style-type: none"> - Erabiltzailearen enpatia, interesa eta moldagarritasuna. - Ekimena eta sormena materialen erabileran.
--	--

7. AUTONOMIA PERTSONALEKO ETA SOZIALEKO TREBETASUNAK SUSTATZEKO PROZESUEN JARRAIPENA EGITEKO JARDUERAK GAUZATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Aukeratutako protokoloak entrenatzeko eta aplikatzeko programa ebaluatzeko irizpideak eta adierazleak aukeratzea. - Entrenamendu-programarako ebaluazio-tresnak sortzea eta haiek aplikatzea. - Txostenak egitea programaren garapenari eta datuen erregistroari buruz. - Ebaluazioaren emaitzak inplikaturik dauden pertsonen artean zabaltzea. - Aurreikusitako helburuen betetze-maila egiaztatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Plangintza-teknikak ebaluazioan. - Autonomia pertsonala eta soziala ebaluatzeko teknikak eta tresnak. - Txostenak egitea. - Informazioa zabaltzea.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Errespetua eta elkartasuna talde-lanean. - Erantzukizuna eta jarrera proaktiboa autonomia pertsonaleko trebetasun-programak ebaluatzerakoan. - Erabiltzailearekiko enpatia eta interesa. - Parte-hartzearen ebaluazioan talde-lanak eta koordinazioak duten garrantziaz jabetzea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulu honi heltzerako orduan, eduki kontzeptualak honela garatzea planteatu dugu:

- Hasteko, autonomia pertsonaleko eta sozialeko trebetasunak entrenatzeko programak gauzatzeari buruzko lehen blokea landuko dugu ikasleek dauden autonomia pertsonaleko trebetasunei buruzko ikuspegi globala izan dezaten.
- Autonomia pertsonaleko oinarritzko trebetasunak eskuratzeko eta entrenatzeko jarduerak ezartzeko blokea zeharka landuko da prozesu osoan zehar; horretarako, kontzeptu guztiak aplikatuko dira eta bloke zehatz bakoitza landuko da, programa mota horien hartzaile talde ezberdinak bereizita.
- Era berean, prozesua ebaluatzeko blokea eta esku-hartzeen emaitza ere zeharka landuko dira, ebaluazioa funtsezkoa baita jardun profesionala behar bezala gauzatzeko.
- Gainerako blokeak honako sekuentzia honi jarraiki landuko dira:
 - ✓ Eguneroko bizitzako trebetasunak eskuratzea.
 - ✓ Mugikortasuneko oinarritzko trebetasunak eskuratzea.
 - ✓ Gizarte-trebetasunak entrenatzea eta eskuratzea.
 - ✓ Funtzio kognitiboak estimulatzea, mantentzea eta birgaitzea.

Prozesu osoan zehar indarreko prebentzio- eta segurtasun-neurriak aplikatuko dira, ezinbestekoak baitira jardun profesionala behar bezala gauzatzeko; horretaz gain, aintzat hartuko dira prozedurazko edukiak, modulu praktikoa baita, batik bat, eta ikasitako eduki kontzeptuak guztiak aplikatzeko gaitasuna lantzea du helburu, hala autonomia pertsonaleko eta sozialeko trebetasunak eskuratzeko eta haiei eusteko esku-hartze programak eta jarduerak diseinatzeko, planifikatzeko, ezartzeko eta ebaluatzeko gai izan daitezen ikasleak.

Azkenik, jarrerazko edukiak prozesu osoan zehar landuko direla azpimarratu nahi dugu, jardun profesionala modu proaktibo eta eraginkorrean eta erantzukizunez gauzatzeko, diziplina arteko taldeko gainerako kideak errespetatuta eta haiekiko solidario izanda, eta erabiltzailearekiko enpatia, interesa eta onarpena erakutsita, egoera zailen aurrean lan egiteak bakoitzari ekar diezaiokeen estresa kudeatuta.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu hau prozedurazkoa eta jarrerazkoa da batik bat, eta bertan, irakasleen lana errealitate profesionala ikasleei hurbiltzea da eta ikasgela-tailerrean kasu praktikoak simulatzea, ikasleek autonomia pertsonaleko trebetasunak eskuratzeko programak nola ezarri probatu dezaten. Lan kooperatiboko hainbat jarduera egingo dituzte. Jarduerok sekuentziatuta egongo dira hasieratik, eta errazenetik zailenera antolatuta, ikasleen konfiantza eta estimulua bultzatzeko, eta, era berean, beharrezko jarrerazko kontzeptuak praktikan jarri eta autoebaluatzeko. Haien rola, bestalde, eredu izatea da eta autonomia pertsonaleko trebetasunak eskuratzeko teknikak eta tresnak praktikan nola erabili erakustea.

Azkenik, ikasle bakoitzaren ikasketa-prozesuaren hurbileko jarraipen indibidualizatua egiteaz arduratuko da, sistematikoki jasoko ditu kontrol-zerrenda batean bai aurrerapenak bai zailtasunak, eginiko lorpenak ebaluatuko ditu, ez bakarrik kontzeptuzko eta prozedurazko edukiak aplikazioan, baizik eta baita jarrera egokiaren eta eskatutako jarreraren erabilera ere.

Bestalde, ikasleek hasiera-hasieratik parte hartuko dute, esku-hartzearen arloko profesional gisa, ikasgela-tailerrean eginiko simulazioetan eta autonomia pertsonaleko trebetasunak eskuratzeko jarduerak ezarriko dituzte eta lankidetzan jardungo dute, esku-hartze programa guztiak planifikatuta. Simulazioetan erabiltzaileen lekuan jarriko dira, haiek dituzten balizko zailtasunekiko enpatia lantzeko ariketa gisa.

Prozesu osoan zehar etengabeko autoebaluazioa egingo dute, edukiak bereganatzen dituztela eta jardun profesionalan hobera egiten dutela ziurtatzeko.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Autonomia pertsonaleko eta sozialeko trebetasunak entrenatzeko programak gauzatzea:
 - EAEn dauden autonomia pertsonaleko trebetasunak eskuratzeko programei buruzko taldeko lana.
 - *Role-playingak* esku-hartzearen xede diren pertsona taldeak identifikatzeko.
- ✓ Esku-hartze prozesua eta haren emaitzak ebaluatzea:
 - Autonomia pertsonaleko eta sozialeko ebaluazio-teknikei eta -tresnei buruzko taldeko lana.
 - *Role-playingak* baterako bitartekaritza lantzeko.
 - *Role-playingak* familiarekiko koordinazioa lantzeko.



- ✓ Autonomia pertsonaleko eta sozialeko oinarrizko trebetasunak eskuratzeko eta entrenatzeko jarduerak ezartzea:
 - Esku-hartzearen xede diren biztanleria-taldeen ezaugarri nagusiei buruzko taldeko lana.
 - Lanbide profilari buruzko taldeko lana.
 - *Role-playingak* egoera gatazkatsuei buruz, jardun profesionalean landu beharreko beharrezko jarduerak praktikatzeko.

- ✓ Eguneroko bizitzako trebetasunak eskuratzeko jarduerak antolatzea:
 - Eguneroko bizitzako trebetasunak entrenatzeko programa bat egitea.
 - *Role-playingak* esku-hartze mota hauen xede diren pertsonekin esku hartzeko egoerak simulatzeko.
 - Eguneroko bizitzako trebetasunak entrenatzeko hainbat teknika eta laguntza tekniko erabiltzea ikasgela-tailerrean simulaturiko egoeretan.
 - Norberaren ingurunearen eskuragarritasunari buruzko taldeko lana.
 - Eguneroko bizitzako trebetasunak lantzeko programak egiten dituen inguruko erakunde bat bisitatzea.
 - Bloke honen barruan planifikaturiko esku-hartzeak ebaluatzea.

- ✓ Mugikortasuneko oinarrizko gaitasunak eskuratzeko jarduerak antolatzea:
 - Mugikortasuneko oinarrizko gaitasunei buruzko programa bat gauzatzea.
 - *Role-playingak* esku-hartze mota hauen xede diren pertsonekin esku hartzeko egoerak simulatzeko.
 - Mugikortasuneko oinarrizko gaitasunak entrenatzeko hainbat teknika eta laguntza tekniko erabiltzea.
 - Mugikortasuneko oinarrizko gaitasunak eskuratzeko programak egiten dituen inguruko erakunde bat bisitatzea.
 - Bloke honen barruan planifikaturiko esku-hartzeak ebaluatzea.

- ✓ Gizarte-trebetasunak entrenatzeko eta eskuratzeko jarduerak antolatzea:
 - Gizarte-trebetasunak entrenatzeko eta eskuratzeko programa bat gauzatzea.
 - *Role-playingak* esku-hartze mota hauen xede diren pertsonekin esku hartzeko egoerak simulatzeko.
 - Jarrerak moldatzeko eta gizarte-trebetasunak entrenatzeko eta eskuratzeko hainbat teknika erabiltzea.
 - Gizarte-trebetasunak entrenatzeko eta eskuratzeko jarduerak egiten dituen inguruko erakunde bat bisitatzea.
 - Bloke honen barruan planifikaturiko esku-hartzeak ebaluatzea.

- ✓ Gaitasun kognitiboak estimulatzeko, mantentzeko eta birgaitzeko jarduerak antolatzea:
 - Gaitasun kognitiboak estimulatzeko, mantentzeko eta birgaitzeko programa bat antolatzea.
 - *Role-playingak* esku-hartze mota hauen xede diren pertsonekin esku hartzeko egoerak simulatzeko.
 - Estimulatzeko eta mantentzeko kognitiboko hainbat teknika erabiltzea.
 - Estimulatzeko, mantentzeko eta birgaitzeko jarduerak egiten dituen inguruko erakunde bat bisitatzea.
 - Bloke honen barruan planifikaturiko esku-hartzeak ebaluatzea.

7. lanbide-modulua

KOMUNIKAZIO SISTEMA HANDIGARRIAK ETA ALTERNATIBOAK

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Komunikazio-sistema handigarriak eta alternatiboak
Kodea:	0343
Heziketa-zikloa:	Gizarteratzea
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	165 ordu
Kurtsua:	1
Kreditu kop.:	10
Irakasleen espezialitatea:	Gizartearentzako zerbitzuak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoa) Irakasle espezialista
Modulu mota:	Kompetentzia-atal honi lotuta dago: UC0254_3: Komunikazio-sistema alternatiboak finkatzea, egokitzea eta aplikatzea.
Helburu orokorrak:	12

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Erabiltzailearen komunikazio-premiak antzematen ditu eta komunikazio-sistema alternatiboekin eta handigarriekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Erabiltzailearen beharrak identifikatu ditu.
- Komunikazio-prozesuari laguntzen dioten baliabideak identifikatu ditu.
- Komunikazioak pertsonen eguneroko jardunean duen eragina baloratu du.
- Komunikazio sistema bat ala bestea aukeratzeko erabiltzailearen ezaugarri motorikoak, kognitiboak eta jarrerazkoak hartu ditu aintzat.
- Elkarreragin mota desberdinak aztertu ditu, baita komunikazioa ezartzeko baldintzarik egokienak ere.
- Komunikazio-sistema alternatiboen eta handigarrien erabilera egokiari eragin diezaioketen kanpoko elementuak identifikatu ditu.
- Familiaren eta haren ingurunearen inplikazioa bultzatzeko estrategiak erabili ditu komunikazio-sistema alternatiboekin eta handigarriekin eginiko esku-hartzean.
- Zaintzaileei eskainitako informazio eta orientazio nagusiak aztertu ditu, ezarritako komunikazio-jarreraren orokortzea bultzatuta.



2. Komunikazioa areagotzeko esku-hartzea antolatzen du, erabiltzailearen eta testuinguruaren ezaugarriak interpretatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Esku-hartzeetan komunikazioak duen garrantzia baloratu du.
- b) Helburuak erabiltzailearen premiekin bat definitu ditu.
- c) Esku-hartzea egingo den inguruneko komunikazio-testuingurua ebaluatu du.
- d) Esku-hartze proposamen bakoitzerako komunikazio-estrategiak eta -metodologiak aukeratu ditu.
- e) Esku-hartze prozedura egokiak identifikatu ditu.
- f) Komunikazio-sistema alternatiboak eta handigarriak ezarritako helburuekin bat aukeratu ditu.
- g) Laguntza tekniko egokiak identifikatu ditu.
- h) Esku-hartzea komunikazioari laguntzeko esparruan antolatzearen garrantzia baloratu du.

3. Komunikazioaren esparruan esku hartzeko programak ezartzen ditu, laguntza bidezko sistema alternatiboak eta handigarriak erabilia.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Laguntza bidezko komunikazio-sistema alternatibo nagusien oinarrizko erabilerak eta ezaugarriak deskribatu ditu.
- b) Laguntza bidezko komunikazio-sistemen mezu sinpleak sortu ditu, erabiltzailearen komunikazioa eta arreta erraztuta.
- c) Gizarte- eta hezkuntza-arretako ohiko egoeretan erabilitako zeinu nagusiak deskribatu ditu.
- d) Laguntza bidezko komunikazio-sistemen bitartez adierazitako mezuak ulertu ditu.
- e) Erabiltzaileen ezaugarri zehatzen arabera egin ditu beharrezko doikuntzak.
- f) Ezaugarrituriko kasu praktikoetan aplika litezkeen laguntza teknikoak identifikatu ditu, baita eduki beharreko kokapen- eta erabilera-eskakizunak ere.
- g) Komunikazio-estrategiak aplikatu ditu hainbat testuinguru aztertuta.
- h) Erabiltzaileen interesei eta premiei jarraiki zeinu eta piktograma kopurua areagotzeak duen garrantzia aztertu du.
- i) Hirugarren pertsonen parte-hartzea beharrezkoa duten sistemak behar bezala erabiltzen direla egiaztatu du.

4. Komunikazioaren esparruan esku hartzeko programak ezartzen ditu, zeinu-mintzaira eta laguntzarik gabeko sistema alternatiboak eta handigarriak erabilia.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Laguntzarik gabeko sistema alternatiboen oinarrizko egiturak eta gizarte- eta hezkuntza-arretako ohiko egoeretan erabilitako zeinu nagusiak deskribatu ditu.
- b) Zeinu-mintzaira bidezko mezuak sortu ditu laguntzarik gabeko hainbat komunikazio-sistemetan, eta erabiltzaileekiko komunikazioa eta arreta erraztu du.
- c) Erabiltzaileen ezaugarri zehatzen arabera egin ditu beharrezko doikuntzak.
- d) Zeinu-mintzaira eta laguntzarik gabeko komunikazio-sistemen bitartez adierazitako mezuak ulertu ditu.
- e) Komunikazio-estrategiak aplikatu ditu hainbat komunikazio-testuinguru aztertuta.
- f) Erabiltzaileen interesei eta premiei jarraiki, zeinu kopurua eta haien edukia areagotzeak duen garrantzia aztertu du.
- g) Hirugarren pertsonen parte-hartzea beharrezkoa duten sistemak behar bezala erabiltzen direla egiaztatu du.

5. Esku-hartzearen eraginkortasuna egiaztatzen du eta komunikazio-esparruan hobe daitezkeen alderdiak antzematen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Komunikazio-gaitasunaren maila erregistratu du erabiltzailearen komunikazio-sistema nagusietan.
- b) Hautatutako komunikazio-sistema osatzen duten elementuen erabilera egokia egiaztatu du.
- c) Komunikazioko esku-hartzearen garapenean eragina izan dezaketen erabilitako komunikazio-sistemetatik kanpoko elementuak erregistratu ditu.
- d) Erabiltzailearen eta ezarritako komunikazio-sistemaren arteko desdoikuntzak identifikatu ditu.
- e) Aurreikusitako helburuen betetze-maila zehaztu du.
- f) Erabiltzailearen komunikazio-kompetentzia ebaluatzeko bide gisa erregistro-protokoloak egiteak duen garrantzia baloratu du.

c) Oinarrizko edukiak:

1. ERABILTZAILIEN KOMUNIKAZIO PREMIA ANTZEMATEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Komunikazio handigarri eta alternatiborako hautagaiak identifikatzea. - Premiak balioestea. - Erabilera-aukerak identifikatzea. - Komunikazio-sistemak sailkatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Komunikazio handigarria eta alternatiboa. - Laguntza bidezko eta laguntzarik gabeko komunikazioa.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zorroztasunez hautematea komunikazio-disfuntzioak. - Esku-hartze prozesua balioestea. - Komunikazioak pertsonen eguneroko jardunean duen eragina balioestea.

2. ESKU HARTZEA ANTOLATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Baliabideak eta jarduerak antolatzea. - Komunikazioaren sistema alternatiboak eta handigarriak irakasteko estrategiak erabiltzea. - Ohiturak ezartzea. - Testuinguru adierazgarriak ezartzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Esku hartzeko estrategiak. - Komunikazio-sistema handigarri eta alternatibo nagusiak. - Komunikazioan esku hartzeko proiektuak. - Komunikazioa bultzatzeko programa espezifikoak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zorroztasunez hautematea komunikazio-disfuntzioak. - Esku-hartzearen antolamendua balioestea. - Komunikazio-gaitasuna ebaluatzeko komunikazio-erregistroak



	egiteak duen garrantzia balioestea.
--	-------------------------------------

3. LAGUNTZA BIDEZKO KOMUNIKAZIO SISTEMAK APLIKATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Bliss sistema erabiltzea. - SPC (komunikaziorako sistema piktografikoa) sistema erabiltzea. - Laguntza bidezko beste komunikazio-sistema ez-estandarizatu batzuk erabiltzea. - Komunikaziorako zeinu motak sailkatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Informazioa eskuratzeko kodeak. - Goi- eta behe-teknologiako laguntzak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zorroztasunez hautematea komunikazio-disfuntzioak. - Laguntza bidezko komunikazio-sistema balioestea. - Zintzotasuna eta errespetua laguntza jaso duen pertsonarekiko tratuan.

4. LAGUNTZARIK GABEKO KOMUNIKAZIO SISTEMAK APLIKATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zeinu-mintzaira erabiltzea. - Sistema bimodala erabiltzea. - Laguntzarik gabeko beste komunikazio-sistema ez-orokortu erabiltzea. - Komunikazio-sistemaren eraginkortasuna egiaztatzea. - Komunikazio-gaitasunak erregistratzeko sistemak sailkatzea, ebaluatu beharreko elementuen arabera:
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Komunikazio-kompetentzien erregistroetako adierazle esanguratsuak. - Komunikazio-sistemaren doikuntza edo aldaketa zehazten duten irizpideak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zorroztasunez hautematea komunikazio-disfuntzioak. - Laguntzarik gabeko komunikazio-sistemak balioestea. - Zintzotasuna eta errespetua laguntza jaso duen pertsonarekiko tratuan.

5. KOMUNIKAZIO SISTEMAREN ERAGINKORTASUNA EGIAZTATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Komunikazio-gaitasunen adierazleak ebaluatzea. - Ebaluazio-sistemak abiaraztea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Komunikazio-gaitasunen erregistroak. - Komunikazio-sistemak. Doikuntza edo aldaketa zehazten duten irizpideak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ebaluazioan objektibotasuna balioestea. - Gizartean esku hartzeko proiektuak ebaluatzearen garrantzia

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulu honen sarrera gisa, komenigarritzat jotzen dugu ikasleak esku-hartzean parte hartu duten pertsonen komunikazio-premiak ezagutzea. Hortaz, lehenik eta behin, komunikazio-sistemen sailkapenari buruzko edukiak garatuko ditugu; komunikazio handigarria eta alternatiboa; laguntza bidezko komunikazioa eta laguntzarik gabekoa. Lehen une honetan, halaber, komunikazio handigarrirako eta alternatiborako hautagaiak identifikatuko ditugu eta haien komunikazio-premiak baloratuko ditugu.

Ondoren, eta lehenengo fasean landutako komunikazio-premien ondorioz, komenigarria iruditzen zaigu aurrez eginiko premien antzematek eratorritako esku-hartzea antolatzeari ekitea. Beraz, bigarren une honetan garatu beharreko edukiak honako hauek lirarteke: komunikazioan esku hartzeko proiektuak eta komunikazio hori sustatzeko programa espezifikoak lantzea; esku hartzeko estrategiak eta komunikazio-sistema handigarri eta alternatibo nagusiak deskribatzea, eta ohiturak eta testuinguru aipagarriak ezartzea.

Esku hartzea planteatu eta antolatu ostean, egokitzen jotzen dugu ikasleek komunikazio-sistema alternatiboak laguntzarekin eta laguntzarik gabe aplikatzea. Horretarako, hirugarren fasean, komunikazio-sistema alternatiboak laguntza bidez aplikatzen hasiko gara. Ondorioz, hirugarren fase honetan honako eduki haiek landuko ditugu: komunikaziorako zeinu motei eta informazioa eskuratzeko kodeei buruzkoak; goi- eta behe-teknologiako laguntzak; zeinuak hautatzeko prozedura; Bliss sistemaren, SPC sistemaren eta laguntza bidezko estandarizatu gabeko beste sistema batzuen erabilera, eta laguntza bidezko komunikazio-sistemen balorazioa.

Amaitzeko, azken fasean, egokitzen jo dugu ikasleek komunikazio-sistemak laguntzarik gabe aplikatzea. Hortaz, une horretan honako eduki hauek landuko ditugu: adierazle adierazgarriak komunikazio-gaitasunen erregistroan; komunikazio-gaitasunak ebaluatu beharreko elementuen arabera erregistratzeko sistemak; komunikazio-sistemaren doikuntza edo aldaketa zehazten duten irizpideak, eta sistema bimodalaren eta laguntzarik gabeko beste komunikazio-sistema ez orokortuen erabilera.

2) Alderdi metodologikoak

Lehenengo fasean, komenigarritzat jo dugu irakasleak moduluko edukiak aurkeztea eta garatzea, eta ikasleen inplikazioa bilatzea landutako edukiak ariketa praktikoek bidez ezartzea eskatuta.

Bigarren fasean, ikasleen parte-hartze handiagoa bilatuko dugu eta komunikazioa areagotzeko proiektu eta programa espezifikoek diseinuan haien inplikazioa ahalbidetuko dugu taldeko lanek bidez. Irakasleak ikasleen taldeko lana gidatu ahaldu du eduki jakin batzuk aurkeztuta edo hainbat material erabilita, eta hainbat informazio-iturritarako sarbidea emanda.

Esku-hartze proiektuak egin ostean, hirugarren fase batean, ikasleek komunikazio-sistema alternatiboak aplikatzeko gai izan beharko dute, bai laguntzarekin, bai laguntzarik gabe. Trebakuntza horretarako interesgarritzat jo dugu lan-jardunean aurki



ditzaketen komunikazio-zailtasunen antzeko zailtasunak dituzten pertsonen edo/eta gizataldeen hainbat kasu eta egoera aurkeztea. Kasu edo egoera horiek behar bezala konpontzeko fase honetan ezarritako edukietako batzuk aplikatu beharko dituzte.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Komunikazio-sistema alternatiboen eta handigarrien bidezko esku-hartzea errazteko estrategiak diseinatzea:
 - Informazioa biltzeko estrategiak diseinatzea.
 - Bildutako informazioa ebaluatzeko estrategiak diseinatzea.
 - Zeinuak ulertzea zuzenduriko estrategiak diseinatzea.
 - Zeinuak erabiltzea zuzenduriko irakaskuntza-estrategiak diseinatzea.
 - Elkarreragin-estrategiak diseinatzea.
- ✓ Komunikazio-sistema alternatibo eta handigarri grafikoak ezartzea:
 - Komunikazio-sistema alternatibo eta handigarri grafikoak identifikatzea.
 - Komunikazio-sistema alternatibo eta handigarri grafikoak sailkatzea.
 - Zeinu piktografikoak ezagutzea.
 - Taulen, plafoien eta komunikazio-koadernoen ezaugarriak deskribatzea.
 - Komunikazio-aula grafikoak egitea.
- ✓ Mezuak sortzea sistema daktilologikoa erabilia:
 - Sistemari buruzko informazioa bilatzea.
 - Kodea identifikatzea.
 - Mezuak aukeratzea.
 - Mezuak kodetzea.

8

8. lanbide-modulua

GIZARTEAN ESKU HARTZEKO METODOLOGIA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Gizartean esku hartzeko metodologia
Kodea:	0344
Heziketa-zikloa:	Gizarteratzea
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	132 ordu
Kurtsoa:	1
Kreditu kop.:	7
Irakasleen espezialitatea:	Gizarte parte-hartzea (Bigarren Hezkuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal hauei lotuta dago: UC1022_3: Gizarte edo lurralde-esparru jakin bat osatzen duten eragileen artean garatzen diren gizarte-jardunen eta -proiektuen eta herritarrek parte hartzekoen plangintza, garapena eta ebaluazioa dinamizatzea. UC1024_3: Gizarte-proiektuen eta -jardunen komunikaziorako eta hedapenerako estrategiak ezartzea. UC1026_3: Generoaren ikuspegia txertatzea gizartean parte hartzeko proiektuetan.
Helburu orokorrak:	1 / 2 / 3 / 4 / 5 / 6 / 7 / 8 / 9 / 10 / 13 / 15 / 24

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Gizarte-errealitatea aztertzeko metodoak, teknikak eta tresnak zehazten ditu, ezaugarriak eta aplikazio-esparrua interpretatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- Informazioa lortzeko metodo, teknika eta tresna nagusiak identifikatu ditu.
- Tresna eta baliabideak aplikatzeko eskakizunak zehaztu ditu.
- Teknika eta tresnen aplikazioak, aukerak eta mugak identifikatu ditu.
- Xedearekin koherenteak diren tresnak landu ditu.
- Komunikazioaren teknologiak erabili ditu, informazioa lortzeko tresnak lantzean.
- Egoerarako egokiak diren analisi-teknikak hautatu ditu.
- Parte-hartzearen errealitatean analisiaren zeregina justifikatu du.
- Informazioa biltzearen eta tratatzearen alderdi etikoak baloratu ditu.



2. Gizartean parte hartzeko proiektua osatzen duten elementuak zehazten ditu, eta elementu horiek plangintza-ereduekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gizartean parte hartzeko hainbat eredu teoriko alderatu ditu.
- b) Gizartean parte hartzeko plangintzaren mailak identifikatu ditu.
- c) Plangintza-ereduak alderatu ditu.
- d) Plangintza-prozesuaren faseak deskribatu ditu.
- e) Gizartean parte hartzeko proiektuak behar bezala funtsatzearen beharra justifikatu du.
- f) Plangintzaren oinarriko elementuak identifikatu ditu.
- g) Gizartean parte hartzean aplikatzekoak diren metodoak, teknikak eta tresnak alderatu ditu.

3. Gizartean parte hartzeko proiektuak sustatzeko eta hedatzeko estrategiak zehazten ditu, eta eskura dauden baliabideak erdietsi nahi diren lorpenekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Publizitateari eta hedabideei buruzko oinarriko prozesuak eta kontzeptuak azaldu ditu.
- b) Gizarte-proiektuen sustapenean eta hedapenean hedabideek duten garrantzia argudiatu du.
- c) Sustapen- eta hedapen-kanpaina bateko oinarriko elementuak identifikatu ditu.
- d) Gizarte-proiektuak sustatzeko eta hedatzeko bitarteko, estrategia eta teknika nagusiak deskribatu ditu.
- e) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabili ditu sustapen- eta hedapen-materialak lantzeko.
- f) Gizarte-proiektuak sustatzeko eta hedatzeko kanpainak diseinatu ditu, askotariko baliabideak erabilia.
- g) Gizarte-proiektuak sustatzeko eta hedatzeko beharra argudiatu du.
- h) Gizarte-proiektuak sustatzeko eta hedatzeko prozesuetan, informazioaren egiazkotasuna bermatu beharra justifikatu du.

4. Gizartean parte hartzeko proiektuak lantzean genero-ikuspegia txertatzen du, eta erabilitako estrategiak eta irizpideak indarrean dagoen esparru teorikoarekin eta lege-esparruarekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Generoaren ikuspegitik egiten den errealitatearen analisiaren garrantzia argudiatu du.
- b) Gizartean parte hartzeko proiektuak egitean, generoaren ikuspegia txertatzearen beharra argudiatu du.
- c) Aukera-berdintasuna sustatzen duen lege-esparrua interpretatu du.
- d) Parte-hartzearen ingurunean dauden aukera-berdintasuneko erakundeen eta organismoen informazioa eta baliabideak aztertu ditu.
- e) Proiektuetan generoaren ikuspegia txertatzeko irizpideak identifikatu ditu.
- f) Hizkuntza ez-sexistaren erabilerari buruzko nazioarteko protokoloak aztertu ditu.
- g) Gizartean parte hartzeko proiektuen plangintzan hizkuntza ez-sexista erabiltzea ziurtatu du.
- h) Sustapen- eta hedapen-tresnetan generoaren ikuspegia txertatzeko estrategiak identifikatu ditu.
- i) Genero-indarkeriaren adierazpen nagusiak gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunen isla gisa identifikatu ditu.

5. Gizartean parte hartzeko proiektuetako ebaluazio-prozedurak definitzen ditu, eta, horretarako, eredu teorikoak aztertzen ditu eta generoaren ikuspegia hartzen du aintzat.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gizartean parte hartzea ebaluatzeko ereduak, teknikak eta tresnak deskribatu ditu.
- b) Ebaluazioaren funtzioak eta printzipio orokorrak azaldu ditu.
- c) Ebaluazioaren faseak deskribatu ditu.
- d) Gizartean parte hartzeko proiektuak ebaluatzeko teknikak, adierazleak, irizpideak eta tresnak zehaztu ditu.
- e) Diseinatutako proiektuetan kalitatea kudeatzeko prozedura orokorrak ezarri ditu.
- f) Gizartean parte hartzeko proiektuetan generoaren ikuspegia txertatu dela egiaztatzen diren estrategiak eta tresnak zehaztu ditu.
- g) Programen funtzionamendua optimizatzeko eta horien kalitatea bermatzeko ebaluazio-beharrak argudiatu ditu.
- h) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabili ditu ebaluazio-txostenak eta memoriak lantzeko eta aurkezteko.

c) Oinarrizko edukiak:

1. ERREALITATEA AZTERTZEKO METODOAK, TEKNIKAK ETA TRESNAK ZEHAZTEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Informazio-iturri nagusiak eta informazioa erregistratzeko sistemak aztertzea: <ul style="list-style-type: none"> • Behaketa. • Elkarrizketa. • Galdetegia. • Inkesta. • Dokumentu-bilduma. - Informazioa biltzeko tresnak lantzea eta aplikatzea. - Datuak aztertzea eta interpretatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Metodoak, teknikak eta tresnak. • Oinarrizko estatistika. - Gizarte-ikerketan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-ikerketako metodoak eta teknikak: <ul style="list-style-type: none"> • Oinarrizko kontzeptu eta alderdi teorikoak. • Ikerketa/ekintza. • Teknika eta tresna kualitatiboak eta kuantitatiboak. • Oinarrizko laginketa-tekniken analisia. - Tekniken eta tresnen aukerak eta mugak. - Informazio-iturriak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Informazioa biltzearen alderdi etikoen balorazioa. - Informazioaren fidagarritasuna eta baliozkotasuna.
2. GIZARTEAN PARTE HARTZEKO PROIEKTUEN ELEMENTUAK ZEHAZTEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizartean parte hartzeko eredu teorikoak aztertzea. - Gizartean parte hartzeko proiektua planifikatzea.



kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizartean parte hartzeko eredu teorikoak: ekologikoak eta sistematikoak, besteak beste. - Gizarte parte-hartzearen plangintza: <ul style="list-style-type: none"> • Kontzeptua, eginkizunak eta eredu teorikoak. • Plangintza-mailak: plana, programa eta proiektua. • Plangintza motak. • Printzipio orokorrak eta plangintzaren eskakizunak. • Plangintzaren alde onak, alde txarrak eta mugak. - Gizartean parte hartzearen programazio-teknika bereizgarriak. - Plangintzaren prozesua. Faseak eta elementuak: <ul style="list-style-type: none"> • Oinarrizko kontzeptuak. • Elementu metodologikoak: parte hartzeko estrategia eta teknikak, jarduerak eta zereginak. • Denborak definitzeko teknikak. • Giza baliabideen eta baliabide materialen antolamendua eta kudeaketa. • Barne-koherentziaren analisia. • Bezeroarenganako arreta-plana. • Atzeraelikadura.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Proiektua goi-mailako teknikariaren jardunaren ardatz gisa balioestea.

3. PARTE HARTZEKO PROIEKTUAK SUSTATZEKO ETA HEDATZEKO ESTRATEGIAK ZEHAZTEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-proiektuak sustatzeko eta hedatzeko materialak lantzea. - Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea gizarte-proiektuen sustapenean eta hedapenean: testu-prozesadoreak, aurkezpenak, irratia eta bideoa, besteak beste.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Publizitatearen eta komunikazioaren oinarrizko kontzeptuak. - Publizitatea eta hedabideak gizartean parte-hartzean: <ul style="list-style-type: none"> • Sustapen- eta hedapen-estrategiak. Marketina. • Gizartean parte hartzeko proiektuak sustatzeko eta hedatzeko kanpainen diseinua.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Elementu materialen (erremintak eta tresneria) balio tekniko berriak kontuan hartzeko alde zuzeneko jarrera izatea (ekarpen positiboa). - Gizarte-proiektuak sustatzeko eta hedatzeko zereginen garrantzia balioestea.

4. GENEROAREN IKUSPEGIA TXERTATzea GIZARTEAN PARTE HARTZEKO PROIEKTUETAN

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Errealitatea generoaren ikuspegitik aztertzea. - Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen duten baliabideak eta/edo organismoak aztertzea. - Sustapen- eta hedapen-tresnetan generoaren ikuspegia txertatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Generoaren ikuspegia, gizartean parte hartzeko proiektuak diseinatzean. - Aukera-berdintasunaren legezko esparrua. - Nazioarteko protokoloak. Hizkuntza ez-sexistaren gidak eta eskuliburuak. - Sustapen- eta hedapen-tresnetan generoaren ikuspegiaren

	txertaketa.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gatazka balioestea talde-dinamiketan garapena errazten duen elementu positibotzat. - Arazoak eta gatazkak ebazteko garaian errespetuaren eta tolerantziaren eginkizuna balioestea.

5. GIZARTEAN PARTE HARTZEKO PROIEKTUAK EBALUATZEKO PROZEDURAK DEFINITZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Proiektuak ebaluatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Kontzeptua, eginkizunak eta eredu teorikoak. • Ebaluazioaren printzipioak eta motak. • Ebaluazioa, programazio-elementu gisa. - Ebaluazio-prozesua aztertzea: <ul style="list-style-type: none"> • Faseak. • Ebaluazioaren edukiak. • Ebaluazioaren baliabideak eta jarduerak antolatzea. - Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko parte hartzeen ebaluazioa eta jarraipena egitea. - Txostenak eta memoriak egitea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizartean parte hartzeko proiektuetan kalitatea kudeatzea. - Informatika-euskarriak informazioaren tratamenduan eta antolamenduan.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ebaluazioan objektibotasuna balioestea. - Gizartean esku hartzeko proiektuak ebaluatzearen garrantzia balioestea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulu hau egituratzeko, honako fase hauek ezartzea proposatzen dugu:

1. Gizartean parte hartzeko jarduna antolatzea.
2. Parte hartzea/gauzatzea.
3. Gizartean parte hartzeko jarduna ebaluatzea.
4. Gizartean parte hartzeko jarduna sustatzea/hedatzea.
5. Gizartean parte hartzeko jardunaren kalitatea kudeatzea.

1. **Lehen faseak**, antolamenduak, honako alderdi hauek hartzen ditu barnean:

- ✓ Beharrak hautematea.
- ✓ Programazioa.
- ✓ Parte-hartzea koordinatzea/kudeatzea.
- ✓ Txostenak egitea.

2. **Bigarren faseak**, parte hartzeko/gauzatzeko funtzioak, berriz, alderdi hauek hartzen ditu barnean:



- ✓ Informazioa bilatzea.
 - ✓ Jarduna antolatzea.
 - ✓ Parte hartzeko estrategiak aplikatzea.
 - ✓ Jarduerak kontrolatzea, jarraipena egitea eta ebaluatzea.
 - ✓ Dagokion dokumentazio teknikoa lantzea eta betetzea.
3. **Hirugarren fasea**, ebaluazio-funtzioa, bestalde, esku-hartzea –osotasunean– kontrolatzeko eta jarraipena egiteko diseinatutako prozedurak inplementatzeari dagokio.
4. **Laugarren faseak**, sustatzeko/hedatzeko funtzioak, alderdi hauek biltzen ditu:
- ✓ Kanpainak eta proiektuak sustatzea.
 - ✓ Publizitate-euskarriak lantzea.
5. **Bosgarren faseak**, kalitate-kudeaketaren funtzioa, alderdi hauek hartzen ditu barnean:
- ✓ Zerbitzuaren balorazioa.
 - ✓ Prozesuaren kontrola.

2) Alderdi metodologikoak

Moduluaren helburuak lortzea ahalbidetuko duten irakatsi eta ikasteko prozesuko jardun-ildoek, abiapuntu gisa, moduluaren prozedurazko ikuspegia izango dute. Ikasgelan, eta ikasgelaz kanpo, simulazioak egingo dira eta metodologia aktiboa eta motibatzailea erabiliko da, ikasleen parte-hartzea sustatuko duena, irakatsi eta ikasteko prozesuaren eragile aktibo gisa. Lehenetsiko da:

- Talde-lana.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera.
- Gizartean parte hartzearen plangintzari buruzko balioarekiko sentsibilizazioa.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Programen dokumentuak aztertzea.
- ✓ Gizarte-errealitatea aztertzeko tresnak lantzea eta aplikatzea.
- ✓ Sustapeneko eta hedapeneko estrategiak eta kanpainak diseinatzea, bidezko materialak landuta.
- ✓ Gizartean parte hartzeko proiektuak ebaluatzea.
- ✓ Proiektuak sustatzea eta hedatzea.

9. lanbide-modulua

LEHEN LAGUNTZAK

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Lehen laguntzak
Kodea:	0020
Heziketa-zikloa:	Gizarteratzea
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	60 ordu
Kurtsoa:	2
Kreditu kop.:	3
Irakasleen espezialitatea:	Osasun- eta laguntza-prozedurak Diagnostiko kliniko eta ortoprotesikoko prozedurak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoa) Irakasle espezialista
Modulu mota:	Tituluaren profilari lotuta dago
Helburu orokorrak:	14

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Larrialdi bateko laguntzaren hasierako balorazioa egiten du eta arriskuak, eskura dauden bitartekoak eta beharrezko laguntza mota deskribatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Eremua prozedura egokiaren arabera babestu du.
- Istripua izan duten pertsonak manipulatzearan norbera babesteko erabili beharreko teknikak identifikatu ditu.
- Larrialdietako botikinaren gutxieneko edukia, eta produktuen eta sendagaien indikazioak deskribatu ditu.
- Biktima anitz daudenerako jardun-lehentasunak ezarri ditu.
- Aire-bideen iragazkortasuna egiaztatze prozedurak deskribatu ditu.
- Aireztatze/oxigenatzeko funtzionamendu-baldintza egokiak identifikatu ditu.
- Odoljariorik izanez gero jarduteko prozedurak deskribatu eta gauzatu ditu.
- Konorte-maila egiaztatze prozedurak deskribatu ditu.
- Bizi-konstanteak hartu ditu.
- Bizkortzeari buruzko nazioarteko koordinazio-batzordeak (ILCOR) ezarritako protokoloaren arabera jardun-sekuentzia identifikatu du.

2. Oinarrizko bizi-euskarriko teknikak aplikatu eta deskribatzen ditu, eta lortu beharreko helburuarekin lotzen ditu.



Ebaluazio-irizpideak:

- a) Bihotz-biriketako bizkortzearen funtsak deskribatu ditu.
- b) Aire-bidea zabaltzeko teknikak aplikatu ditu.
- c) Aireztapen- eta zirkulazio-euskarriko teknikak aplikatu ditu.
- d) Kanpoko desfibrilazio erdiautomatikoa (KDE) egin du.
- e) Bizkortze ondoko neurriak aplikatu ditu.
- f) Lesio, patologia edo traumatismo ohikoenak adierazi ditu.
- g) Istripua izan duen pertsonaren lehen eta bigarren mailako balorazioa deskribatu du.
- h) Agente fisikoen, kimikoen eta biologikoen ondoriozko lesioen aurrean lehen laguntzak aplikatu ditu.
- i) Premiazko patologia organikoen aurrean lehen laguntzak aplikatu ditu.
- j) Zein kasutan edo egoeratan esku hartu behar ez den zehaztu du.

3. Biktimak immobilizatu eta mobilizatzeko prozedurak aplikatzen ditu, eta, horretarako, baliabide materialak eta teknikak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Biktimarengana hurbiltzeko beharrezko maniobrak egin ditu.
- b) Immobilizatu eta mobilizatzeko baliabide materialak identifikatu ditu.
- c) Pertsona lesionatu baten aurrean hartu beharreko jarrera-neurriak ezaugarritu ditu.
- d) Mobilizazio eta lekualdatze desegokiaren ondorioak deskribatu ditu.
- e) Gaixoak edo istripua izan dutenak immobilizatu eta mobilizatzeko sistemak prestatu ditu, material ohikoekin eta berariazkoak ez direnekin nahiz beste baliabide batzuekin.
- f) Segurtasunerako eta norberaren babeserako arauak eta protokoloak aplikatu ditu.

4. Istripua izan duenari eta familiei zein laguntzaileei laguntza psikologikoa eta autokontrolak emateko teknikak aplikatzen ditu, eta komunikazio-estrategia egokiak deskribatu eta aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Istripua izan duen pertsonarekin eta laguntzaileekin komunikatzeko oinarritzko estrategiak deskribatu ditu.
- b) Istripua izan duen pertsonaren behar psikologikoak antzeman ditu.
- c) Istripua izan duen pertsonaren egoera emozionala hobetzeko laguntza psikologikoko oinarritzko teknikak aplikatu ditu.
- d) Istripua izan duen pertsonari jardun osoan zehar konfiantza eta baikortasuna emateak duen garrantzia baloratu du.
- e) Istripu, larrialdi eta doluko egoeretan antsietatea sorrarazten duten faktoreak identifikatu ditu.
- f) Dolu, antsietate, larritasun edo agresibitateko egoera bat kontrolatzeko erabili behar diren teknikak zehaztu ditu.
- g) Laguntzean huts egin izana psikologikoki gainditzeko erabili behar diren teknikak zehaztu ditu.
- h) Estres-egoeretan norbera kontrolatzearen garrantzia baloratu du.

c) Oinarritzko edukiak:

1. LARRIALDIETAKO LAGUNTZAREN HASIERAKO BALORAZIOA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Esku hartzeko eremua babesteko teknikak aplikatzea. Larrialdietako arreta-zerbitzuetarako sarbideak identifikatzea. - Norbera babesteko teknikak identifikatu eta aplikatzea. - Informazioa emateko teknikak aplikatzea. Berariazko terminologia erabiltzea. - Lesioen larritasuna eta mota kontuan hartuta jardun-lehentasanak identifikatzea. Bizi-arriskua dakarten egoerak identifikatzea. Oinarrizko triajeak egitea. - Istripua izan duen pertsonaren hasierako baloraziorako teknikak aplikatzea. Aire-bideen iragazkortasuna, aireztapena eta zirkulazioa egiaztatzea. Konorte-maila balioestea. Bizi-konstanteak hartzea. - Jardun-sekuentzia identifikatzea, adibidez, bizkortzeari buruzko nazioarteko koordinazio-batzordeak (ILCOR) ezarritako protokoloaren arabera. - Lehen laguntzetako botikinaren oinarrizko materiala identifikatu eta erabiltzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Larrialdietarako sistemak. - Lehen laguntzak. Helburuak eta mugak. BAS jokamoldea (babes-sistemak, abisu-sistemak eta sorospen-sistemak). - Istripuak. Motak eta ondorioak. - Eremua babesteko sistema. Metodoak eta materialak. - Terminologia mediko sanitarioa lehen laguntzetan. Informazioa emateko protokoloak. - Biktima anitz daudenerako jardun-lehentasanak. Triage sinpleko metodoak. - Istripua izan duen pertsona baloratzeko teknikak. Bizi-arriskuaren zeinuak pertsona helduarengan, haurrengan eta bularreko umeengan. Larrialdi-zeinuak eta -sintomak. - Miaketa egiteko protokoloak. Konorte-maila baloratzeko sistemak. Bizi-konstanteak hartzea. - Lehen esku-hartzailearen jarduna. Lege-esparrua, erantzukizunak eta etika profesionala. - Norberaren babesa eta segurtasuna esku-hartzean. Arriskuak. Neurriak eta ekipamenduak. - Lehen laguntzetako botikina. Osagaiak, erabilera eta aplikazioak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ingurune seguruak sortzeko segurtasun-arauei eta protokoloei zorrotz jarraitzea. - Jardunaren barruan, istripua izan duenarengan konfiantza eta lasaitasuna sortzeko interesa. - Bere jardunaren mugez jabetzea.

2. BIZI EUSKARRIKO TEKNIKAK APLIKATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Bizi-arriskuko egoerak aztertzea. - Bizi-zeinuen presentzia identifikatu eta egiaztatzea. - Jarrera-tratamendu egokia aplikatzea. - Bizi-euskarriko teknikak identifikatzea eta egoera bakoitzerako ezarritako jardun-protokoloekin lotzea. - Bihotz-biriketako oinarrizko bizkortze-teknikak (BBB) aplikatzea. - Aire-bidea zabaltzeko teknikak aplikatzea. - Aireztapen- eta zirkulazio-euskarriko teknikak aplikatzea. - Kanpoko desfibriladore automatikoak erabiltzea. - Bizkortze ondoko neurriak aplikatzea. - Istripua izan duten pertsonen lehen eta bigarren mailako balorazioa
-----------------------	--

	<p>egitea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lehen laguntzako teknikak aplikatzea honako lesio hauetan: agente fisikoen ondoriozkoak (hala nola, traumatismoak, zauriak, odoljarioak, beroa edo hotza, elektrizitatea eta erradiazioak), agente kimikoen ondoriozkoak, agente biologikoen ondoriozkoak eta premiazko patologia organikoaren ondoriozkoak.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Aire-bideen iragazkortasuna kontrolatzea. Zabaltzeko eta buxadura kentzeko teknikak. Mantentzea. - Bihotz-biriketako oinarriko bizkortzea (BBB). Protokoloak helduekin, bularreko umeekin eta hurrekin. - Kanpoko desfibrilazio automatikoa (KDA). Teknikak. Tresnerien funtzionamendua eta mantentzea. Egoera bereziak. Informazio-prozedura. Legedia. Ziurtatzea. - Istripua izan duen pertsonaren balorazioa. Bizi-zeinuak. Lehen eta bigarren mailako balorazioa. Esku hartu behar ez den egoerak. - Hasierako arreta agente fisikoen ondoriozko lesioetan (hala nola, traumatismoak, zauriak, odoljarioak, beroa edo hotza, elektrizitatea eta erradiazioak). - Hasierako arreta agente kimikoen eta biologikoen ondoriozko lesioetan. - Hasierako arreta premiazko patologia organikoan. - Konortearen asaldurak. Konorterik gabe dauden pertsonak baloratu eta zaintzea. - Krisi konbultsiboak dituzten pertsonak zaintzea.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ordena eta zehaztasuna jardun-protokoloak aplikatzean. - Errespetua eta zuhurtzia istripua izan duen pertsonarekiko tratuan. - Jardunaren barruan, istripua izan duenarengan konfiantza eta lasaitasuna sortzeko interesa. - Tinkotasuna larrialdietako zerbitzuaren jarraibideak betetzean eta ez jarduteko egoeretan. - Bere jardunaren mugez jabetzea.

3. IMMOBILIZATU ETA MOBILIZATZEKO PROZEDURAK APLIKATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Istripua izan dutenak immobilizatu eta mobilizatzeko teknikak aplikatzea. - Jarrera egokian jartzeko teknikak aplikatzea. - Immobilizatu eta mobilizatzeko sistemak prestatzea (hala nola, ferulak eta ohatilak).
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Immobilizatzeko, mobilizatzeko eta garraiatzeko teknikak. Indikazioak. Motak. Materialak. Esku-oheak. Ondorioak. - Lekualdatzeko beharra ebaluatzea. - Segurtasun- eta itzarote-jarrerak. Lekualdatzeko jarrerak. Indikazioak. - Segurtasunari eta arriskuaren prebentzioari buruzko arauak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ordena eta zehaztasuna jardun-protokoloak aplikatzean. - Errespetua eta zuhurtzia istripua izan duen pertsonarekiko tratuan. - Norbera babesteari eta segurtasunari buruzko arauak zorrotz jarraitzea. - Jardunaren barruan, istripua izan duenarengan konfiantza eta lasaitasuna sortzeko interesa.

4. LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA ETA AUTOKONTROLEKOA EMATEKO TEKNIKAK APLIKATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Kasuak kasu komunikazio-teknikak aplikatzea. Komunikazioan jokabide egokienak hautatzea. - Dolu, antsietate, larritasuna edo agresibitateko egoerak kontrolatzeko eta horietan laguntza psikologikoa emateko oinarrizko teknikak aplikatzea. - Autokontrolero eta hutsegitea edo adore falta gainditzeko teknikak aplikatzea. - Istripu, larrialdi eta doluko egoeretan antsietatea sorrarazten duten faktoreak identifikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Oinarrizko komunikazio-estrategiak. Pertsonen arteko komunikazioa errazten duten teknikak. - Lehen esku-hartzailearen erantzun emozionala. Lehen esku-hartzailearen eginkizuna balioestea. Istripu edo larrialdiko egoeretan antsietatea sorrarazten duten faktoreak. Kontrol-teknikak. - Laguntza psikologikorako oinarrizko teknikak. Istripua izan duen pertsonaren eta haren familiako behar psikologikoak. Dolu, larritasun, antsietate, urduritasun edo agresibitateko egoerak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Jardunaren barruan, istripua izan duenarengan konfiantza eta lasaitasuna sortzeko interesa. - Autokontrola estres-egoeren aurrean eta frustrazio-jasamena. - Zuhurtzia eta interesa sekretu profesionalari eusteko.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulu hau garatzeko, edukien hurrenkera hau gomendatzen dugu:

- Lehen laguntzen helburuak, terminologia, BASa (babesa, abisua eta sorospena).
- Lehen esku-hartzailea, haren jardunaren mugak, esparru etikoa, harremanak beste profesional batzuekin...
- Segurtasuna eta norberaren babesa, arrisku pertsonalak eta prebentzio-neurriak.
- Lehen laguntzetako botikina.
- Istripua izan duen pertsonaren hasierako balorazioa, zeinuak eta sintomak, miaketa egiteko protokoloak, bizi-konstanteak hartzea...
- Oinarrizko bizi-euskarria aplikatzea, BBBa, aire-bideak, desfibriladoreak erabiltzea...
- Mobilizatu eta immobilizatzeko teknikak. Segurtasun-jarrerak.
- Lehen laguntzak ematea traumatismoen, zaurien eta odoljarioen aurrean.
- Lehen laguntzak egitea beste egoera batzuetan, hala nola beste eragile fisiko, kimiko edo biologiko batzuek eta patologia organikoek eragindakoetan.
- Komunikazio-teknikak, eta laguntza psikologikoa eta autokontroleroa emateko teknikak aplikatzea.



2) Alderdi metodologikoak

Modulu honetan funtsezkoa da ikasleak gai izatea larrialdi-egoeretan ikasitako teknikak aplikatzeko. Hortaz, garapen praktikoa ezinbestekoa da. Ikasgelako egoera ohikoena izango da behar bezala ezaugarritutako egoeretan lehen laguntzetako teknikak praktikan aplikatzea.

Egoera horiek ezaugarritzeko, lanbide-sektorea erreferentzia gisa har daiteke eta sarrien izaten diren egoerak azaldu daitezke. Hainbat aldaketa sar daitezke, adibidez, inplikaturako pertsonen kopuruarekin, pertsonen adinarekin edo ezaugarriekin, istripuaren lekuarekin, etab. lotutakoak. Garrantzitsua izango da planteatutako egoerari eta aplikatutako teknikari buruzko azterketa eta gogoeta egitea, ikaskuntza horiek orokortu ahal izateko.

Eduki teorikoek bigarren mailako eginkizuna dutenez gero, teknikak aplikatzeko beharrezkoak diren heinean sartuko dira. Dena dela, nahiz eta bigarren mailako zeregina izan, beharrezkoak dira jarduna ulertzeko eta hobeto gogoratzeko, praktikan jarri ez diren beste egoera batzuetan teknikak aplikatu ahal izateko eta informazioa eman edota larrialdietako koordinazio-zentro baten jarraibideak bete ahal izateko.

Eduki teorikoak lehen laguntzak emateko egoera bati lotuta ikasiko dira, unitate didaktiko bakoitzaren hasieran oro har. Aurkezpen-sistemak konbina daitezke, hala nola, azalpen-metodoak eta parte-hartze handiagoko metodoak, ariketak ebaztea edo eskemak prestatzea, betiere ikasleen artean parte-hartzea eta interesa lortzeko helburuarekin.

Ikasmateriala askotarikoa izan daiteke: dagoeneko landutakoa ekar daiteke (adibidez, apunteak, aldizkariak edo eskulibururen bat) edota, beste batzuetan, ikasleek landu dezakete, bibliografia edo informatika-aplikazioak kontsultatuta. Ikasleek laneko protokoloak eta argibideak erabiltzen, eta horiei ordenaz eta zehaztasunez jarraitzen ohitu behar dute. Protokolo batzuei dagokienez, azken gomendioei adi egon behar da (adibidez, ILCOR batzordearenak), sarritan berritzen baitira.

Jarduera praktikoetarako, bitarteko hauek eduki behar dira: lehen laguntzetako manikiak (pertsona helduenak, haurrenak eta bularreko umeenak), oxigenoterapiako ekipoa, desfibriladorea, norbera babesteko ekipamendua, sendaketak egiteko materiala, mobilizatzeko materiala... Ikastetxeko hainbat eremu erabil daitezke, hala nola, ikasgelak, jolastokiak, eskailerak edo korridoreak.

Profesionalen jardunak irudietan bilduta azter daitezke, edota beste kide batzuenak ere; osasun-laguntza behatzeko eta hobekuntzak proposatu nahiz gauza interesgarrienak nabarmentzeko.

Ezinezkoa da praktikan lehen laguntzak ematea egoera guztietan, hala nola, agente fisiko, kimiko edo biologiko guztiek eta patologia organiko guztiek sorrarazitakoetan. Maiztasunagatik edo larritasunagatik garrantzitsuenak direnak hauta daitezke. Helburua da egoera horietan ikasleei jarduteko gaitasun oinarrikoenak harraraztea, besteak beste, honakoa hauek: sintoma batzuk antzematea, laguntza ematen hastea, larrialdietako zentro koordinatzailearekin telefonoz harremanetan jartzea, informazioa ematea eta jarraibideak betetzea.

Laguntza psikologikoarekin eta komunikazio-teknikekin zerikusia duten edukiak sarritan jasotzen dira ikasketa-planetan. Eduki horiek jorrazteko, ikasleen alde aurreko ezagupenetatik abiatu beharko da; eta, dagoeneko ikasi badira, larrialdietako komunikazioarekin eta laguntzarekin lotura handiena duen zatia ikusiko da. Talde-teknikak egin daitezke (*role-playing*, kasuen azterketa...), ikasleen jokabidea behatu eta haien gaitasunak agerian jarri ahal izateko.

Modulu honetan lortutako gaitasunetako batzuk egoera zailetan aplikatu beharko dira (presa, urduritasuna eta abar). Horregatik, garrantzitsua da eduki oinarrizkoenak edo garrantzitsuenak ondo finkatzea (jardun-sekuentzia, BBBa, norberaren babesa...). Moduluaren amaieran errebasoaldi bat antola daiteke. Bertan, denetako jardunak prestatuko dira, unitate didaktiko guztien edukiak elkarrekin lotuta, eta ikasleek lortutako heldutasuna ebaluatu ahal izango da.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Egoera desberdinetan BAS jardun-protokoloa aplikatzea. Eremua eta istripua izan duena babestea. Abisua eta informazioa ematea. Sorospen-neurriek ekitea.
- ✓ Istripuen hainbat kasutan, arrisku pertsonalak identifikatzea eta prebentzio-neurriak erabiltzea.
- ✓ Lehen laguntzetako botikin baten oinarrizko osagaiak erabiltzea. Produktuen zerrendak eta horiek erabiltzeko arauak jasoko dituzten dokumentuak prestatzea. Sendaketak egitea.
- ✓ Hainbat egoeratan laguntzaren hasierako balorazioa egitea. Zeinuak eta sintomak bilatzea. Bizi-konstanteak hartzea. Jardun-protokoloa identifikatzea.
- ✓ Lehen laguntzetako teknikak aplikatzea. Oinarrizko bizi-euskarriko teknikak aplikatzea. BBBa egitea. Aire-bideei arreta jartzea. KDA erabiltzea. Pertsonak mobilizatzea. Istripua izan dutenak lekualdatzea. Pertsonak immobilizatzea.
- ✓ Kasuak kasu komunikazio-teknikak aplikatzea. Informazioa prestatu eta ematea.
- ✓ Laguntza psikologikoa emateko teknikak aplikatzea.
- ✓ Talde-tekniketan parte hartzea. Iritziak eta sentimenduak adieraztea.
- ✓ Laneko egoerak edo dependentziak aztertzea, eta horietako bakoitzean egon litezkeen arriskuak idatziz jasotzea.
- ✓ Larrialdi-egoerak aztertzea, zer egin behar den eta zer egin behar ez den baloratzeko.
- ✓ Idatzizko eta ahozko jardun-protokoloak interpretatzea.



10. lanbide-modulua GIZARTE TREBETASUNAK

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Gizarte-trebetasunak
Kodea:	0017
Heziketa-zikloa:	Gizarteratzea
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	132 ordu
Kurtoa:	1
Kreditu kop.:	6
Irakasleen espezialitatea:	Gizarte parte-hartzea (Bigarren Hezkuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Tituluaren profilari lotuta dago
Helburu orokorrak:	13 / 16 / 18 / 19 / 20 / 22

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Ingurunearekin komunikazioa eta harreman sozialak errazteko estrategiak eta teknikak abiarazten ditu, eta horiek adimen emozionalaren eta sozialaren printzipioekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Adimen emozionalaren eta sozialaren printzipioak deskribatu ditu.
- Lanbidearen jardunean gizarte-trebetasunek duten garrantzia baloratu du.
- Komunikazio-prozesu baten etapak ezaugarritu ditu.
- Komunikazio-estiloak, eta horien abantailak eta mugak identifikatu ditu.
- Pertsonen arteko harremanetan hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa erabiltzeak duen garrantzia baloratu du.
- Zereginak esleitzeko, argibideak jasotzeko eta ideiak edo informazioa trukatzeko komunikazio eraginkorra ezarri du.
- Egoerara egokitutako gizarte-trebetasunak erabili ditu, kultura-aniztasuna kontuan izanda.
- Ez ditu pertsonak epaitu eta errespetua adierazi du haien berezitasunekiko: emozioak, sentimenduak, nortasuna.
- Aldatzeko eta gertatzen den guztiaz ikasteko jarrera positiboa erakutsi du.
- Pertsonen arteko harreman eta komunikazio egokirako trebetasunak garatzeko autokritikak eta autoebaluazioak duten garrantzia baloratu du.

2. Taldearen lana dinamizatzen du, teknika egokiak aplikatuta, eta teknika horien hautaketa justifikatzen du taldearen ezaugarrien, egoeraren eta helburuen arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Talde baten funtsezko elementuak, eta taldearen egitura eta dinamika alda dezaketen faktoreak deskribatu ditu.
- b) Taldeen dinamizazio- eta funtzionamendu-teknikak aztertu eta hautatu ditu.
- c) Talde-lanak bakarkako lanarekiko dituen alde onak azaldu ditu.
- d) Talde batean egon daitezkeen rolak eta horien arteko loturak bereizi ditu.
- e) Taldeko komunikazioaren oztopo nagusiak identifikatu ditu.
- f) Taldearen egituran eta funtzionamenduan lidergo-eginkizuna eta rolak baliatzeko jardun-estrategiak planteatu ditu.
- g) Talde-laneko prozedura gisa zereginen banaketa zehaztu du.
- h) Taldearen konfiantza lortzeko jarrera tolerante eta enpatikoak duen garrantzia baloratu du.
- i) Lan-giro lasaia eta lankidetzakoa lortu du.
- j) Norberarenaz bestelako iritziak eta taldearen erabakiak errespetatu ditu.

3. Bilerak bideratzen ditu, eta esku hartzeko eta antolatzeko moduak edo estiloak aztertzen ditu, hartzaileen ezaugarriak eta testuingurua kontuan izanda.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Bilerak motak eta bakoitzaren eginkizunak deskribatu ditu.
- b) Bilerak baten garapen-etapak deskribatu ditu.
- c) Bilerak moderatzeko teknikak aplikatu eta justifikatu ditu.
- d) Ideiak argiro eta labur azaltzeko gaitasunaren garrantzia frogatu du.
- e) Bilerak baten arrisku-faktoreak eta litezkeen oztopatzeak deskribatu ditu, eta horiek ebazteko estrategiak justifikatu ditu.
- f) Bilerak deialdietan informazio egokia eta anitza emateko beharra baloratu du.
- g) Bileretan parte-hartzea lortzeko, motibazioak eta erabilitako estrategiek duten garrantzia deskribatu du.
- h) Bilerak bati buruzko informazioa biltzeko eta haren emaitzak ebaluatzeko teknikak aplikatu ditu.
- i) Bilerak gidatzean errespetu eta tolerantziarako jarrerak erakutsi ditu.

4. Gatazkak kudeatzeko eta arazoak ebazteko estrategiak abiarazten ditu, horiek testuinguruaren ezaugarriak kontuan izanda hautatzen ditu eta dauden ereduak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Taldeko arazoaren eta gatazken sorburu nagusiak aztertu eta identifikatu ditu.
- b) Gatazkak kudeatzeko teknika eta estrategia nagusiak deskribatu ditu.
- c) Konponbideak bilatzeko eta arazoak ebazteko estrategia egokiak identifikatu eta deskribatu ditu.
- d) Erabakiak hartzeko prozesuaren faseak deskribatu ditu.
- e) Arazoak eta gatazkak ebazteko, kasu bakoitzerako prozedura egokiak aplikatu ditu.
- f) Arazo eta gatazketarako litezkeen konponbideei dagokienez, besteen iritziak errespetatu ditu.
- g) Bitartekotza- eta negoziazio-teknikak behar bezala aplikatu ditu.
- h) Erabakiak hartzeko prozesuan, pertsonak (erabiltzaileak) kontuan hartu ditu, haien adina nahiz egoera fisikoa eta mentala edozein izanik ere.
- i) Erabakiak hartzeko zeregina eta prozesuaren autoebaluazioa planifikatu ditu.
- j) Erabakiak hartzean komunikazio-trukeak duen garrantzia baloratu du.

5. Talde-prozesuak eta lanbide-funtzioak garatzeko gizarte-kompetentzia bera ebaluatzen ditu, hobe daitezkeen alderdiak identifikatuta.



Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ebaluazio-adierazleak hautatu ditu.
- b) Gizarte-ikerketako teknikak eta teknika soziometrikoak aplikatu ditu.
- c) Profesionalaren abiapuntuko egoera pertsonalari eta sozialari buruzko autoebaluazioa egin du.
- d) Informazioa biltzeko tresnak diseinatu ditu.
- e) Datuak ezarritako euskarrietan erregistratu ditu.
- f) Bildutako datuak interpretatu ditu.
- g) Hobetu beharra duten egoerak identifikatu ditu.
- h) Hobekuntzan bete beharreko jarraibideak ezarri ditu.
- i) Profesionalak landutako prozesuari buruzko amaierako autoebaluazioa egin du.

c) Oinarrizko edukiak:

1.GIZARTE HARREMANA ETA KOMUNIKAZIOA ERRAZTUKO DITUZTEN ESTRATEGIAK ETA TEKNIKAK ABIARAZTEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Esku-hartzearen esparruetan komunikazioaren eta bizi-kalitatearen artean dagoen lotura aztertzea. - Komunikazio-printzipioen zerrenda eta adimen emozionaleko eta sozialeko printzipioekin duten harreman soziala. - Zereginak esleitzeko, argibideak jasotzeko eta ideiak edo informazioa trukatzeko komunikazio eraginkorra ezartzea. - Komunikazio enpatiko eta asertiboa ezartzea. - Egoera bakoitzari egokituriko gizarte-trebetasunak erabiltzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-trebetasunak eta antzeko kontzeptuak. - Komunikazio-prozesua. Etapak. Hitzezko komunikazioa, hitzik gabekoa eta paralinguistikoa. - Komunikazioaren bideratzaileak eta oztopoak. - Testuinguruaren balorazio komunikatiboa: komunikazioaren bideratzaileak eta oztopoak/trabak. - Adimen emozionala. Emozioak eta sentimenduak. - Hezkuntza emozionala. - Gizarte adimena. - Babes-mekanismoak. - Komunikaziorako eta gizarte-trebetasunerako programak eta teknikak. - Komunikazio-estiloak: estilo oldarkorra, inhibitua/pasiboa, asertiboa. - Haur Hezkuntzako Goi Mailako Teknikariaren eta antzeko beste profil batzuen printzipio deontologikoak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lanbidearen jardunean gizarte-trebetasunek duten garrantzia balioestea. - Pertsonen arteko harremanetan hitzezko komunikazioa, hitzik gabekoa eta paralinguistikoa behar bezala erabiltzeak duen garrantzia balioestea. - Ez juzkatzeagatiko interesa eta errespetuzko jokaera pertsonen elementu desberdintzaileekiko: emozioak, sentimenduak, nortasuna eta beste batzuk. - Aldaketarekiko jarrera positiboa eta gertatzen den guztia ikastea. - Pertsonen arteko harreman eta komunikazio egokirako trebetasunak garatzeko autokritikak eta autoebaluazioak duten garrantzia balioestea.

2. TALDE LANA DINAMIZATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Taldeen egitura eta prozesuak aztertzea. - Taldearen egitura edo dinamika alda dezaketen faktoreak identifikatzea. - Taldea dinamizatzeko teknika eta tresna egokiak aplikatzea. - Taldea dinamizatzeko aukeratutako teknikak justifikatzea, taldearen ezaugarrien, egoeraren eta helburuen arabera. - Talde-lanak bakarkako lanarekiko dituen alde onak azaltzea. - Jarduteko hainbat estrategia aplikatzea taldearen egituran lidergoaren funtzioari eta rol positiboari etekina ateratzeko eta alderdi negatiboak neutralizatzeko edo zuzentzeko. - Lan-giro lasaia eta lankidetzakoa lortzea. - Taldearen konfiantza eta kohesio egokia lortzeko teknikak eta dinamikak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Taldea: motak eta ezaugarriak. Taldearen egitura eta dinamika. Talde-garapena. - Komunikazioa taldeetan. Komunikazio-estiloak. Hitzeko eta keinuzko komunikazioa. Bestelako lengoaiak: ikonikoa, ikus-entzunezkoa, IKTak. Oztupoak eta trabak. - Taldeak aztertzeko teknikak. - Taldea dinamizatzeko teknikak. - Lankidetzak eta lehia taldeetan. - Talde-dinamikak. Talde-dinamikei aplikatutako funts psikosozilogikoak. - Lan-taldea. Elkarlanerako estrategiak. Zereginen antolamendua eta banaketa. - Bakarlana eta talde-lana. - Talde-rolak: rol positiboak eta negatiboak. Rol positiboak bultzatzeko eta negatiboak neutralizatzeko edo zuzentzeko jardun-estrategiak. - Taldearen konfiantza eta kohesioa.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Subjektuaren garapen osoan komunikazioak duen garrantzia balioestea. - Talde-dinamikan motibazioak duen eginkizuna balioestea. - Talde-lanean banakoen arteko desberdintasunak errespetatzea. - Taldearen konfiantza lortzeko jarrera tolerante eta enpatikoak duen garrantzia balioestea.

3. BILERAK GIDATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Bilera bateko partaideen tipologia identifikatzea. - Bilerak moderatzeko eta dinamizatzeko teknikak justifikatuta aplikatzea, parte-hartzaileen ezaugarrien eta testuinguruaren arabera. - Bilera batean gatazkak konpontzeko estrategiak justifikatuta aplikatzea. - Bilera bati buruzko informazioa biltzeko eta haren emaitzak ebaluatzeko teknikak aplikatzea. - Talde baten portaeran eragina duten faktoreak aztertzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Bilera talde-lan gisa.



	<ul style="list-style-type: none"> - Bilera motak eta horien eginkizunak. - Bilera baten garapen-etapak. - Bilerak dinamizatzeko eta moderatzeko teknikak. - Bilera bateko arrisku-faktoreak. Balizko gatazkak. Konpontzeko estrategiak. - Bilera batean informazioa biltzeko eta haren emaitzak ebaluatzeko teknikak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ideiak argiro eta labur azaltzeko gaitasunaren garrantzia balioestea. - Bilera-deialdian informazio egokia eta sakona emateko beharra balioestea. - Bileretan parte-hartzea lortzeko, motibazioak eta erabilitako estrategiek duten garrantziaz jabetzea. - Errespetua eta tolerantzia bilerak gidatzerakoan.

4. GATAZKAK KUDEATZEKO ETA ERABAKIAK HARTZEKO ESTRATEGIAK ABIARAZTEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Taldeko gatazkak ebazteko teknika eta estrategia egokiak aplikatzea. - Bitartekaritza- eta negoziazio-teknikak egokiro aplikatzea. - Erabakiak hartzeko prozesua planifikatzea eta autoebaluetzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gatazka: kontzeptua, ezaugarriak eta tipologia. - Taldeen arazoak eta gatazkak. Gatazken iturri nagusiak. - Arazoak ebazteko teknikak eta estrategiak. - Erabakiak hartzeko prozesua. Faseak. Prozesuaren plangintza eta ebaluazioa. - Taldeko gatazkak kudeatzea. - Negoziazioa eta bitartekaritza. Negoziazio- eta bitartekaritza-teknikak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gatazka balioestea talde-dinamiketan garapena errazten duen elementu positibotzat. - Arazoak eta gatazkak ebazteko garaian errespetuaren eta tolerantziaren eginkizuna balioestea. - Erabakiak hartzean komunikazio-trukeak duen garrantzia balioestea.

5. KONPETENTZIA SOZIALA ETA TALDE PROZESUAK EBALUATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Taldeak aztertzekeo estrategiak eta tresnak aztertzea. - Informazioa biltzeko tresnak diseinatzea. - Taldeekiko lanean teknika soziometrikoak eta gizarte-ikerketako teknikak aplikatzea. - Lortutako emaitzak interpretatzea. - Hobetzeko jarraibide egokiak ezartzea lortutako emaitzen arabera. - Profesionalaren abiapuntuko egoera, prozesuarena eta amaierako egoera pertsonala eta soziala autoebaluetzea, hobe daitezkeen alderdiak identifikatuta.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Konpetentzia sozialaren ebaluazioa. - Taldeen egitura eta prozesuen ebaluazioa. - Gizarte-ikerketako teknikak.

	<ul style="list-style-type: none"> - Oinarrizko soziometria. - Datu-bilketa. - Informazioa biltzeko tresnak. Tresnak diseinatzea. - Emaizak aztertzea eta interpretatzea. - Hobetzeko balizko jarraibideak ezartzea lortutako emaitzen arabera. - Haur hezitzailearen hasierako eta bizitzan zeharreko prestakuntzaren analisia eta prozesua.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Konpetentzia soziala hobetzeko estrategia gisa autoebaluazioa balioestea. - Taldeko ebaluazioak balioestea taldeak hobetzeko eta garatzeko estrategia gisa. - Konfidentziasuna datuen tratamenduan.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Irakatsiko dugun lehen blokea **“Gizarte harremana eta komunikazioa erraztuko dituzten estrategiak eta teknikak abiaraztea”** izango da eta bertan "gizarte-trebetasunei", "komunikazioari", "adimen emozionalari eta gizarte-adimenari" buruzko hainbat kontzeptu eta prozedura mugatu eta aztertuko ditugu.

Ondoren, **“Talde-lana dinamizatzen”** eta **“Bilerak gidatzen”** irakatsiko dugu, eta, bertan, komunikazio-teknikei, talde-dinamikei, taldeak dinamizatzeko estrategiei, bilera motei, etapei, informazioa biltzeko teknikei, bilera bateko emaitzen ebaluazioari eta abarri buruzko prozesuak aztertuko eta abiaraziko ditugu.

Bloke horien ostean, gatazkak konpontzeari eta kudeatzeari buruzko gaien oinarrituko gara, **“Gatazkak kudeatzeko eta erabakiak hartzeko estrategiak abiaraztea”**. Bertan, taldearen arazoak eta gatazkak aztertuko ditugu, baita gatazken iturri nagusiak, eta arazoak konpontzeko teknikak eta estrategiak ere.

Alderdi horiek landu ostean, **“Konpetentzia soziala eta talde prozesuak ebaluatzen”** irakatsiko dugu. Bertan, soziometriako oinarrizko teknikak, gizarte-gaitasunen ebaluazioa, ikerketa-teknikak, emaitzen azterketa eta interpretazioa eta abar irakatsiko ditugu.

2) Alderdi metodologikoak

Lanbide-modulu honek oinarrizko informazioa biltzen du, ikasleek laguntzako lanbide bat garatzeko beharrezko gizarte-trebetasunak eskura ditzaten eta beste pertsona batzuekiko harreman profesionaletan behar bezala elkarreragin dezaten eta beren portaera pertsona horien eta haien testuinguruaren ezaugarrietara egokitu ditzaten ahalbidetzeko.

Prozedurazko eta jarrerazko modulua da, batik bat, eta jarduera praktikoak eta dinamikoak ditu protagonista.

Ezinbestekoa da alderdi kontzeptualak eta gizarte-trebetasunei buruzko alderdiak ezagutzea, aztertzea eta ulertzea, eta heiei buruz gogoeta egitea. Gizarte-trebetasunak praktikarekin ikasten eta eskuratzen dira, haiek entrenatuta.



Horretarako, parte hartzeko hainbat metodo jarriko ditugu abian, esaterako:

- Modelatze instrukzionala eta informazio kontzeptuala: ahozko instrukzioa eta/edo keinu bidezkoa eta taldeko elkarrizketa eta/edo eztabaida garatu beharreko trebetasunari buruz.
- Modelatzea eta imitazioa: behaketa bidezko ikasketan datza. Helburua ikasleei entrenatu nahi den trebetasuna edo jokaera behar bezala erakusten duten ereduak aurkeztea da.
- *Role-playinga* edo antzezpena (jokabide entsegua): taldeko dramatizazio-teknika horrek portaerak eta jarrerak moldatzen eta/edo eskuratzen laguntzen du.
- Hainbat talde dinamika (jarduera kooperatiboak, gatazkak konpontzekoak, komunikaziokoak, eta abar), zeinetan ezinbestekoak diren bai parte-hartzea bai taldearen ondorengo gogoeta.

Jarduera gehienak taldekoak izango dira eta lehentasuna emango zaio talde-lanari (talde txikian eta/edo handian), baina banakako jarduerak ere izango dute lekua, esaterako, hausnarketako jarduerak, gizarte-trebetasunei buruzko autoebaluaziokoak eta abar.

Irakasleek lankidetzeta-giroa bultzatu beharko dute ikasleen artean eta haiek motibatzen eta modurantz erakartzen saiatuko dira, baita gizarte-trebetasunak laneko testuinguruan, lanaren jardunean eta, oro har, gure bizitzan duten garrantzia balioesteko jarrerak eta balioak transmititzen ere.

Irakasleek, halaber, gizarte-trebetasunak eta pertsonen arteko harremanekin loturikoak balioetsi eta saritu egingo dituen testuingurua bultzatuko du, hartara ikasleengan trebetasun horiek eskuratzeko eta praktikatzeko interesa piztuta.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Taldeko aurkezpen-ezagutza dinamikak.
- ✓ Talde txikitan mural-collage bat sortzea eta bertan gizarte-trebetasunen adibideak bilduko dituen kontzeptu-mapa bat osatzea.
- ✓ Emozioei buruzko mural-collage bat egitea.
- ✓ *Role-playingak* komunikazio-estiloari buruz.
- ✓ Komunikazioaren bideratzailei-blokeatzailei buruzko *role-playingak* (modelatze teknika erabil daiteke komunikazioaren bideratzaileak lantzeko).
- ✓ Kooperazioa lantzeko talde-dinamikak.
- ✓ Talde-lana eta taldeko rola lantzeko talde-dinamikak.
- ✓ Gatazkak konpontzea eta taldeko rola lantzeko talde-dinamikak.
- ✓ Taldearen kohesioa eta konfiantza lantzeko talde-dinamikak.
- ✓ Talde txikitan talde-dinamizazioko hainbat teknika lantzea, gero praktikan jartzeko.
- ✓ *Brainstorminga* talde-lanaren eta bakarkako lanaren abantailari eta desabantailari buruz.

- ✓ *Role-playing*ak laneko bilerei buruz.
- ✓ Gatazkak konpontzeari buruzko dinamikak.
- ✓ Bitartekaritza- eta negoziazio-teknikak antzeztea *role-playing* bitartez.
- ✓ Teknika soziometrikoa aplikatzea.
- ✓ Konpetentzia sozialaren autoebaluazioa.



11. lanbide-modulua

GIZARTERATZEKO PROIEKTUA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Gizarteratzeko proiektua
Kodea:	0345
Heziketa-zikloa:	Gizarteratzea
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	50 ordu
Kurtsoa:	2
Kreditu kop.:	5
Irakasleen espezialitatea:	Gizarte parte-hartzea (Bigarren Hezkuntzako irakaslea) Gizartearentzako zerbitzuak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoa)
Modulu mota:	Zeharkako modulua
Helburu orokorrak:	Guztiak

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Produkzio-sektorearen beharrak identifikatzen ditu, eta behar horiek ase ditzaketen ereduzko proiektuekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Sektoreko enpresak antolamendu-ezaugarrien arabera eta eskaintzen duten produktuaren edo zerbitzuaren arabera sailkatu ditu.
- Ereduzko enpresak ezaugarritu ditu, haien antolamendu-egitura eta sail bakoitzaren eginkizunak adierazita.
- Enpresei gehien eskatzen zaizkien beharrak identifikatu ditu.
- Sektorean aurreikus daitezkeen negozio-aukerak baloratu ditu.
- Aurreikusten diren eskariei arreta egiteko behar den proiektu-mota identifikatu du.
- Proiektuak izan behar dituen berariazko ezaugarriak zehaztu ditu.
- Zerga-betebeharrak, lanekoak eta arriskuen prebentziokoak, eta horiek aplikatzeko baldintzak zehaztu ditu.
- Proposatzen diren produkzio edo zerbitzuko teknologia berriak txertatzeko jaso daitezkeen laguntzak edo diru-laguntzak identifikatu ditu.
- Proiektua lantzeko jarraitu beharreko lan-gidoia landu du.

2. Tituluan adierazitako konpetentziekin lotutako proiektuak diseinatzen ditu, eta horiek osatzen dituzten faseak barnean hartu eta garatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Proiektuan jorratuko diren alderdiei buruzko informazioa bildu du.
- b) Bideragarritasun teknikoari buruzko azterlana egin du.
- c) Proiektua osatzen duten faseak edo zatiak eta horien edukia identifikatu ditu.
- d) Lortu nahi diren helburuak ezarri ditu eta horien irismen identifikatu du.
- e) Proiektua gauzatzeko beharrezko baliabide materialak eta pertsonalak aurreikusi ditu.
- f) Dagokion aurrekontu ekonomikoa egin du.
- g) Abian jartzeko finantziazio-beharrak identifikatu ditu.
- h) Diseinatzeko beharrezko dokumentazioa definitu eta landu du.
- i) Proiektuaren kalitatea ziurtatzeko kontrolatu beharreko alderdiak identifikatu ditu.

3. Proiektua gauzatzea planifikatzen du, esku hartzeko plana eta lotzen den dokumentazioa zehaztuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jarduerak sekuentziatu ditu, eta inplementatze-beharren arabera antolatu ditu.
- b) Jarduera bakoitzerako beharrezko baliabideak eta logistika finkatu ditu.
- c) Jarduerak gauzatzeko baimenen beharrak identifikatu ditu.
- d) Jarduerak gauzatzeko edo jarduteko prozedurak finkatu ditu.
- e) Proiektua ezartzeari datzekion arriskuak identifikatu ditu, eta arriskuei aurrea hartzeko plana eta beharrezko bitartekoak eta ekipamenduak definitu ditu.
- f) Baliabide materialak eta giza baliabideak eta gauzatze-denborak esleitzeko plangintza egin du.
- g) Ezartzearen baldintzei erantzuten dien balorazio ekonomikoa egin du.
- h) Proiektua inplementatzeko edo gauzatzeko beharrezko dokumentazioa zehaztu eta prestatu du.

4. Proiektua gauzatzean, jarraipena eta kontrola egiteko prozedurak definitzen ditu, eta erabilitako aldagaiak eta tresnak hautatu izana justifikatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jarduerak edo esku-hartzeak ebaluatzeke prozedura definitu du.
- b) Ebaluazioa egiteko kalitate-adierazleak definitu ditu.
- c) Jarduerak egitean sor daitezkeen gorabeherak eta litekeen konponbidea ebaluatzeke eta horiek erregistratzeko prozedura definitu du.
- d) Baliabideetan eta jardueretan izan daitezkeen aldaketak kudeatzeko prozedura definitu du, horiek erregistratzeko sistema barne.
- e) Jarduerak eta proiektua ebaluatzeke beharrezko dokumentazioa definitu eta landu du.
- f) Erabiltzaileei edo bezeroei buruzko ebaluazioan parte hartzeko prozedura ezarri du, eta berariazko dokumentuak prestatu ditu.
- g) Hala badagokio, proiekturako baldintzen orria beteko dela ziurtatzeko sistema bat ezarri du.

5. Proiektua aurkeztu eta defendatzen du. Horretarako, eraginkortasunez erabiltzen ditu proiektua gauzatzean eta heziketa-zikloko ikasteko prozesuan bereganatutako kompetentzia teknikoak eta pertsonalak.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Proiektuari buruzko memoria-dokumentua egin du.



- b) Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabiliko dituen aurkezpena prestatu du.
- c) Proiektuaren azalpena egin du, eta, horretarako, proiektuaren helburuak eta eduki nagusiak deskribatu ditu eta bertan jasotzen diren ekintza-proposamenak aukeratu izana justifikatu du.
- d) Azalpenean komunikazio-estilo egokia erabili du eta, ondorioz, azalpen antolatua, argia, atsegina eta eraginkorra lortu du.
- e) Proiektua defendatu du, eta arrazoituta erantzun die epaimahai ebaluatzaileak planteatzen dituen galderari.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulu honen helburua da heziketa-ziklo osoan zehar landu diren kompetentzia profesionalak, pertsonalak eta sozialak indartu eta finkatzea. Horretarako, talde-proiektu bat garatuko da.

Bi edo hiru ikasleko taldeak osatzea izango da lehen urratsa. Talde horien bidez ikasle guztiak proiektuaren garapenean inplika daitezten lortuko da. Talde homogeenak eta kompetentzia osagarriak izango dituztenak ezartzen saiatuko da.

Taldearen lehen eginkizuna garatu beharreko proiektua aukeratzea izango da. Modulu hau denboran bat datorrenez "Lantokiko prestakuntza" moduluarekin, praktikak egiten direneko enpresa ideia-iturri egokia izan daiteke proiekturako. Nolanahi ere, komenigarria izango da tutoreak garatu ahal izango diren zenbait proiektu teknikoki bideragarri eskura izatea.

Ondoren, proiektua garatzeko eredu bati jarraituz, haren faseak landuko dira:

- Diseinua.
- Plangintza:
- Gauzatzea eta jarraipena egitea.
- Amaiera eta ebaluazioa.

Azkenik, talde bakoitzak proiektuaren aurkezpena eta defentsa prestatu eta gauzatuko du, eta, horretarako, informazioaren eta komunikazioaren teknologietan oinarritutako aurkezpen-teknikak erabiliko ditu.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu hau antolatzeko garaian, irakatsi eta ikasteko metodologia aktiboak erabiltzea proposatzen da, hala nola talde-lana eta PBL-AOI (*Problem Based Learning*, Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza). Zehazki, zikloko zenbait moduluren kompetentziak zeharka bilduko dituzten proiektuen garapenean berriaz oinarritutako PBL metodologia erabil daiteke. Metodologia horiek problemak identifikatzera behartzen dute ikaslea, horiek konpontzeko hautabideak bilatzera, horretarako beharrezko baliabideak abian jartzera eta informazioa behar bezala kudeatzera.

Gainera, metodologia horiek bakarlaneko uneak sustatzen dituzte, eta lan horiek garrantzi handikoak dira taldea osatzen duten ikasleetako bakoitzak proiektua defendatzean erakutsi beharko dituen ezagutzak eta kompetentziak eskuratzeko.

Bestalde, talde-lanak harreman-kompetentziak garatzen ditu ikasleengan, eta taldeen funtzionamenduarekin eta ondoriozko guztiarekin ohitzen ditu ikasleak: talde-antolamenduarekin, rolen eta zereginen banaketarekin, pertsonen arteko komunikazioarekin, gatazken ebazpenarekin, eta abar.

Ikasleen autoikaskuntza osatzeko, proiektu talde bakoitzari aldizka jarraipen bat egitea proposatzen da, ikaskuntza gidatzeko eta taldeari finkatutako helburuen barruan eusteko. Gainera, sortzen diren beharren arabera, laguntzako azalpen edo mintegiren bat programatzea gomendatzen da, proiektua garatzeko beharrezkoak diren berariazko edukiei edo metodologiei buruzko ezagupenetan gabeziak betetzeko.

Azkenik, talde bakoitzak landutako proiektuaren azalpen bat egitea proposatzen da, bi helburu hauekin:

- Proiektua garatzean ikasle bakoitzak bereganatutako kompetentzia teknikoak ebaluatzea.
- Komunikazioari dagokionez, ikasleen kompetentzia pertsonalak eta sozialak ebaluatzea.

Azalpena prestatu eta garatzeko, ikasleei teknologia berriak erabil ditzaten proposatuko zaie (diapositiba-aurkezpenak, web-orrien formatuak eta abar lantzeko informatika-aplikazioak). Horretarako, proiektzio-kanoiak eta ordenagailuak ere erabiliko dituzte, etorkizunean lanaren jardunean erabilgarriak izango dituzten erremintekin ohitzeko.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

Modulua ebaluatzeko garaian, garrantzitsua da proiektuaren –azken produktu gisa– eta proiektua egiteko jarraitu den prozesuaren ebaluazioa egitea. Talde-lanaren funtzionamenduari buruzko informazioa jaso beharko da, baita taldekide bakoitzak proiektuan eta zereginetan izandako inplikazioari buruzko informazioa, taldean sortutako zailtasunei buruzko informazioa, eta ikasle bakoitzak eskuratutako kompetentzia pertsonalei eta sozialei buruzko informazioa ere, besteak beste.

Era berean, kalifikazioaren zati batean, proiektuaren azalpenari eta defentsari buruz irakasleak egindako balorazioa jasotzea proposatzen da. Zehazki, azalpenaren ebaluazio-adierazleetako batzuk honako adierazle hauek izan daitezke:

- o Proiektuaren aurkezpenak duen diseinu-kalitatea.
- o Aurkezpena lagunduko duten baliabideen erabilera: informatika-baliabideak, ereduak, maketak, eta abar.
- o Azalpenaren argitasuna.
- o Azalpenaren antolamendua.
- o Azalpenaren bizitasuna.
- o Azalpenaren eraginkortasuna.
- o Erakutsitako komunikazio-trebetasunak: ahots-doinua, hitzeko adierazpena, hitzik gabeko komunikazioa...
- o Irakasle ebaluatzaileen taldeak egindako galderei erantzuteko gaitasuna.

Behar-beharrezkoa izango da taldeko ikasle guztiek bete-betean parte hartzea proiektua babestean. Horrela, norbanako ebaluazioa egin ahal izango da, eta ikasle bakoitzak proiektuko moduluarekin lotzen diren ikaskuntzaren emaitzak lortu dituela erakutsi ahal izango du. Hala, taldea osatzen duten kide guztiek proiektua garatzen lagundu dutela ziurtatzen saiatu beharko da.



- ✓ Azkenik, proiektuan parte hartzen duen talde bakoitzari erantzun xehatua ematea gomendatzen da. Erantzun horretan, produktuari buruzko ebaluazioaren, eta haren prozesuaren eta azalpenaren indarguneak eta ahulguneak azpimarratuko dira. Horrela, ikasleei lagundu egingo zaie aurrerantzean euren ibilbide profesionalean garatu eta azaldu beharreko proiektuetan egin litezkeen hobekuntzak identifikatzen.

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Ingeles teknikoa
Kodea:	E-200
Heziketa-zikloa:	Gizarteratzea
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	40 ordu
Kurtsoa:	2
Kreditu kop.:	
Irakasleen espezialitatea:	Ingelesa (Bigarren Hezkuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Zeharkako modulua
Helburu orokorrak:	Kualifikazioen Europako Esparruko funtsezko konpetentziak

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Tituluaren lanbide-esparruarekin, prestakuntza pertsonalarekin eta eskaintako produktuarekin/zerbitzuarekin lotutako ahozko informazioa interpretatu eta erabiltzen du, eta haren ezaugarriak eta propietateak, enpresa motak eta horien kokapena identifikatu eta deskribatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Zuzeneko mezuaren, telefono bidezkoaren edo entzunezko beste bitarteko baten bidezkoaren xedea ezagutu du.
- Ahozko mezu zehatzak adierazi ditu egoera puntualak ebazteko: hitzordu bat, produktu bat igortzeko/jasotzeko datak eta baldintzak, makina/gailu baten oinarrizko funtzionamendua.
- Ahozko argibideak ezagutu ditu eta enpresaren testuinguruan emandako adierazpenei jarraitu die.
- Sektorearen berezko produktuak edo zerbitzuak deskribatzeko termino tekniko zehatzak erabili ditu.
- Mezu bat bere elementu guzti-guztiak ulertu beharrik gabe orokorrean konprenitzea zeinen garrantzitsua den konturatu da.
- Emandako informazioen ideia nagusiak laburbildu ditu bere hizkuntza-baliabideak erabilita.
- Beharrezkotzat jo duenean diskurtsoa edo horren zati bat berriz formulatzeko eskatu du.
- Laneko elkarrizketa baterako aurkezpen pertsonala prestatu du.
- Lan-ingurunean garatu beharreko konpetentziak deskribatu ditu.



Sektorearen eta nazioarteko merkataritza-transakzioen berezko dokumentuak interpretatu eta betetzen ditu: ezaugarriei eta funtzionamenduari buruzko eskuliburua, eskabide-orria, jasotze-edo entrega-orria, fakturak, erreklamazioak.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Berariazko informazioa atera du eskainitako produktuarekin edo zerbitzuarekin lotutako mezuetatik (publizitate-liburuxkak, funtzionamenduari buruzko eskuliburua) eta bizitza profesionalarekin zerikusia duten eguneroko alderdietatik.
- b) Merkataritza-transakzioei buruzko dokumentuak identifikatu ditu.
- c) Euskarri telematikoan bitartez (e-posta, faxa) hartutako mezua interpretatu du: posta elektronikoa eta faxa, besteak beste.
- d) Sektoreko web-orri bateko oinarritzko informazioak identifikatu ditu.
- e) Dagokion lanbide-esparruko merkataritza-dokumentazioa eta berariazko dokumentazioa bete ditu.
- f) Lanbidearen berezko terminologia eta hiztegia zuzen erabili ditu.
- g) Aurkezpenetan eta agurretan, prestatu beharreko dokumentuaren berezko adeitasun-formulak erabili ditu.
- h) Bere lanbide-ingurunearekin erlacionatutako testuen laburpenak egin ditu.
- i) Profilarekin lotutako okupazioak eta lanpostuak identifikatu ditu.
- j) Bere kompetentziako lan-prozesu bat deskribatu eta sekuentziatu du.
- k) Lan-ingurunean garatu beharreko kompetentziak deskribatu ditu.
- l) Nork bere prestakuntza eta lanbide-kompetentziak aurkezteko Europako herrialdeetan erabilitako jarraibideen arabera Curriculum Vitae egin du.

3. Komunikazio-egoeretan jarrera eta portaera profesionalak identifikatu eta aplikatzen ditu, herrialde bakoitzarekin ezarritako protokolo-arauak eta haren ohiturak errespetatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Atzerriko hizkuntza hitz egiten den erkidegoko ohitura eta usadioen ezaugarri esanguratsuenak definitu ditu.
- b) Herrialdearen berezko gizarte- eta lan-harremanetako protokoloak eta arauak deskribatu ditu.
- c) Sektorearen berezko alderdi sozio-profesionalak identifikatu ditu edozein testu motatan.
- d) Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdearen berezko gizarte-harremanetako protokoloak eta arauak aplikatu ditu.
- e) Beste herrialde batzuetako berezko balioak eta ohiturak identifikatu ditu, eta jatorrizko herrialdekoekin lotu ditu, antzekotasunak eta desberdintasunak ezartzeko.

a) Oinarritzko edukiak

1. PROFILAREKIN LOTUTAKO AHOZKO MEZUAK ULERTU ETA SORTZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Sektoreko mezu profesionalak eta egunerokoak ezagutzea. - Zuzeneko mezuak, telefono bidezkoak eta grabatutakoak identifikatzea. - Ideia nagusia eta bigarren mailako ideiak bereiztea. - Beste hizkuntza-baliabide batzuk ezagutzea: gustuak eta lehentasunak, iradokizunak, argudioak, argibideak, baldintzaren eta zalantzaren adierazpena eta bestelakoak.
----------------	--

	<ul style="list-style-type: none"> - Ahozko mezuak igortzeko erabiltzen diren erregistroak hautatzea. - Ahozko diskurtsoa mantentzea eta jarraitzea: sostengua ematea, ulertzen dela erakustea, argitzeko eskatzea, eta bestelakoak. - Intonazioa, ahozko testuaren kohesio-baliabide gisa. - Nahikoa ulertzeko soinuak eta fonemak egoki sortzea. - Gizarte-harremanen markatzaile linguistikoak, adeitasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak hautatzea eta erabiltzea. - Laneko elkarrizketa bat prestatzea, dituen prestakuntza eta motibazio pertsonalak aurkezteko.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Sektoreko terminologia espezifikoak. - Gramatika-baliabideak: aditz-denborak, preposizioak, adberbioak, lokuzio preposizionalak eta adberbialak, pasiboaren erabilera, erlatibozko perpausak, zehar-estiloa, eta bestelakoak. - Hots eta fonema bokalikoak eta kontsonantikoak. Konbinazioak eta elkarreak. - Lan-elkarrizketa baten gaikako atalak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Atzerriko hizkuntzak lanbide-munduan duen garrantziaz konturatzeko. - Ulertzeko eta ulertarazteko interesa izatea eta hori errespetatzea. - Informazio-trukean bete-betean parte hartzea. - Atzerriko hizkuntzan komunikatzeko norberaren gaitasunaz jabetzea. - Hizkuntza bakoitzaren berezko adeitasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak errespetatzea.

2. PROFILAREKIN LOTUTAKO IDATZIZKO MEZUAK INTERPRETATU ETA ADIERAZTEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Mezuak formatu desberdinetan ulertzea: eskuliburuak, liburuxkak, eta oinarrizko artikulua profesionalak eta egunerokoak. - Ideia nagusia eta bigarren mailako ideiak bereiztea. - Erlazio logikoak ezagutzea: aurkakotasuna, kontzesioa, konparazioa, baldintza, kausa, helburua, emaitza. - Denbora-erlazioak bereiztea: aurrekotasuna, gerokotasuna, aldiberekotasuna. - Sektorearen berezko testu erraz profesionalak eta egunerokoak lantzea. - Puntuazio-markak erabiltzea. - Lexikoa hautatzea, egitura sintaktikoak hautatzea, horiek egoki erabiltzeko eduki adierazgarria hautatzea. - Testu koherenteak lantzea. - Lan-ingurunearekin lotzen den lan-eskaintza bateko iragarkien atalak ulertzea. - Norberaren profilarekin lotzen den lan-eskaera egitea: curriculum eta motibazio-gutuna.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Euskarri telematikoak: <i>faxa posta elektronikoa</i>, burofaxa, web-orriak. - Hizkuntzaren erregistroak. - Nazioarteko transakzioekin lotutako dokumentazioa: eskabide-orria, jasotze-orria, faktura. - Europako Curriculum Vitaearen eredua. - Heziketa-zikloarekin lotutako konpetentziak, lanbideak eta lanpostuak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ulertzeko eta ulertarazteko interesa izatea eta hori errespetatzea. - Beste kultura batzuen alderdi profesionalakiko interesa erakustea. - Beste kultura eta gizarteetako ohiturak eta pentsamoldea errespetatzea.



	- Testuaren garapenean koherenziaren premia balioestea.
--	---

3. HERRIALDEAREN BEREZKO ERREALITATE SOZIOKULTURALA ULERTZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Komunikazio-egoera bakoitzerako kultura-elementurik esanguratsuenak interpretatzea. - Enpresaren irudi ona proiektatzeko portaera sozioprofesionala eskatzen duten egoeretan baliabide formalak eta funtzionalak erabiltzea.
kontzeptuzkoak	- Atzerriko hizkuntza (ingelesa) mintzaten den herrialdeen elementu soziolaboral esanguratsuenak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Nazioarteko harremanetan arau soziokulturalak eta protokoloak balioestea. - Bestelako usadioak eta pentsamoldeak errespetatzea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Eduki-multzoen aurkezpenak prestakuntza-prozesua errazten ez duenez eta horren premiei erantzuten ez dienez, behar-beharrezkoa da multzo horiekin laneko testuinguruko hizkuntza-komunikazioko egoera bati konponbidea aurkitzeko beharrezkoak diren ulermenezko eta adierazpenezko gaitasunak lortzeari lehentasuna emango dien ibilbide didaktiko bat antolatzea.

Modulu honen programazioa antolatzeko, prozedurek irakasteko prozesua zuzen dezaten proposatzen da, berebiziko garrantzia baitute hizkuntza bat komunikazio-tresna gisa irakasteko. Gainera, berehala erabilgarri izateak motibazioa sortzen du irakasleengan. Lanbidearen berezko komunikazio-egoera batek prozedura jakin batzuk dakartza eta horiek kontrolpean izan behar dira egoera eraginkortasunez konponduko bada. Eduki lexikalek, morfologikoek eta sintaktikoek ez lukete inongo zentzurik, ulertu edo adierazi behar den mezu bat eraman edo transmitituko ez balute.

Horrenbestez, oinarritzko lau hizkuntza-gaitasunak, hots, entzumena, irakurmena, mintzamina eta idazmina garatzea da lortu beharreko helburua.

Ikasleek nolabaiteko segurtasunarekin moldatu beharko dute atzerriko hizkuntzan beren lanpostuak aurkezten dizkien egoeren aurrean.

Irakasleek erabiliko dituzten metodologia eta materialak alde batera utzirik, lanbidearen berezko egoera erraz bat aukeratzea oso baliagarria izango da ikasleak beren ikaskuntzan bertan inplikatzeko. Egoera horren inguruan antolatuko dira dagozkion gramatika-egiturak (aditz-denbora, hiztegia, eta abar), hizkuntza-erregistroarekin, arau edo protokolo sozial eta/edo profesional egokiekin batera.

Beharbada komenigarria izango litzateke hasieran modulua ikasleei aurkeztean horiekin batera gogoeta egitea, etorkizunean bizitza profesionalean aurrez aurre izango dituzten

egoera ohikoenak zein izango diren ondorioztatzeko, eta lan egingo duten produkzio-sektorean atzerriko hizkuntza zein beharrezkoa izango duten eta beste ohitura eta kultura batzuetara irekitzea zein aberasgarria izango den konturatzeko. Gogoeta horrek ikasteko aukeretan irimotu beharko lituzke, gero eta autonomoagoak izan daitezen eta sortzen zaizkien arazoak konpontzeko gaitasuna izan dezaten beren lanpostuetan daudenean. Komenigarria da atzerriko hizkuntzak zikloko beste modulu batzuekin duen zeharkako erlazioa behin eta berriz azpimarratzea, jakitun izan daitezen zein lanbide-profiletarako prestatzen ari diren.

Azkenik, kontuan izan behar da, halaber, aurreko hezkuntza-etaparen ondorio den ingelesezko oinarrizko prestakuntza. Esperientziak erakusten digunez, ikaskuntza horretan zehar eskuratutako lorpenak askotarikoak izaten dira, gazte bakoitzaren idiosinkrasia pertsonalaren parekoak ia.

Komunikazio-gaitasun batzuk urriak direla irizten bazaio edo taldearen aniztasunean oinarrizko ezagutzak homogeneizatu beharra antzematen bada, dagozkion ezagutzak osatu edo indartzeari ekingo zaio. Horretarako beharrezkoak diren unitate didaktikoak definituko dira.

2) Alderdi metodologikoak

Hizkuntza lanbide-munduan komunikatzeko tresna bezala ulertuta, metodo aktiboa eta parte-hartzailea erabiltzen da ikasgelan.

Ahozko hizkuntzari garrantzi berezia eman beharko zaio, egungo egoera profesionalak eta globalizazioak hori eskatzen baitute.

Ikasgelan ingelesa erabiltzen da beti eta irakasleak etengabe bultzatzen ditu ikasleak hura erabiltzera, nahiz eta zuzen mintzatu ez. Irakasleak konfiantza eman beharko dio ikasle bakoitzari, komunikatzeko aukeren jakitun izan dadin, aukerak baditu-eta. Lehentasuna emango zaio mezuaren ulermenari zuzentasun gramatikalaren gainetik, eta ahoskera eta jariora azpimarratuko dira, mezua hartzailearengana igarotzeko baldintzatzaileak dira-eta.

Talde-lanak gazteen hasierako lotsa gainditzeko laguntzen du. Halaber, audio- eta bideo-grabazioak erabiliko dira, bere burua behatzeak eta bere akatsak aztertzeak ikaskuntza bere alderdi neketsuenean hobetzen lagun diezaion ikasleari, hots, ahozko mezuak sortzen. ahozko mezuak sortzea. Hizkuntza bat ikasteak pertsonaren alderdi guztiak mobilizatzea eskatzen du, oso jarduera konplexua da-eta.

Irakasteko eta ikasteko prozesuan aplikatutako komunikazio-metodologia sektoreko enpresak (ahal dela ingelesak) bisitatuz edo jarduneko langileak gonbidatuz aberats daiteke. Hartara, lanbide-inguruetik datozen eta lan-esperientzia duten horiek lanpostuaren ikuspegia, zailtasunak eta abantailak azalduko dizkiete etorkizuneko profesionalari.

Metodo/testuliburu bat eta metodoak berak dakarren ikus-entzunezko materiala erabiltzeaz gain, ikastetxeak dituen beste audio- eta bideo-euskarri batzuk ere erabiliko dira, betiere lanbide-egoerak ardatz dituztenak. Halaber, benetako materialarekin lan egingo da (kartak, fakturak, gidak eta liburuxkak), eta web-orri ingelesak kontsultatuko dira.

Hizkuntza bat eskuratzea ikastunaren barne-faktore askoren emaitza da, eta pertsona bakoitzak behar, estilo, erritmo eta interes desberdinak ditu. Horregatik, beren beharretara egokitzen diren mota desberdinetako materialak (idatzizkoak, ahozkoak, irudiak, musika, teknologia berriak, eta abar) eskaini behar zaizkie ikasleei).



Teknologia berriak ezin dira ikaskuntzatik kanpo geratu, lan-munduan eta gizartean ere ez baitira kanpoan geratuko: Internet, e-posta, burofaxa, etab. Internet, posta elektronikoa, burofaxa, eta abar.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

Irakasleek dinamizatzailerik eta bideratzaile gisa jardungo dute ikasgelan ahozko ingelesa erabil dadin, egoerak ahalik eta sinesgarrienak izan daitezten, eta ikasleak ahalik eta gehien inplikaturik dituzte beren ikaskuntzan eta materiala bilatzeko eta erabiltzeko lanetan.

- ✓ Lehentasunez lanbide-inguruneari dagozkion materialak erabiltzea: erabilera-eskuliburuak, liburuxkak, piezen edo produktuen krokisak, zenbakiak, datak, orduak, eskaintako produktuaren edo zerbitzuaren ezaugarri deskribatzaileak.
- ✓ Sektoreko enpresei edota produktuei eta zerbitzuei buruzko ingelesezko publizitate-materialak aztertzea, erabilitako hiztegi teknikoa eta adjektiboak barne.
- ✓ Arazo errazak konpontzea: bezeroen galderak, istripu txikiak, unean uneko azalpenak.
- ✓ Bisitan datorren bezero atzerritar bati enpresaren edo lanpostuaren inguruko informazio laburrak ematea.
- ✓ Unean uneko oharrak egitea norbaiti edo norbaiten mandatua uzteko, zereginari buruzko zehaztasunak emateko, entregatzeko datak edo kantitateak adierazteko, sortutako arazoen berri emateko.
- ✓ Lanpostu baterako curriculum vitae aurkeztea txartel eragingarriarekin batera, prentsako edo telebistako lan-iragarki bat ulertzea, etab.
- ✓ Faktura / ordainketa-gutuna edota bidalketa/entrega baten onarpena aurkeztea eta azaltzea.

Ikasgelan lanbidearen egoera bat simulatzen duen ikasle talde baten elkarrizketak bidez grabatzea, geroago aztertzeko.

13

13. lanbide-modulua

LANEKO PRESTAKUNTZA ETA ORIENTABIDEA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Laneko prestakuntza eta orientabidea
Kodea:	0346
Heziketa-zikloa:	Gizarteratzea
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	99 ordu
Kurtoa:	1
Kreditu kop.:	5
Irakasleen espezialitatea:	Laneko prestakuntza eta orientabidea (Bigarren Hezkuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Zeharkako modulua
Helburu orokorrak:	16 / 17 / 20 / 22

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Lan-munduan txertatzeko eta bizialdi osoko ikaskuntzako hautabideak identifikatu ondoren, lan-aukerak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Etengabeko prestakuntzaren garrantzia baloratu du, enplegatze aukerak zabaltzeko eta produkzio-prozesuaren eskakizunetara egokitzeko funtsezko faktore gisa.
- Tituluaren lanbide-profilari lotutako prestakuntza-ibilbidea eta ibilbide profesionala identifikatu ditu.
- Profilari lotutako lanbide-jarduerarako eskatzen diren gaitasunak eta jarrerak zehaztu ditu.
- Tituludunarentzako enplegu-sorgune eta lan-munduratzeko gune nagusiak identifikatu ditu.
- Lana bilatzeko prozesuan erabiltzen diren teknikak zehaztu ditu.
- Tituluari lotutako lanbide-sektoreetan autoenplegurako hautabideak aurreikusi ditu.
- Erabakiak hartzeko nortasuna, helburuak, jarrerak eta norberaren prestakuntza baloratu ditu.

2. Talde-laneko estrategiak aplikatzen ditu, eta erakundearen helburuak lortzeko duten eraginkortasuna baloratzen du.

Ebaluazio-irizpideak:



- a) Profilaria lotutako lan-egoeretan talde-lanak dituen abantailak baloratu ditu.
- b) Benetako lan-egoera batean osa daitezkeen lan-taldeak identifikatu ditu.
- c) Lan-talde ez-eraginkorraren aldean, talde eraginkorrak dituen ezaugarriak zehaztu ditu.
- d) Taldekideek bere gain hartutako denetako eginkizunen eta iritzien beharra ontzat baloratu du.
- e) Taldekideen artean gatazkak sortzeko aukera erakundeen alderdi ezaugarritzat onartu du.
- f) Gatazka motak eta horien sorburuak identifikatu ditu.
- g) Gatazkak konpontzeko prozedurak zehaztu ditu.

3. Lan-harremanen ondoriozko eskubideak baliatu eta betebeharrak betetzen ditu, eta lan-kontratuetan horiek onartzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Lan-zuzenbidearen oinarriko kontzeptuak identifikatu ditu.
- b) Enpresaburuaren eta langileen arteko harremanetan esku hartzen duten erakunde nagusiak bereizi ditu.
- c) Laneko harremanaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak zehaztu ditu.
- d) Kontratazio modalitate nagusiak sailkatu ditu, eta kolektibo jakin batzuentzat kontratazioa sustatzeko neurriak identifikatu ditu.
- e) Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egiteko indarrean dagoen legeriak ezarritako neurriak baloratu ditu.
- f) Laneko harremanak aldatu, eten eta deuseztatzearen arrazoiak eta ondorioak identifikatu ditu.
- g) Soldata-ordainagiria aztertu du eta haren osagai nagusiak identifikatu ditu.
- h) Gatazka kolektiboko neurriak eta gatazkak ebazteko prozedurak aztertu ditu.
- i) Tituluarekin zerikusia duen lanbide-sektore bati aplikatzekoa zaion hitzarmen kolektiboan adostutako lan-baldintzak zehaztu ditu.
- j) Lan-antolamenduaren ingurune berrien ezaugarriak identifikatu ditu.

4. Estalitako kontingentzien aurrean, Gizarte Segurantzako sistemaren babes-ekintza zehazten du eta prestazio mota guztiak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko funtsezko oinarri gisa baloratu du Gizarte Segurantzaren eginkizuna.
- b) Gizarte Segurantzak estaltzen dituen kontingentziak adierazi ditu.
- c) Gizarte Segurantzako sistemaren dauden araubideak identifikatu ditu.
- d) Gizarte Segurantzako sistemaren barruan enpresaburuaren eta langilearen irudiak dituen betebeharrak identifikatu ditu.
- e) Suposizio simple batean, langilearen kotizazio-oinarriak, eta langilearen eta enpresaburuaren irudiari dagozkion kuotak identifikatu ditu.
- f) Gizarte Segurantzako sistemaren prestazioak sailkatu eta eskakizunak identifikatu ditu.
- g) Legez egon daitezkeen langabezia-egoerak zehaztu ditu.
- h) Oinarriko kontribuzio mailari dagokion langabezia-prestazioaren iraupena eta kopurua kalkulatu ditu.

5. Bere jardueraren ondoriozko arriskuak ebaluatzen ditu, lan-inguruneke lan-baldintzak eta arrisku-faktoreak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Enpresaren esparru eta jarduera guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia baloratu du.
- b) Lan-baldintzak langilearen osasunarekin erlazionatu ditu.
- c) Jardueraren arrisku-faktoreak eta horien ondoriozko kalteak sailkatu ditu.
- d) Tituluaren lanbide-profilari lotutako lan-ingurunean ohikoenak diren arrisku-egoerak identifikatu ditu.
- e) Enpresan dauden arriskuak ebaluatu ditu.
- f) Lanbide-profilari lotutako lan-inguruneetan, prebentziorako garrantzitsuak diren lan-baldintzak zehaztu ditu.
- g) Tituluaren lanbide-profilari lotutako kalte profesionalen motak sailkatu eta deskribatu ditu, bereziki lan-istripuei eta lanbide-gaixotasunei dagokienez.

6. Enpresa txiki batean, arriskuen prebentziorako plana egiten laguntzen du, inplikaturako agente guztien erantzukizunak identifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Laneko arriskuen prebentzioan dauden eskubide eta betebeharrak nagusiak zehaztu ditu.
- b) Enpresan prebentzioa kudeatzeko moduak sailkatu ditu, laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudian ezarritako irizpideen arabera.
- c) Arriskuen prebentzioari dagokionez, enpresan langileak ordezkatzeko moduak zehaztu ditu.
- d) Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak identifikatu ditu.
- e) Enpresan, larrialdirik izanez gero jarraitu beharreko jardun-sekuentziak barne hartuko duen prebentzio-plana izatearen garrantzia baloratu du.
- f) Tituludunaren lanbide-sektorearekin lotutako lantoki baterako prebentzio-planaren edukia zehaztu du.
- g) Enpresa txiki edo ertain baterako larrialdi- eta ebakuazio-plan bat pentsatu du.

7. Prebentzio- eta babes-neurriak aplikatzen ditu, eta tituluari lotutako lan-inguruneako arrisku-egoerak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Kalteak sorburuan saihesteko eta, saihestezinak badira, haien ondorioak ahalik eta gehien murrizteko aplikatu behar diren prebentzio-teknikak, eta norbera eta taldea babestekoak zehaztu ditu.
- b) Mota guztietako segurtasun-seinaleen esanahia eta hedadura aztertu ditu.
- c) Larrialdietarako jardun-protokoloak aztertu ditu.
- d) Larrialdietan, larritasun-maila desberdinetako biktimak daudenean, zaurituak sailkatzeko teknikak identifikatu ditu.
- e) Istripuaren lekuan bertan hainbat kalteren aurrean aplikatu beharreko lehen laguntzetako oinarritzko teknikak identifikatu ditu, baita botikinaren osaera eta erabilera ere.
- f) Langileen osasuna zaintzeko eskakizunak eta baldintzak zehaztu ditu, eta prebentzio-neurri gisa duten garrantzia adierazi du.

c) Oinarritzko edukiak:



prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lan-ibilbiderako interes, gaitasun eta motibazio pertsonalak aztertzea. - Tituluari lotutako prestakuntza-ibilbideak identifikatzea. - Tituluaren lanbide-sektorea definitzea eta aztertzea. - Norberaren ibilbidea planifikatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Beharrekina eta hobespenekin bateragarriak izango diren epe ertain eta luzerako lan-helburuak ezartzea. • Uneko eta gerorako pentsatutako prestakuntzarekiko helburu errealistak eta koherenteak. - Ibilbide-planaren, prestakuntzaren eta helburuen arteko koherentzia norberak egiaztatzen zerrenda bat ezartzea. - Lan-munduratzeko beharrezko dokumentuak betetzea (aurkezpen-gutuna, curriculum vitae...), eta test psikoteknikoak eta elkarrizketa simulatuak egitea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lana bilatzeko teknikak eta tresnak. - Erabakiak hartzeko prozesua. - Sektorerako enpresa txiki, ertain eta handietan lana bilatzeko prozesua. - Europar ikasi eta enplegatze aukerak. Europass, Ploteus.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Tituludunaren lan- eta lanbide-ibilbiderako etengabeko prestakuntzak duen garrantzia balioestea. - Norberaren ikaskuntzaz arduratzea. Eskakizunak eta aurreikusitako emaitzak ezagutzea. - Autoenplegua lan-munduan txertatzeko hautabidetzat balioestea. - Lan-munduan egoki txertatzeko lan-ibilbideak balioestea. - Lanarekiko konpromisoa izatea. Lortutako trebakuntza baliaraztea.

2. GATAZKAK ETA LANTALDEAK KUDEATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Antolakundea pertsona talde gisa aztertzea. - Antolamendu-egiturak aztertzea. - Kideek lan-taldean izan ditzaketen eginkizunak aztertzea. - Antolakundeetako gatazken sorrera aztertzea: espazioak, ideiak eta proposamenak partekatzea. - Gatazka motak, esku-hartzaileak eta horien abiapuntuko jarrerak aztertzea. - Gatazkek ebazteko moduak, bitartekotza eta jardunbide egokiak aztertzea. - Lan-taldeen sorrera aztertzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresa baten antolamendu-egitura, xede bat lortzeko pertsona-talde gisa. - Talde motak sektorerako industrian, dituzten eginkizunen arabera. - Lan-taldeen sorrera aztertzea. - Komunikazioa, taldeak sortzean arrakasta lortzeko oinarriko elementu gisa. - Lan-talde eraginkorraren ezaugarriak. - Gatazka zehaztea: haren ezaugarriak, sorburuak eta etapak. - Gatazkek ebazteko edo deuseztatze metodoak: bitartekotza, adiskidetzea eta arbitrajea.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresa-helburuak lortzeko pertsonen ekarpena balioestea. - Antolamenduaren eraginkortasunean talde-lanak dituen abantailak eta eragozpenak balioestea.

	<ul style="list-style-type: none"> - Talde-lanerako funtsezko faktoretzat komunikazioa balioestea. - Lan-taldeetan sor daitezkeen gatazkak ebazteko partaidetzazko jarrera izatea. - Gatazkak ebazteko sistemak aztertzea.
--	---

3. LAN KONTRATUAREN ONDORIOZKO LAN BALDINTZAK

<p>prozedurazkoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Lan-zuzenbidearen iturriak aztertzea eta hierarkiaren arabera sailkatzea. - Langileen Estatutuari buruzko Legearen Testu Bateginean arautzen diren lan-jardueren ezaugarriak aztertzea. - Kontratu-modalitate ohikoenak formalizatu eta alderatzea, haien ezaugarrien arabera. - Nomina interpretatzea. - Dagokion lanbide-jarduerako sektorerako hitzarmen kolektiboa aztertzea.
<p>kontzeptuzkoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Lan-zuzenbidearen oinarritzko iturriak: Konstituzioa, Europar Batasunaren zuzentarauak, Langileen Estatutua, Hitzarmen Kolektiboa. - Lan-kontrata: kontratuaren elementuak, ezaugarriak eta formalizazioa, gutxieneko edukiak, enpresaburuaren betebeharrak, enpleguari buruzko neurri orokorrak. - Kontratu motak: mugagabeak, prestakuntzakoak, aldi baterakoak, lanaldi partzialekoak. - Lanaldia: iraupena, ordutegia, atsedenaldiak (laneko egutegia eta jaiegunak, oporrak, baimenak). - Soldata: motak, ordainketa, egitura, aparteko ordainsariak, soldataz kanpoko eskuratzeak, soldata-bermeak. - Soldata-kenkariak: kotizazio-oinarriak eta ehunekoak, PFEZ. - Kontratua aldatu, eten eta deuseztatzea. - Sindikatuen ordezkariak: sindikatuaren kontzeptua, sindikatzeko eskubidea, enpresa-elkarteak, gatazka kolektiboak, greba, ugazaben itxiera. - Hitzarmen kolektiboa. Negoziazio kolektiboa. - Lan-antolamenduaren ingurune berriak: kanpora ateratzea, telelana...
<p>jarrerazkoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Lana arautzeko beharra balioestea. - Dagokion lanbide-jarduerako sektorearen lan-harremanetan aplikatzen diren arauak ezagutzeko interesa izatea. - Aurreikusitako legezko bideak laneko gatazken ebazpide gisa aintzat hartzea. - Langileen kontratazioan etika eskaseko eta legez kanpoko jardunak baztertzea, batez ere premia handienak dituzten kolektiboetara dagokienez. - Gizartea hobetzeko agente gisa, sindikatuen eginkizuna aintzat hartu eta balioestea.

4. GIZARTE SEGURANTZA, ENPLEGUA ETA LANGABEZIA

<p>prozedurazkoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte Segurantzako sistema orokorra unibertsala izateak duen garrantzia aztertzea. - Gizarte Segurantzaren prestazioei buruzko kasu praktikoak ebaztea.
<p>kontzeptuzkoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte Segurantzako sistema: aplikazio-esparrua, egitura, araubideak, erakunde kudeatzaileak eta laguntzaileak.



	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresaburuen eta langileen betebeharrak nagusiak Gizarte Segurantzaren arloan: afiliazioak, altak, bajak eta kotizazioa. - Babes-ekintza: osasun-asistentzia, amatasuna, aldi baterako ezintasuna eta ezintasun iraunkorra, baliaezintasun gabeko lesio iraunkorrak, erretiroa, langabezia, heriotza eta biziraupena. - Prestazioen motak, eskakizunak eta kopurua. - Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzeko sistemak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko Gizarte Segurantzaren eginkizuna aintzat hartzea. - Gizarte Segurantzarako kotizazioan nahiz prestazioetan iruzurrezko jokabideak gaitzestea.

5. ARRISKU PROFESIONALAK EBALUATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lan-baldintzak aztertu eta zehaztea. - Arrisku-faktoreak aztertzea. - Segurtasun-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea. - Ingurumen-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea. - Baldintza ergonomikoei eta psikosozialei lotutako arriskuak aztertzea. - Enpresaren arrisku-esparruak identifikatzea. - Lanbide-eginkizunaren araberrako arrisku-protokoloa ezartzea. - Lan-istripuaren eta lanbide-gaixotasunaren artean bereiztea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Arrisku profesionalaren kontzeptua. - Enpresan arriskuak ebaluatzea, prebentzio-jardueraren oinarritzko elementu gisa. - Profilari lotutako lan-ingurunearen berriazko arriskuak. - Antzemandako arrisku-egoeren ondorioz langilearen osasunean eragin daitezkeen kalteak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lanbide-jardueraren fase guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia ezagutzea. - Lanaren eta osasunaren arteko lotura balioestea. - Prebentzio-neurriak hartzeko interesa azaltzea. - Enpresan prebentziorako prestakuntza ematearen garrantzia balioestea.

6. ENPRESAN ARRISKUEN PREBENTZIOA PLANIFIKATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Planifikazio- eta sistematizazio-prozesuak bideratzea, oinarritzko prebentzio-tresna gisa. - LAP Laneko Arriskuaren Prebentziorari buruzko oinarritzko araua aztertzea. - LAParen arloko egitura instituzionala aztertzea. - Lan-ingurunerako larrialdi-plan bat egitea. - Zenbait larrialdi-plan bateratu eta aztertzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lanak giza osasunean eta segurtasunean dituen ondorioak. - Eskubideak eta betebeharrak laneko arriskuaren prebentzioaren arloan. - Erantzukizunak laneko arriskuaren prebentzioaren arloan. - LAPean eta osasunean esku hartzen duten agenteak, eta horien

	eginkizunak. - Prebentzioaren kudeaketa enpresan. - Langileen ordezkaritza prebentzioaren arloan (LAPeko oinarrizko teknikaria). - Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak. - Prebentzioaren plangintza enpresan. - Larrialdi- eta ebakuazio-planak lan-inguruneetan.
jarrerazkoak	- LAParen garrantzia eta beharra balioestea. - LAPeko eta LO Laneko Osasuneko agente gisa duen posizioa balioestea. - Erakunde publikoek eta pribatuek LOan errazago sartzeko egindako aurrerapenak balioestea. - Dagokion kolektiboaren larrialdi-planei buruzko ezagutza baloratu eta zabaltzea.

7. ENPRESAN PREBENTZIO ETA BABES NEURRIAK APLIKATZEA

prozedurazkoak	- Norbera babesteko teknikak identifikatzea. - Norbera babesteko neurriak erabiltzeko garaian enpresak eta banakakoek dituzten betebeharrak aztertzea. - Lehen sorospenetako teknikak aplikatzea. - Larrialdi-egoerak aztertzea. - Larrialdietarako jardun-protokoloak egitea. - Langileen osasuna zaintzea.
kontzeptuzkoak	- Banako eta taldeko prebentzio- eta babes-neurriak. - Larrialdi-egoera batean jarduteko protokoloa. - Larrialdi medikoa / lehen laguntzak. Oinarrizko kontzeptuak. - Seinale motak.
jarrerazkoak	- Larrialdien aurreikuspena balioestea. - Osasuna zaintzeko planen garrantzia balioestea. - Proposatutako jardueretan bete-beteen parte hartzea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Edukiak sekuentziatu eta antolatzeko proposamen hau ikasleak egiten ari den heziketa-zikloa amaitzean jarraituko duen lan-munduratzeko ibilbidearen logikan oinarritzen da, hau da: zikloa amaitzen duenetik lana lortu eta lan horretan finkatu arte edota lan-harremana amaitu arte eman beharko dituen urratsak.

Ikasleak jarraituko duen ibilbideak 4 une hauek izango ditu:

- a) Lana bilatzea.
- b) Enpresan sartzeko eta egokitze aldia.
- c) Lanpostuan jardutea.
- d) Lan-harremana amaitzea eta enpresa uztea.



a) Lana bilatzea:

Heziketa-zikloa amaitu ondoren ikasleak egin beharreko lehen gauza lana bilatzea da, eta hori da LPO modulua hasieran eduki horiek garatzeko proposamenaren arrazoia. Zehazki, gai hauei buruzko edukiak garatuko dira:

- Lanbide-proiektua eta -helburua.
- Europan lan egin eta ikasteko aukerak.
- Lan publikoan, pribatuan edo norberaren konturakoan sartzea.
- Lana bilatzeko informazio-iturriak.

b) Enpresan sartzea eta egokitze aldia:

Jarraian, ikasleak lana bilatzeko prozesuan arrakasta izan badu, enpresan sartzeko garaia iritsiko zaio. Lan-bizitzaren aldi horretan, honako eduki hauekin lotutako gaitasunak erabili beharko ditu:

- Lan-zuzenbidea eta haren iturriak.
- Lan-harremanen ondoriozko eskubideak.
- Kontratazio modalitateak eta kontratazioa bultzatzeko neurriak.
- Gizarte Segurantzako sistema.
- Laneko hitzarmen kolektiboak.
- Enpresan sartzeko informazio-iturriak.

c) Lanpostuan jardutea:

Lanpostu berrian sartu eta egokitze aldi hasierako aldia gaindituta, lanpostuan jarduteko aldia etorriko da. Aldi horrek legez jasotako edozein suposiziotan lan-harremana amaitu arte iraungo du. Hona hemen aldi horrekin lotutako edukiak:

- Lan-baldintzak: soldata, lanaldia eta laneko atsedena.
- Soldataren edo nominaren agiria eta horren edukiak.
- Gizarte Segurantza: prestazioak eta izapideak.
- Kontratua aldatu eta etetea.
- Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzea.
- Langileen ordezkariak.
- Negoziazio kolektiboak.
- Laneko gatazka kolektiboak.
- Talde-lana.
- Gatazka.
- Lan-antolamenduaren ingurune berriak.
- Langileentzako onurak antolamendu berrietan.
- Arrisku profesionalak.
- Prebentzio- eta babes-neurriak planifikatu eta aplikatzea.

d) Lan-harremana amaitzea eta enpresa uztea:

Lan-harremana amaituz gero, ikasleak aldi horri aurre egiteko beharrezko gaitasunak izan beharko ditu. Eduki hauek garatu behar dira:

- Lan-kontratua deuseztatzea eta horren ondorioak.
- Hartzekoen likidazioa edo kitatzea.
- Gizarte Segurantzarekin lotutako izapideak: bajak.
- Kontzeptua eta egoera babesgarriak langabezia-babesean.
- Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatze sistemak.

Lan-harremana amaitzegtik ikasleak enpresan jarraitzen ez badu, lana bilatzeko prozesuari ekin beharko dio berriz ere, enpresan sartzeko aldi berri bat hasiko du, etab.

2) Alderdi metodologikoak

Hasiera batean, egokia dirudi irakasleak moduluaren edukiak aurkeztu eta garatzea, hurbileneko gizarte- eta ekonomia-ingurunea erreferente gisa hartuta betiere.

Bigarren fasean, garrantzi handiagoa emango zaio ikaslearen partaidetza eraginkorrari. Horretarako, kontzeptuak zehazteko, eta abileziak eta trebeziak garatzeko bidea emango dioten jarduerak egingo dira: ikaslearen esperientzia pertsonalak azaltzea, prentsa-albisteak erabiltzea, IKTak (Informazio eta Komunikazio Teknologiak) erabiltzea.

Talde-lanari eta sortzen diren gatazkei buruzko atala jorratzeko, ikasgelaren ingurunean izaten diren gatazkak, ikasle eta irakasleen arteko harremanak, familiako eta lagun arteko gatazkak... erabil daitezke; aldean portaerak eta arazoaren konponbideak aztertzearen.

Modulua garatzean, egokia dirudi adituen laguntzara jotzea (enpresa-batzordeetako kideak, sindikatu-etako ordezkariak, lan-arloko abokatuak, etab.), laneko egoerak eta gatazkak hurbiletik ezagutzeko.

Laneko arriskuen prebentzioari dagokionez, egokia dirudi lehen laguntzetako eta suteak itzaltzeko praktikak egitea, lantokietara bisitak egitea... Horretarako, erakundearen laguntza behar da, hala nola: Gurutze Gorria, Osalan, Lan Ikuskaritza, suteak itzaltzeko zerbitzuak... Kontuan izan behar da ikasleak, modulua gainditu ondoren, laneko arriskuen prebentzioko oinarritzko mailako jardueretarako beharrezkoak diren lanbide-erantzukizunak hartzen dituela.

Gainera, metodologiari dagokionez, komeni da moduluaren edukiak metodologia aktiboen bidez garatzea, hala nola: talde-lana eta PBL-AOI arazoetan oinarritutako ikaskuntza.

Azkenik, lana bilatzeko teknikak behar bezala garatzeko, komeni da ikasleak benetako lan bat bilatzeko kasu praktikoen baten simulazioa egitea: zeregin horretarako gehien erabiltzen diren dokumentuak egitea (curriculumak, aurkezpen-gutuna) eta komunikabide ohikoenetan lan-eskaintzak hautatzea.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Erreferentziazko produkzio-sektorea deskribatzea:
 - Erreferentziazko produkzio-sektorearen bilakaera aztertzea.
 - Sektorrean enplegatzeak aukerak identifikatzea.
 - Estatistikak eta taula makroekonomikoak erabiltzea.
- ✓ Lan-harremanen motak eta lan-kontratazioen modalitateak identifikatzea:
 - Lan-zuzenbidearen iturriak aztertzea.
 - Lan-kontratazioaren formak identifikatzea.
 - Lan-kontratuaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak identifikatzea (gizarte-babeseko sistema barne dela).
- ✓ Lan-taldeak, eta gatazkak ebazteko teknikak zehaztea:
 - Lan-taldeen tipologia identifikatzea.
 - Gatazkak eta horiek ebazteko moduak aztertzea.



- ✓ Lanbide-jardunaren ondoriozko arrisku motak identifikatzea:
 - Lanbide-jardunak berekin dakartzan arriskuak ebaluatzea.
 - Laneko arriskuen prebentzio-teknikak identifikatzea.

- ✓ Prebentzio-plan jakin bat diseinatzea eta dauden beste batzuekin alderatzea:
 - Lehen laguntzetan erabiltzen diren teknikak identifikatzea.

- ✓ Lana bilatzeko erabiltzen diren baliabide motak deskribatzea:
 - Lana bilatzeko prozesuaren faseak identifikatzea.
 - Lana lortzeko beharrezko dokumentazioa betetzea.
 - IKTak lana bilatzeko tresna gisa erabiltzea.
 - Bizialdi osoko ikaskuntzaren garrantzia balioestea.

14. lanbide-modulua

ENPRESA ETA EKIMEN SORTZAILEA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Enpresa eta ekimen sortzailea
Kodea:	0347
Heziketa-zikloa:	Gizarteratzea
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	60 ordu
Kurtsoa:	2
Kreditu kop.:	4
Irakasleen espezialitatea:	Laneko prestakuntza eta orientabidea (Bigarren Hezkuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Zeharkako modulua
Helburu orokorrak:	17 / 25

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Ekimen sortzaileari lotutako gaitasunak ezagutu eta aintzat hartzen ditu, eta lanpostuen eta enpresa-jardueren ondoriozko eskakizunak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Berrikuntzaren kontzeptua, eta gizartearen aurrerabidearekin eta pertsonen ongizatearekin duen lotura identifikatu du.
- Kultura ekintzailearen kontzeptua, eta enpleguaren eta gizarte-ongizatearen sorburu gisa duen garrantzia aztertu du.
- Norberaren ekimenaren, sormenaren, prestakuntzaren eta lankidetzaren garrantzia baloratu du, jarduera ekintzailean arrakasta lortzeko ezinbesteko eskakizuntzat.
- Sektoreko enpresa txiki eta ertain bateko enplegatua lanerako ekimena aztertu du.
- Sektorean hasten den enpresaburu baten jarduera ekintzailea nola garatzen den aztertu du.
- Jarduera ekintzaile ororen elementu saihestezintzat aztertu du arriskuaren kontzeptua.
- Enpresaburuaren kontzeptua, eta enpresa-jarduera garatzeko beharrezko eskakizunak eta jarrerak aztertu ditu.

2. Enpresa txiki bat sortzeko aukera zehazten du, enpresa-ideia aukeratzen du eta haren bideragarritasuna oinarritzen duen merkatu-azterketa egiten du, jardun-ingurunearen gaineko eragina baloratuta eta balio etikoak gaineratuta.



Ebaluazio-irizpideak:

- a) Negozio-ideiak sortzeko prozesu bat garatu du.
- b) Tituluarekin lotutako negozio baten esparruan ideia jakin bat hautatzeko prozedura sortu du.
- c) Hautatutako negozio-ideiaren inguruko merkatu-azterketa egin du.
- d) Merkatu-azterketatik ondorioak atera ditu eta garatu beharreko negozio-eredua ezarri du.
- e) Negozio-proposamenaren balio berritzaileak zehaztu ditu.
- f) Enpresen gizarte-erantzukizunaren fenomeno eta enpresa-estrategiaren elementu gisa duen garrantzia aztertu ditu.
- g) Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten balantze soziala egin du, eta sorrarazten dituen kostu eta mozkin sozial nagusiak deskribatu ditu.
- h) Sektorako enpresetan, balio etikoak eta sozialak gaineratzen dituzten ohiturak identifikatu ditu.
- i) Tituluarekin zerikusia duen enpresa txiki eta ertain baten bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioari buruzko azterketa egin du.
- j) Enpresa-estrategia deskribatu du eta enpresaren helburuekin lotu du.

3. Enpresa-plan bat egiteko eta, ondoren, hura abiarazi eta eratzeko jarduerak egiten ditu. Dagokion forma juridikoa hautatzen du eta, horren arabera, legezko betebeharrak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Enpresa baten oinarrizko eginkizunak deskribatu ditu eta enpresari aplikatutako sistemaren kontzeptua aztertu du.
- b) Enpresaren ingurune orokorraren osagai nagusiak identifikatu ditu; batik bat, ingurune ekonomiko, sozial, demografiko eta kulturalarenak.
- c) Berariazko ingurunearen osagai nagusi diren heinean, bezeroekiko, hornitzaileekiko eta lehiakideekiko harremanek enpresa-jardueran duten eragina aztertu du.
- d) Sektorako ETE baten ingurunearen elementuak identifikatu ditu.
- e) Enpresa-kulturaren eta irudi korporatiboaren kontzeptuak, eta horiek enpresa-helburuekin duten lotura aztertu ditu.
- f) Enpresaren forma juridikoak aztertu ditu.
- g) Hautatutako forma juridikoaren arabera, enpresaren jabeek legez duten erantzukizun-maila zehaztu du.
- h) Enpresen forma juridikoetarako ezarritako tratamendu fiskala bereizi du.
- i) Indarrean dagoen legeriak ETE bat eratzeko exijitutako izapideak aztertu ditu.
- j) Erreferentziazko herrian sektoreko enpresak sortzeko dauden laguntza guztiak bilatu ditu.
- k) Enpresa-planean, forma juridikoa aukeratzearekin, bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioarekin, administrazio-izapideekin, diru-laguntzekin eta bestelako laguntzekin zerikusia duen guztia barne hartu du.
- l) ETE bat abian jartzeko dauden kanpoko aholkularitza eta administrazio-kudeaketako bideak identifikatu ditu.

4. ETE baten oinarrizko kudeaketa administratibo eta finantzarioko jarduerak egiten ditu: kontabilitate- eta zerga-betebehar nagusiak identifikatzen ditu, eta dokumentazioa betetzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Kontabilitatearen oinarrizko kontzeptuak eta kontabilitate-informazioa erregistratzeko teknikak aztertu ditu.
- b) Kontabilitate-informazioa aztertzeke oinarrizko teknikak deskribatu ditu, batez ere, enpresaren kaudimenari, likideziari eta errentagarritasunari dagokienez.

- c) Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten zerga-betebeharrak zehaztu ditu.
- d) Zerga-egutegian zerga motak bereizi ditu.
- e) Sektoreko enpresa txiki eta ertain batentzako merkataritza eta kontabilitateko oinarriko dokumentazioa bete du (fakturak, albaranak, eskabide-orriak, kanbio-letrak, txekeak eta bestelakoak), eta dokumentazio horrek enpresan egiten duen bidea deskribatu du.
- f) Banku-finantzaketako tresna nagusiak identifikatu ditu.
- g) Dokumentazio hori enpresa-planean barne hartu du.

c) Oinarriko edukiak:

1. EKIMEN SORTZAILEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Tituluari lotutako sektorearen jardueran berrikuntzak dituen ezaugarri nagusiak aztertzea (materialak, teknologia, prozesuaren antolamendua, etab.). - Ekintzaileen funtsezko faktoreak aztertzea: ekimena, sormena, lidergoa, komunikazioa, erabakiak hartzeko gaitasuna, plangintza eta prestakuntza. - Jarduera ekintzailean arriskua ebaluatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Sektoreko berrikuntza eta garapen ekonomikoa. - Kultura ekintzailea gizarte-behar gisa. - Enpresaburu kontzeptua. - Ekintzaileen jarduna sektoreko enpresa bateko enplegatu gisa. - Ekintzaileen jarduna enpresaburu gisa. - Ekintzaileen arteko lankidetzak. - Enpresa-jardueran aritzeko eskakizunak. - Negozio-ideia lanbide-arloaren esparruan. - Kultura ekintzaileari lotutako jardunbide egokiak tituluari dagokion jarduera ekonomikoan eta toki-esparruan.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Izaera ekintzailea eta ekintzailetzaren etika balioestea. - Ekimena, sormena eta erantzukizuna balioestea ekintzailetzaren bultzatzaile gisa.

2. ENPRESA IDEIAK, INGURUNEA ETA HAIEN GARAPENA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresa-ideiak zehazteko tresnak aplikatzea. - Internet bidez, sektoreko enpresei buruzko datuak bilatzea. - Garatu beharreko enpresaren ingurune orokorra aztertzea. - Lanbide-arloko ereduak enpresa bat aztertzea. - Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea. - Merkatu-azterketaren ondorioetatik abiatuta, negozio-eredua ezartzea. - Erabakitako ideien gainean berrikuntza-eraketak egitea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresaren betebeharrak berariazko ingurunearekiko eta sozietate osoarekiko (garapen iraunkorra). - Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egitea. - Sektoreko enpresen erantzukizun soziala eta etikoa. - Merkatu azterketa: ingurunea, bezeroak, lehiakideak eta hornitzaileak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresaren balantze soziala aintzat hartu eta balioestea.



	<ul style="list-style-type: none"> - Genero-berdintasuna errespetatzea. - Enpresa-etika balioestea.
--	---

3. ENPRESA BATEN BIDERAGARRITASUNA ETA HURA ABIAN JARTZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Marketin-plana</i> finkatzea: komunikazio-politika, prezioen politika eta banaketaren logistika. - Produkzio-plana prestatzea. - Sektoreko enpresa baten bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa aztertzea. - Enpresaren finantzaketa-iturriak aztertzea eta haren aurrekontua egitea. - Forma juridikoa hautatzea. Tamaina eta bazkide kopurua.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresaren kontzeptua. Enpresa motak. - Enpresa baten funtsezko elementuak eta arloak. - Zerga-arloa enpresetan. - Enpresa bat eratzeko administrazio-izapideak (ogasuna eta gizarte-segurantza, besteak beste). - Lanbide-arloko enpresentzako diru-laguntzak, bestelako laguntzak eta zerga-pizgarriak. - Enpresaren jabeek duten erantzukizuna.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa zorrotz ebaluatzea. - Administrazio- eta legezko izapideak betetzea.

4. ADMINISTRAZIO FUNTZIOA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Kontabilitate-informazioa aztertzea: diruzaintza, emaitzen kontua eta balantzea. - Dokumentu fiskalak eta lanekoak betetzea. - Merkataritza-dokumentuak betetzea: fakturak, txekuek eta letrak, besteak beste.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Kontabilitatearen kontzeptua eta oinarrizko ideiak. - Kontabilitatea, egoera ekonomikoaren irudi zehatz gisa. - Enpresen legezko betebeharrak (fiskalak, lanekoak eta merkataritzakoak). - Dokumentu ofizialak aurkezteko eskakizunak eta epeak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Sortutako administrazio-dokumentuei dagokienez, antolamendua eta ordena balioestea. - Administrazio- eta legezko izapideak betetzea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulu honi ekiteko, komenigarria litzateke ikaslea jarrera ekintzailearekin mentalizatzea, bai norberaren konturako bai besteren konturako langile gisa.

Ondoren, enpresa-ideien inguruan gogoeta eginaraziko zaio eta ideia horiek hautatzeko metodologia egokiak erakutsiko zaizkio. Lehentasunez, dagokion lanbide-arloaren ingurunean lan egingo da; baina, hala ere, ez dira baztertzen beste lanbide-sektore batzuk.

Enpresa-idea garatzen jarraituko da: merkatu-azterketa egin, negozio-idea jorratu, ideia horren euskarri den enpresa diseinatu eta, ikuspegi sozialetik, etikotik eta ingurumenekotik, ingurunearen gaineko eragina baloratu.

Enpresa-plana egingo da. Horretarako, haren bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa, eta beste alderdi batzuk, besteak beste, *marketin-plana*, giza baliabideak, forma juridikoa, eta abar aztertuko dira.

Azkenik, ikasleari oinarrizko kontzeptuak azalduko zaizkio kontabilitatearen, zergen eta administrazio-kudeaketaren inguruan.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu honetan, irakasleak entrenatzaile-lana egingo du batik bat. Proiektuen tutoretza eramango du eta, taldearen beharren arabera, bideratzaile gisa jardungo du.

Irakasleak helburuak aurkeztu eta bideari ekiteko beharrezko ezagupenen sarrera laburra egin ondoren, ikasleak berak landuko du enpresa-proiektua arian-arian, bere konturako nahiz besteren konturako ekintzailatza-gaitasunak bereganatzearen.

Ikasleak bere proiektuan aurrera egiten duen neurrian, irakasleak beharrezkoak diren ezagupenak sartuko ditu, azalpenen bidez edota ikasgelan garatutako jardueren bidez. Gainera, hainbat liburu edo artikulu irakurtzera bultzatzea dezake ikaslea, horien edukia kurtsoko proiektura egokitze aldera.

Irakasleak ikasleen ikasteko prozesuaren jarraipen hurbilekoa eta bana-banakoa egin behar du. Horretarako, kontrol-zerrenda batean, aurrerapenak eta zailtasunak idatziz jaso behar ditu sistematikoki.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Ekintzaile-mentalizazioan sentsibilizatzea:
 - Euskal Herriko enpresa-ehuna identifikatzea. Sectoreak, tamaina, forma juridikoak, etab.
 - Enpresaburuaren ezaugarriak eta gaitasunak jasoko dituen erretratua egitea.
 - Enpresaburu izatearen abantailak eta eragozpenak bilduko dituen taula egitea.
 - Sektorean alderdi berritzaile txikiak identifikatzea.
 - Besteren konturako ekintzailearen, norberaren konturako ekintzailearen eta gizarte-ekintzailearen arteko desberdintasunak eta antzekotasunak aztertzea, talde-laneko indukzio-tekniken bidez.
- ✓ Enpresa-ideiak garatzea:
 - Merkatuaren beharrei erantzungo dieten negozio-ideiekin taula bat egitea.
 - Lan-taldeak sortzea eta horiek garatu beharreko ideiak hautatzea.
 - Merkatu-azterketa bat egitea, ingurunea behatuta, Internet erabilia, etab.
 - Hautatutako negozioarako AMIA (ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak) matrizea egitea.
 - Ideiari alderdi sortzaileak eta berritzaileak aplikatzea.



- Negozio-eredua prestatzea, alderdi etikoak, sozialak eta ingurumenekoak kontuan izanda.
- ✓ Enpresa baten bideragarritasuna eta abiaraztea:
 - ezarritako ereduari jarraituz enpresa-plan bat egitea.
 - Finantza-erakunde bati mailegua eskatzea (ahal dela, benetako izapideen bidez).
 - Enpresak eratzeko inprimakiak betetzea.
 - Internet erabilia, diru-laguntzak eta bestelako laguntzak bilatu eta aztertzea.
 - Enpresa-planak bateratu eta defendatzea.
- ✓ Administrazio-izapideak aztertu eta betetzea:
 - Diruzaintzako plan bat aztertzea: emaitzen kontua eta egoera-balantzea.
 - Dokumentu fiskalak eta lanekoak betetzea.
 - Merkataritza-dokumentuak betetzea: fakturak, txekeak eta letrak, besteak beste.

15

15. lanbide-modulua

LANTOKIKO PRESTAKUNTZA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Lantokiko prestakuntza
Kodea:	0348
Heziketa-zikloa:	Gizarteratzea
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	360 ordu
Kurtso:	2
Kreditu kop.:	22
Irakasleen espezialitatea:	Gizarte parte-hartzea (Bigarren Hezkuntzako irakaslea) Gizartearentzako zerbitzuak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoa)
Modulu mota:	Lanbide-profilari lotuta
Helburu orokorrak:	Guztiak

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Enpresaren egitura eta antolamendua identifikatzen ditu, eta horiek enpresak egiten duen zerbitzu motarekin erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Enpresaren antolamendu-egitura eta arlo bakoitzaren eginkizunak identifikatu ditu.
- Enpresaren egitura sektorean dauden eredu zko enpresa-antolamenduekin alderatu ditu.
- Zerbitzuaren ezaugarriak eta bezero mota enpresa-jardueraren garapenarekin lotu ditu.
- Zerbitzugintza garatzeko lan-prozedurak identifikatu ditu.
- Jarduera behar bezala garatzeko giza baliabideen beharrezko kompetentziak baloratu ditu.
- Jarduera honetan ohikoenak diren hedabideen egokitasuna identifikatu du.

2. Lanbide-jarduera garatzean ohitura etikoak eta lanekoak aplikatzen ditu, lanpostuaren eta enpresan ezarritako prozeduren arabera.

Ebaluazio-irizpideak:



- a) Aintzat hartu eta justifikatu ditu:
 - Lanpostuan beharrezkoa den pertsonal- eta denbora-eskuragarritasuna.
 - Jarrera pertsonalak (puntueltasuna, enpatia eta abar) eta profesionalak (besteak beste, lanposturako beharrezko ordena, garbitasuna, segurtasuna eta erantzukizuna).
 - Jarrerazko eskakizunak, lanbide-jarduerak dituen arriskuen prebentzioaren aurrean.
 - Lanbide-jardueraren kalitatearekin zerikusia duten jarrerazko eskakizunak.
 - Lan-talde barruko eta enpresan ezarritako hierarkiekiko harreman-jarrerak.
 - Lanaren esparruan egiten diren jardueren dokumentazioarekin zerikusia duten jarrerak.
 - Profesionalaren jardun egokiarekin lotuta, esparru zientifikoan eta teknikoan lan-munduratzeko eta berriro laneratzeko prestakuntza-beharrak.
- b) Laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauak identifikatu ditu, baita lanbide-jardueran aplikatzeko den Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen oinarrizko alderdiak ere.
- c) Lanbide-jarduerak dituen arriskuen arabera eta enpresaren arauen arabera erabili du norbera babesteko tresneria.
- d) Garatu dituen jardueretan ingurumena errespetatzeko jarrera izan du.
- e) Lanpostua edo jarduera garatzeko eremua antolatuta, garbi eta oztoporik gabe mantendu du.
- f) Zuzendu zaion lanaz arduratu da, jasotako argibideak interpretatuz eta betez.
- g) Egoera bakoitzean ardura duen pertsonarekin eta taldeko kideekin komunikazio eraginkorra ezarri da.
- h) Taldearen gainerakoekin koordinatu da eta sortzen diren gertakaririk adierazgarrienak komunikatu ditu.
- i) Bere jardueraren garrantzia eta zereginen aldaketetara egokitzeko beharra baloratu du.
- j) Lana garatzean arauak eta prozedurak aplikatzeaz arduratu da.

3. Lan-jarduera prestatzeko eragiketak egiten ditu, eta, horretarako, ezarritako arauen eta jarraibideen araberrako teknikak eta prozedurak aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Lan-jarduera prestatzeko jasotako jarraibideak interpretatu ditu.
- b) Garatu beharreko lan-prozesuak prestatzearekin lotzen den dokumentazioa identifikatu du.
- c) Ezarritako arauen eta jarraibideen araberrako kontrol-prozedurak erabili ditu.
- d) Lan-jarduera garatuko den espazioen egokitzapen-beharrak identifikatu ditu.
- e) Lan-jarduerari hasiera emateko irizpideak behar bezala aplikatu ditu, ezarritako arauak eta jarraibideak kontuan izanik.
- f) Zerbitzuaren hartzaileen beharrak ezagutu eta finkatu ditu, ezarritako protokoloak kontuan hartuta.
- g) Pertsona erabiltzaileekin lehen harremana izateko prozedurak behar bezala egin ditu, bitartekoak erabilia eta teknikak aplikatuta, ezarritako argibideen eta/edo arauen araberrak.
- h) Lan-jarduera prestatzeko prozesuan sortu diren zailtasunak identifikatu ditu.
- i) Jarduera prestatzeko jarduera guztiak egin ditu, erabiltzaileen intimitate pertsonala errespetatzeko printzipioak kontuan hartuta.

4. Lan-plangintzan aurreikusten diren jarduerak egiten ditu, eta, horretarako, garatu beharreko jardueren berezko prozeduren eta tekniken aplikazioarekin lotzen ditu ezarritako arauak eta jarraibideak.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Lan-jarduera egiteko jasotako jarraibideak interpretatu ditu.
- b) Garatu beharreko lan-prozesuekin lotzen den dokumentazioa identifikatu du.
- c) Ezarritako prozedurei jarraituz egin ditu zereginak.
- d) Lanbidearen irizpide deontologikoak kontuan izanik egin ditu lan-jarduera guztiak.
- e) Erabiltzaileei buruzko informazioaren konfidentzialtasuna errespetatu du.
- f) Erabiltzaile, egoera edo zeregin motaren arabera jarrera egokiak erabili ditu.
- g) Jarduerarako baliabide tekniko egokiak erabili ditu.
- h) Baliabide teknikoen erabileran ezarritako prozedurei jarraitu die.
- i) Erabilitako teknikak zerbitzuaren hartzaileen beharrekin lotu ditu.

5. Segurtasun- eta higiene-irizpideak betetzen ditu, eta higiene- eta osasun-arauak, laneko segurtasunekoak eta ingurumena babestekoak aintzat hartuta jarduten du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Legezko araudiarekin lotutako nahitaez bete beharreko higiene- eta osasun-arauak, eta enpresaren beraren berariazkoak antzeman ditu.
- b) Higiene- edo osasun-arazoak nahiz segurtasunekoak sorraz ditzaketen portaera edo jarrera guztiak antzeman ditu.
- c) Jarduerarako jantzi egokiak erabili ditu.
- d) Lanbide-jarduerak dituen arriskuen arabera eta enpresaren arauen arabera erabili du norbera babesteko ekipamendua.
- e) Laneko arriskuen prebentzioari dagokionez lanbide-jardueran aplikatu beharreko arauak eta aplikatzekoa den legeriaren oinarritzko alderdiak identifikatu ditu.
- f) Garatutako jardueretan, ingurumena errespetatzeko jarrera argia izan du, eta horrekin lotutako barruko eta kanpoko arauak aplikatu ditu.
- g) Hondakinak biltzeko, hautatzeko, sailkatzeko eta ezabatzeko edo isurtzeko eragiketak aplikatu ditu.

6. Egindako zerbitzua aztertzen du, esku hartzeko prozeduraren kalitate-irizpideekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Kalitatea kudeatzeko prozedurak eta tresnak identifikatu ditu.
- b) Informazioa transmititzeko enpresak edo erakundeak ezarritako kanalak behar bezala erabili ditu.
- c) Lan-jarduera egiteko jasotako jarraibideen betetze-maila baloratu du.
- d) Norberaren jarduera kontrolatzeko eta jarraipena egiteko prozesuarekin lotzen den dokumentazioa identifikatu du.
- e) Jarduerak egiteko moduarekiko jarrera kritikoa erakutsi du.
- f) Zereginak egiteko ezarritako prozedurari jarraitu zaiola egiaztatu du.
- g) Lanbide-jarduerak egitean, lanbidearen irizpide deontologikoak aplikatu ditu.
- h) Erabilitako baliabideen eta tekniken egokitzapena argudiatu du.

c) Lanpostuko ikaskuntza-egoerak

Jarraian, lantokiko egonaldian ikasleak gara ditzakeen jarduerak islatzen dituzten zenbait lan-egoera adierazten dira.

- ✓ Komunikazio operatiboko dokumentu-ereduak eta hainbat motatako jardun betetzea.
- ✓ Eraginpeko enpresaren antolamendu funtzionalari buruzko informazio analitiko-deskriptiboa lantzea, ikaslearentzat aurreikusitako lanpostu zehatzari erreferentzia eginik.



- ✓ Segurtasun eta Higiene Plana eta harekin loturiko bitartekoak eta gailuak eta Laneko Arriskuak Prebenitzeko Plana aztertzea
- ✓ Kalitate Plana eta emandako zerbitzuetan hark izandako emaitzak aztertzea.
- ✓ Esleituriko kasuei buruzko informazioa lortzea eta aztertzea gizarteratzeko esku hartzeak egiteko helburuarekin.
- ✓ Gizarte parte hartzeko programak eta proiektuak lantzea.
- ✓ Gizarte parte-hartzearen giza baliabideak, baliabide materialak eta ekonomikoak antolatzea eta kudeatzea.
- ✓ Parte hartuko den ingurune eta gizatalde bakoitzari dagokion materiala lantzea.
- ✓ Esleituriko kasuak artatzeko arauak eta prozedurak ezartzea.
- ✓ Gizartean parte hartzeko programak ebaluatzea.
- ✓ Bizikidetzaren unitateak artatzeko protokoloak definitzea.
- ✓ Etxeko mantentze-lanak gainbegiratzea.
- ✓ Babes pertsonaleko eta emozionaleko lanak antolatzea eta gainbegiratzea.
- ✓ Lagundutako pertsonaren ohiko bizilekuko espazioa antolatzea.
- ✓ Bizikidetzaren unitateari bere gain hartu beharreko erantzukizunei eta ekintzei buruzko aholkua eskaintzea.
- ✓ Etxearen kudeaketa gauzatzea.
- ✓ Oinarrizko premien gogobetetze-maila eta lorturiko bizikidetzaren unitatearen gaitasunen garapen-maila ebaluatzea.
- ✓ Mugikortasunaren galeraren prebentzioko eta mugikortasunari eusteko jarduerak zuzentzea eta gainbegiratzea.
- ✓ Autonomia pertsonaleko eta sozialeko trebetasunak eskuratzeko trebakuntza.
- ✓ Komunikazio-trebetasunei laguntzea eta haiek estimulatzea.
- ✓ Autonomia-trebetasunaren garapenean eginiko lorpenak ebaluatzea.
- ✓ Laneratzeko jarduerak gainbegiratzea.
- ✓ Lagundutako pertsonari zuzendutako instrukzioa eta aholkularitza.
- ✓ Ebaluazio-teknikak eta -prozesuak aplikatzea lortutako laneratze-maila balioesteko.
- ✓ Ikasleak lantokian izandako egonaldiari dagokion esperientzia aztertzea, komunikatzea eta balioestea.
- ✓ Lanbide-orientazio pertsonala aztertzea, lantokian izandako esperientziaren arabera.



4. GUTXIENeko ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK

4.1 Espazioak:

PRESTAKUNTZA ESPAZIOA	AZALERA m ² / 30 IKASLE	AZALERA m ² / 20 IKASLE
Balio anitzeko gela	60	40
Gizarte parte-hartzeko tailerra	150	100

4.2 Ekipamenduak:

PRESTAKUNTZA ESPAZIOA	EKIPAMENDUA
Balio anitzeko gela	<ul style="list-style-type: none"> - Ikus-entzunezko ekipoak. - Sarean instalatutako PCak, proiektzio-kanoiak eta Internet. - Arbel finkoa. - Hondakinen eduki-ontzia. - Irakasle mahaia, besaulkia eta guzti. - Idazmahaiak - Esekigailuak. - Argazki-kamera digitala. - Sarraila duen armairua, informatika eta ikus-entzunezko tresneria gordetzeko. - Beira-arasa kristalezko ateduna. - Apalategiak. - Software elkarreragilea. - Bideokamera. - Hormako proiektzio-pantaila.
Gizarte parte-hartzeko tailerra	<ul style="list-style-type: none"> - Lekualdatzeetarako eta mobilizazioetarako ekipamendua: <ul style="list-style-type: none"> • Ohea. • Taka-taka. • Gurrpil-aulkiak. • Lerradura-tapiza. • Transferentzia-aula. • Lerradura-aula. • Transferentzia-diskoa. • Agontzeko soka-eskala. • Garabia. - Eguneroko bizitzako jardueretarako laguntza teknikoetako ekipamendua. - Laguntza bidezko komunikazio-sistema nagusiak: Bliss, komunikazio-sistema piktografikoa.

5. IRAKASLEAK

5.1 Irakasleen espezialitateak eta irakasteko eskumena heziketa-zikloko lanbide-moduluetan

LANBIDE MODULUA	IRAKASLEEN ESPEZIALITATEA	KIDEGOA
0337. Gizarte esku-hartzearen testuingurua	Gizarte parte-hartzea	Bigarren Hezkuntzako irakaslea
0338. Gizarteratzea eta laneratzea	Gizartearentzako zerbitzuak	Lanbide Heziketako irakasle teknikoa
0339. Bizikidetzaren unitateentzako arreta	Gizartearentzako zerbitzuak	Lanbide Heziketako irakasle teknikoa
0340. Bitartekaritza komunitarioa	Gizartearentzako zerbitzuak	Lanbide Heziketako irakasle teknikoa
0341. Hezkuntzako esku-hartzearen babesa	Gizarte parte-hartzea	Bigarren Hezkuntzako irakaslea
0342. Autonomia pertsonalaren sustapena	Gizarte parte-hartzea	Bigarren Hezkuntzako irakaslea
0343. Komunikazio-sistema handigarriak eta alternatiboak	Gizartearentzako zerbitzuak	Lanbide Heziketako irakasle teknikoa
	Irakasle espezialista	
0344. Gizartean esku hartzeko metodologia	Gizarte parte-hartzea	Bigarren Hezkuntzako irakaslea
0020. Lehen laguntzak	Osasun- eta laguntza-prozedurak Diagnostiko kliniko eta ortoprotesikoko prozedurak	Lanbide Heziketako irakasle teknikoa
	Irakasle espezialista	
0017. Gizarte-trebetasunak	Gizarte parte-hartzea	Bigarren Hezkuntzako irakaslea
0345. Gizarteratzeko proiektua	Gizarte parte-hartzea	Bigarren Hezkuntzako irakaslea
	Gizartearentzako zerbitzuak	Lanbide Heziketako irakasle teknikoa
E-200. Ingeles teknika	Ingelesa	Bigarren Hezkuntzako irakaslea
0346. Laneko prestakuntza eta orientabidea	Laneko prestakuntza eta orientabidea	Bigarren Hezkuntzako irakaslea
0347. Enpresa eta ekimen	Laneko prestakuntza eta	Bigarren Hezkuntzako

sortzailea	orientabidea	irakaslea
0348. Lantokiko prestakuntza	Gizarte parte-hartzea	Bigarren Hezkuntzako irakaslea
	Gizartearentzako zerbitzuak	Lanbide Heziketako irakasle teknikoa

6. LANBIDE MODULUEN ARTEKO BALIOZKOTZEAK

LOGSE 1/1990 LEGEAN EZARRITAKO HEZIKETA ZIKLOETAKO LANBIDE MODULUAK	GIZARATERATZEA HEZIKETA ZIKLOKO LANBIDE MODULUAK (LOE, 2/2006)
Talde-dinamika eta -animazioa	0017. Gizarte-trebetasunak
Gizarteko parte-hartzearen testuingurua eta metodologia	0337. Gizarte parte-hartzearen testuingurua 0344. Gizartean esku hartzeko metodologia
Laneratzea	0338. Gizarteratzea eta laneratzea
Bizikidetzta-unitateentzako arreta	0339. Bizikidetzta-unitateentzako arreta
Autonomia pertsonaleko eta sozialeko trebetasunak	0342. Autonomia pertsonalaren sustapena
Oinarrizko jarraibideak eta komunikazio-sistema alternatiboak	0343. Komunikazio-sistema handigarriak eta alternatiboak
Gizarteratzeko goi-mailako teknikariaren tituluko lantokiko prestakuntza	0348. Lantokiko prestakuntza

7. TITULUKO LANBIDE MODULUEN ETA KONPETENTZIA ATALEN ARTEKO TRAZABILITATE ETA EGOKITASUN LOTURAK

7.1 Konpetentzia-atalen egokitasuna lanbide-moduluekin, horiek baliozkotu edo salbuesteko

KONPETENTZIA ATAL EGIAZTATUAK	BALIOZKOTU DAITEZKEEN LANBIDE MODULUAK
UC0252_3: Gizarteratzeko parte-hartzeak programatzea, antolatzea eta ebaluatzea. UC1448_3: Gizarte-baliabideak eta komunitatekoak antzematea, sortzea eta erabiltzea esku-hartze sozioedukatioak egiteko ezintasuna duten pertsonekin.	0337. Gizarte esku-hartzearen testuingurua



<p>UC1034_3: Baliabide soziolaboralei eta prestakuntzakoei buruzko informazioa kudeatzea eta ezintasuna duten pertsonak laneratzeko eta gizarteratzeko lanpostuen azterketan laguntzea.</p> <p>UC1035_3: Ezintasuna duten pertsonen trebetasun soziolaboralak eskuratzeko eta garatzeko trebakuntzako parte-hartzeak gauzatzea.</p> <p>UC1036_3: Ezintasuna duten pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko prozesua babestea.</p> <p>UC1037_3: Gizarteratzearen eta laneratzearren jarraipena egitea enpresarekin, erabiltzailearekin eta haren ingurune pertsonalarekin.</p>	<p>0338. Gizarteratzea eta laneratzeara</p>
<p>UC1450_3: Ezintasuna duten pertsonak aisiako eta denbora libreko espazioetan sartzeko prozesuak antolatzea, garatzea eta ebaluatzea.</p> <p>UC1452_3: Ezintasuna duten pertsonen familiekin lan egitea, haiek orientatzea eta laguntzea, goi-mailako profesionalarekin batera.</p>	<p>0339. Bizikidetzaren unitateentzako arreta</p>
<p>UC1038_3: Parte-hartzearen gizarte-testuinguruaren ezaugarriak eta premiak identifikatzea eta zehaztea.</p> <p>UC1039_3: Pertsona, eragile eta gizatalde ezberdinen arteko gatazkak prebenitzea.</p> <p>UC1040_3: Gatazkak kudeatzeko prozesua antolatzea eta ezartzea.</p> <p>UC1041_3: Gatazkak kudeatzeko bide gisa bitartekaritza balioestea eta haren jarraipena eta hedapena gauzatzea.</p>	<p>0340. Bitartekaritza komunitarioa</p>
<p>UC1427_3: Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen hezkuntza-programak gauzatzea, tutorearekin eta ikastetxeko diziplina arteko taldearekin lankidetzan, haien erreferentziako gelan.</p> <p>UC1428_3: Autonomia pertsonaleko eta higieneko programak ezartzea hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen garbitasunean, ikastetxeko diziplina arteko taldearekin lankidetzan.</p>	<p>0341. Hezkuntzako esku-hartzearen babesa</p>
<p>UC0253_3: Autonomia pertsonalerako eta gizarte-autonomiako trebetasunak lantzea eta eskuratzera zuzenduriko esku-hartzeak garatzea.</p> <p>UC1449_3: Ezintasuna duten pertsonen programaturiko jarduerak antolatzen eta gauzatzen laguntzea.</p> <p>UC1451_3: Ezintasuna duten pertsonen zuzendutako oinarritzko estrategia kognitiboaren eta alfabetatze teknologikoaren estrategien antolakuntzan eta garapenean entrenatzea goi-mailako profesionalarekin lankidetzan.</p>	<p>0342. Autonomia pertsonalaren sustapena</p>

UC0254_3: Komunikazio-sistema alternatiboak finkatzea, egokitzea eta aplikatzea.	0343. Komunikazio-sistema handigarriak eta alternatiboak
UC1022_3: Gizarte edo lurralde-esparru jakin bat osatzen duten eragileen artean garatzen diren gizarte-jardunen eta -proiektuen eta herritarrek parte hartzeko plangintza, garapena eta ebaluazioa dinamizatzea. UC1024_3: Gizarte-proiektuen eta -jardunen komunikaziorako eta hedapenerako estrategiak ezartzea. UC1026_3: Generoaren ikuspegia txertatzea gizartean parte hartzeko proiektuetan.	0344. Gizartean esku hartzeko metodologia

7.2 Lanbide-moduluen egokitasuna konpetentzia-atalekin, horiek egiaztatzeko

LANBIDE MODULU GAINDITUAK	EGIAZTA DAITEZKEEN KONPETENTZIA ATALAK
0337. Gizarte esku-hartzearen testuingurua	UC0252_3: Gizarteratzeko parte-hartzeak programatzea, antolatzea eta ebaluatzea. UC1448_3: Gizarte-baliabideak eta komunitatekoak antzematea, sortzea eta erabiltzea esku-hartze sozioedukatiboak egiteko ezintasuna duten pertsonekin.
0338. Gizarteratzea eta laneratzea	UC1034_3: Baliabide soziolaboralei eta prestakuntzakoei buruzko informazioa kudeatzea eta ezintasuna duten pertsonak laneratzeko eta gizarteratzeko lanpostuen azterketan laguntzea. UC1035_3: Ezintasuna duten pertsonen trebetasun soziolaboralak eskuratzeko eta garatzeko trebakuntzako esku-hartzeak gauzatzea. UC1036_3: Ezintasuna duten pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko prozesua babestea. UC1037_3: Gizarteratzearen eta laneratzearen jarraipena egitea enpresarekin, erabiltzailearekin eta haren ingurune pertsonalarekin.
0339. Bizikidetzaren unitateentzako arreta	UC1450_3: Ezintasuna duten pertsonak aisiako eta denbora libreko espazioetan sartzeko prozesuak antolatzea, garatzea eta ebaluatzea. UC1452_3: Ezintasuna duten pertsonen familiekin lan egitea, haien orientatzea eta laguntzea, goi-mailako profesionalekin batera.
0340. Bitartekaritza komunitarioa	UC1038_3: Parte-hartzearen gizarte-testuinguruaren ezaugarriak eta premiak identifikatzea eta zehaztea. UC1039_3: Pertsona, eragile eta gizatalde ezberdinen arteko gatazkak prebenitzea. UC1040_3: Gatazkak kudeatzeko prozesua antolatzea eta ezartzea. UC1041_3: Gatazkak kudeatzeko bide gisa bitartekaritza balioestea eta haren jarraipena eta hedapena gauzatzea.



<p>0341. Hezkuntzako esku-hartzearen babesa</p>	<p>UC1427_3: Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen hezkuntza-programak gauzatzea, tutorearekin eta ikastetxeko diziiplina arteko taldearekin lankidetzan, haien erreferentziako gelan. UC1428_3: Autonomia pertsonaleko eta higieneko programak ezartzea hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen garbitasunean, ikastetxeko diziiplina arteko taldearekin lankidetzan.</p>
<p>0342. Autonomia pertsonalaren sustapena</p>	<p>UC0253_3: Autonomia pertsonalerako eta gizarte-autonomiako trebetasunak lantzerako eta eskuratzeko zuzenduriko esku-hartzeak garatzea. UC1449_3: Ezintasuna duten pertsonen programaturiko jarduerak antolatzen eta gauzatzen laguntzea. UC1451_3: Ezintasuna duten pertsonen zuzendutako oinarrizko estrategia kognitiboen eta alfabetatze teknologikoaren estrategien antolakuntzan eta garapenean entrenatzea goimailako profesionalarekin lankidetzan.</p>
<p>0343. Komunikazio-sistema handigarriak eta alternatiboak</p>	<p>UC0254_3: Komunikazio-sistema alternatiboak finkatzea, egokitzea eta aplikatzea.</p>
<p>0344. Gizartean esku hartzeko metodologia</p>	<p>UC1022_3: Gizarte edo lurralde-esparru jakin bat osatzen duten eragileen artean garatzen diren gizarte-jardunen eta -proiektuen eta herritarrek parte hartzeko plangintza, garapena eta ebaluazioa dinamizatzea. UC1024_3: Gizarte-proiektuen eta -jardunen komunikaziorako eta hedapenerako estrategiak ezartzea. UC1026_3: Generoaren ikuspegia txertatzea gizartean parte hartzeko proiektuetan.</p>



*Instituto Vasco de Cualificaciones
y Formación Profesional
Kualifikazioen eta Lanbide
Heziketaren Euskal Institutua*

Avda. Lehendakari
Aguirre, 184
48015 - Bilbao

T. 944 47 40 37
F. 944 47 38 62

www.kei-ivac.com
info@kei-ivac.com



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Lanbide Heziketako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Formación Profesional